

## **1.IKASGAIA. KONTZIENTZIA-ASKATASUNA ETA FAMILIA**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **- Sarrera. Gaia kokatzea**

- Azterketa-eremua zehaztea: EK-ko 16. + 39. art.; EK-ko 1.1, 9.2 eta 10.1: Kontzientzia-askatasuna, estatu laikoa, lankidetzaharremanak erlijio-konfesioekin, familiaren babes

#### **- 1. ezkontzeko eskubidea eta familia bat eratzeko eskubidea**

- Familia eta EK: 39. art., "familia" terminoaren hedadura (EK-ko 1.1, 9.2, 10.1, 16. eta 14.)

- **Ezkontzeko eskubidea.** EK-ko 32. *ius connubi*ren aitortzea: nazioarteko araudian eta Kode zibilean 13/2005 legearen ondoren, bikote heterosexual naiz homosexualen lutzatua.

- Egitatezko/izatezko elkarbizitzak, *more uxorio* bizikidetzaren tratamendu juridikoa

#### **- 2. Ezkontza-sistemak**

- Esanahia

- Sailkapena

#### **1.- Tipo bakarreko ezkontza-sistemak**

a) Tipo bakarreko ezkontza erlijiosoa denean

b) Tipo bakarreko ezkontza zibila denean:

b.1) Tipo bakarreko eta forma bakarreko: nahitaezko ezkontza zibila

b.2) Tipo bakarreko zibila denean eta forma anitzekoa denean

#### **2.- Tipo anitzeko sistemak**

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

- a) Ezkontza zibila fakultatiboa denean
- b) Ezkontza zibila subsidiarioa denean

## II. IKASGAIA GARATUTA

### Sarrera

Irakasgai honetan, **ezkontza-zuzenbidearen** eremuan kokatuko gara. Hasteko, **ezkontza-sistema** kategoria juridiko gisa aztertuko dugu: **kontzeptuaren esanahia eta motak**, Europar Batasuneko estatuak egin duten ezkontza-sistemaren hautaketa eta, sakonkiago, estatu espainiarrean indarrean dagoen ezkontza-sistema nolakoa den.

Ezkontza-sistemez aritzen garenean, ohartuko gara ordenamendu juridiko batekin baino gehiagorekin egingo dugula topo; denek arautuko dute ezkontza neurri batean. Ordenamendu zibila eta erlijiosoak izango ditugu tartean. Oinarrizko irizpide izango da jakitea efektu juridiko zibilei dagokienez zenbat ezkontza motek izango duten ahalmena ezkontza eratu, arautu eta amaitzeko. Halaber, aztertuko dugu ezkontzari dagokionez ordenamendu desberdin horien artean dagoen harremana zein den.

Gaia **kontzientzia-askatasunaren ikuspuntutik** aztertuko dugu. Horrekin esan nahi dugu irakasgaia aztertzean beti izango dugula kontuan familia eta ezkontza arautzerakoan zein araudik eman dion erantzuna gai honi herritarren kontzientzia-askatasunari dagokionez. Halaber, aztertuko dugu ea indarrean dagoen ezkontza-sistema egokiena ote den herritar guztien uste sendoak berdintasunez errespetatuta ezkondu eta familia bat eratzeke eskubidea garatzeko.

Espainiar estatuan, indarrean dagoen **estatu-eredua** zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa da, eta askatasuna, berdintasuna, pluraltasuna eta justizia balio gorentzat hartzen ditu (EK-ko 1.1 art.). **Pertsonaren duintasuna** ere balio gorenen artean kokatuko dugu (EK-ko 10.1 art.).

Fenomeno erlijiosoari dagokionez, indarrean dagoen **estatu laikotzat** jotzen da. EK-ko 16.3 artikulua dio “estatuak ez duela bere egingo inolako erlijiorik”; horri gehitzen zaio “botere publikoek kontuan hartuko dituztela Espainiako gizartearen

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

erlijio-sinesmenak eta araberako lankidetzaharremanak izango dituztela Eliza katolikoarekin eta gainerako erlijio-konfesioekin". EKn, Gaur egun, *laikotasun positiboaz* mintzatu ohi da; horren arabera, botere publikoek, kontuan izango dituzten herritarren sineste erlijioso eta erlijio-konfesioekin, lankidetzaharremanak izango dituzte; helburua zera izango da, herritarren kontzientzia-askatasuna *benetakoa* eta *eraginkorra*, bene-benetakoa izatea (EK-ko 9.2 art.). Lankidetzahorren muga, betiere, herritarren arteko berdintasuna eta estatuaren laikotasuna izango dira. Edozein erakunde interpretatu edo balioetsi behar dugunean, irizpide horiek hartuko ditugu kontuan.

Eremu juridiko komun hori kontuan izanda, gure azterketa-eremu nagusia ezkontza-sistema izango da lehenengo ikasgaietan. Ondoren, ezkontza-zuzenbideko zenbait atal aztertuko ditugu: ezkontza negozio juridiko gisa, haren eraketa, oinarrizko elementuak, baliogabetze motak eta desegitea. Kontuan izanda indarrean dagoen ezkontza-sisteman ezkontza zibilarekin batera ezkontza erlijiosoei efektu zibilak aitortzen zaizkiela, ordenamendu zibilarekin batera, ordenamendu erlijiosoak aztertuko ditugu, dituzten efektuen arabera.

Azterketa horrekin hasi baino lehenago, ezkontzarekin harreman zuzena duen beste eremu bati egingo diogu aipamena: familiari. Izan ere, gaur egun materia honekin erlazionatuta dagoen **errealitate** soziologikoa da, eta, nolabait, honela laburtu dezakegu:

- Pertsona batzuk familia eratzeko **ezkontzen dira**. Hainbat arrazoiengatik jotzen dute hori dela berentzako aukerarik egokiena. Are gehiago, bikote bakoitzak bere kontzientziaren arabera aukeratu ahal izango du ezkontzeko forma: zibila edo erlijiosoa; azken horretan ere, hainbat aukera egon daitezke. Posible da hainbat forma erlijiosori jarraituz ezkontzea eta ezkontza horrek efektu juridikoak izatea, baina erregimen juridikoa ez da guztiz berdina kasu guztietan.

- Beste batzuentzat, ordea, bikotearen arteko harreman pertsonalak ezin ditu zuzenbideak arautu. Haien ideologia, edo uste sendoen arabera, zuzenbideak ez du zeresanik gai horretan; are gehiago, esaten dute harremana juridiko bihurtzean, bikote-obligazioak zuzenbideak ezartzean, bikotearen esentzia –alegia bikote-obligazioak

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

libreki onartzearena– desagertu egiten dela. Haien ustez, harreman pertsonalek bikote bakoitzaren autonomiaren arabekoak izan behar dute.

Kasu horretan daude izatezko bikoteak, alegia, egitatez, *de hecho*, elkarrekin bizi diren bikoteak, ezkondu nahi ez dutelako, edo ezkondu nahi izanda ordenamenduak ezkontza horiek onartzen ez dituelako. Horixe zen sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartu bitartean homosexuali gelditzen zitzaien bide bakarra bikote harremana bideratzeko.

- Badira, halaber, erlijio- edo kultura-arrazoiak direla-eta poligamia-egoerak aukeratzen dituztenak; indarrean dagoen araudiaren arabera, lehenengo ezkontza bakarrik izango da baliozkoa; gainontzekoak ezkontza deusezak izango dira legeriak dioenez.

Aztertu beharko da **ordenamenduak nola arautzen dituen gai horiek**. Zein da errealitate horri ematen zaion erantzun juridikoa? Aipaturiko elkarte horiek guztiek eratu al dezakete familia bat ikuspuntu juridikotik?

**Gure azterketa-ikuspuntutik**, familia bat eratzeko eskubideak lotura estua du kontzientzia-askatasunarekin.

LLamazares irakaslearen doktrinari jarraituz, kontzientziaz mintzatzen garenean, pertsonaren esentzia, muina, eratzen duten uste sendo edo uste sendoez ari gara; pertsonaren nortasuna eratzen duten uste sendoez arituko gara. Eremu horrek lotura zuzena du pertsonaren duintasunarekin; izan ere, kontzientzia-askatasunak gizabanakoari aukera emango dio dituen uste sendoen arabera bere bizia bideratzeko.

Autore horren arabera, kontzientzia-askatasunaren edukia hiru mailatan sistematiza daiteke:

1.- Kontzientzia-askatasunak ahalmena ematen dio gizabanakoari bere **ideia eta pentsamendu propioak izateko**. Horiek ziurtasun maila handia lortzen dutenean, pertsonaren uste sendoak eratuko dituzte; horiexek izango dira kontzientziaren oinarria. Ildo berean kokatzen da subjektuak ideiak eta pentsamenduak **askatasunez eratzeko**

duen eskubidea. Horretarako, eremu egokiak dira hezkuntzaren nahiz informazioaren eremuak.

2.- Kontzientzia-askatasunak ahalmena ematen dio subjektuari bere uste sendoak **adierazteko** eta besteei **jakitera emateko**. Horretarako, hezkuntzarena eremu egokia da -irakasteko askatasunaren bitartez-, baita komunikabide edo bestelako adierazpideena ere.

3.- Kontzientzia-askatasunak ahalmena ematen die titular diren subjektuei beren **uste sendoen arabera jarduteko**; halaber, eskubidea ematen du uste sendoen kontra jardutera behartuta ez egoteko, printzipio gisa. Badakigu zenbait kasutan kontraesanak sortzen direla kontzientziako arauen eta estatuko arauen artean. Maila horretan koka ditzakegu kontzientzia-eragozpeneko arazoak.

Familiaren eremua, hain zuzen ere, familia bat eratzeko eskubidea, **subjektuaren kontzientziaren adierazpen bat dugu**. Izan ere, bikote batek, bere uste sendoen arabera, bide bat edo beste hauta dezake familia eratzeko; ezkontza ez da, gaur egun, legearen aurrean familia eratzeko bide bakarra.

### **1.- ezkontzeko eskubidea eta familia bat eratzeko eskubidea**

Lehenik, **EK-ko 39. artikulua** aipatuko dugu. Hor, hauxe jasotzen da: botere publikoek segurtatzen dutela familiaren babesa soziala, ekonomikoa eta juridikoa (...).

EK-k berariazko aipamena egiten dio familiari, baina ez du zehazten haren esanahia. Gaur egun, adostasunez onartzen da EK-k **termino hori zentzu zabalean** erabiltzen duela. Izan ere, hala adierazi du Auzitegi Konstituzionalak (AK aurrerantzean) bere jurisprudenzian, esaterako 222/1992 epaian, 4. eta 5. Oinarri Juridikoetan (OJ aurrerantzean).

Alegia, EK-ko 39.eko familia **ez da izango bakarrik ezkontzan oinarriturikoa**; kontuan hartu beharko dira, halaber, gaur egungo gizartean dauden *bestelako familia-ereduak*: izatezko bikoteek eraturikoak –erregistratuak edo

erregistratu gabekoak-, bikote heterosexual edo homosexualen artekoak, guraso bakarreko familiak, familia poligamoak.

Ikuspuntu juridikotik, konstituzioan ere, badaude oinarri juridikoak familia terminoa **zentzu zabalean** ulertzearen aldekoak. Izan ere, EK-ko 39. artikulua EK-ko oinarriak jasotzen dituzten artikuluen harira interpretatzen bada, horixe da ondorioa.

Beraz, EK-ko artikulua hori interpretatzeko, EKn **sistemaren oinarrizko elementuak** jasotzen dituzten artikulua batzuk izango ditugu kontuan. Besteak beste:

-**Pertsonaltasunaren printzipioa, 10.1.** Horren arabera, pertsona eta haren nortasunaren garapen librea izango dira ordena politiko eta bake sozialaren oinarri; beraz, ordenamenduak hori kontuan izango du bere araudia zehazterakoan.

- **Askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluraltasuna** dira ordenamendu guztia inspiratzen duten balio nagusiak, EK-ko 1.1 artikulua.

-**EK-ko 16. artikuluko kontzientzia-askatasuna** aitortzen da, baita laikotasuna ere, estatuaren eta erlijio-konfesioen arteko harremanetan; **laikotasun positibo** izendatu ohi da, lankidetzaren aurrekustean baita estatuaren eta erlijio-konfesioen artean; EK-k adierazten du gizartearen erlijio-sinesmenen arabera izango dela lankidetzaren.

- **EK-ko 9.2. artikuluan**, aurrekustean da botere publikoen egitekoa bideak jartzea dela norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezkeen; dauden oztopoak kenduz, eta aukera egokiak emanez. Berdintasun formalaz gain, berdintasun materiala bermatzea da helburua; estatu sozialaren edukiarekin lotutako edukia dugu hori, EK-ko 1.1 artikulua.

**Artikulu horiek modu bateratuan interpretatuz**, zera ondoriozta daiteke:

Familia bat eratzea bide egokia izan daiteke pertsona baten nortasunaren garapena bideratzeko; ildo horretan, baita haren afektibitatea eta seme-alabak izateko aukera.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Idea hori oinarria izanik, indarrean dagoen estatu-eredua kontuan hartuta, pertsona bakoitzak bere familia eratuko ahal izango du bere irizpide ideologiko, erlijioso edo kulturalen arabera (EK-ko 39.a 10.1 + 16. artikuluen harira). Betiere, eta efektu juridikoei dagokienez, muga batzuk egongo dira.

Zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batean –EK-ko 9.2–, laikoa bestek beste–EK-ko 16.1–, botere publikoek neurriak hartuko dituzte –EK-ko 16.3– aukera guztiak babesteko, EK-ko 39. art. Garrantzitsua izango da berdintasuna, askatasuna, pluraltasuna kontuan izatea.

Printzipio horiek kontuan izanda, **familia mota guztiak izango dute babes juridiko bera**. Izan ere, familia-eredu horiek guztiak betetzen dituzte –ikuspuntu historiko, soziologiko eta antropologikotik– familiari egotzi ohi zaizkion funtzio ekonomiko, hezitzaile, asistentziazkoak, sozializatazaileak eta afektuzkoak, bestek beste. Gaur egun, jotzen da familia gizartearen antolaketaren oinarrietariko bat dela, eta garrantzia berezia duela pertsonaren nortasuna eratzeko. Dimentsio soziala, publikoa ere badu, belaunaldi berriak sortzeko, hazteko, hezteko eta zaintzeko eremu gisa. Horregatik, Estatuak babestu egingo du.

Familiaren eraketari dagokionez, EKn, 39. artikuluekin batera, EK-ko 32. artikulua izan behar da kontuan. Hor aitortzen da **ezkontzeko eskubidea** edo *ius connubii* delakoa. Ildo berean dabil nazioarteko araudia: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (Declaración Universal de Derechos Humanos), 16. art.; Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (Convenio Europeo de Derechos Humanos), 12. art.; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena (Pacto Internacional de derechos económicos, sociales y culturales) 10. art; Europako Kontseiluak onetsitako Nizako Deklarazioa, 9. art., Europako Konstituzioaren proiektua, II-9. art.

Arau horietan, "ezkondu eta familia bat eratzeko eskubidea" aitortzen da. Garrantzitsuak dira arau horiek guztiak, EK-ko 10.2 artikulua dionaren arabera, EK-ko 39. eta 32. artikuluetako eskubideak interpretatzeko.

Familia bat eratzeko dauden aukera guztietatik, EK-k nazioarteko araudiaren ildotik, 32. artikuluan, eskubide konstituzional moduan aitortzen du ezkontzeko

eskubidea. Ezkontzea da agian jarraituena, edo sustraitze handiena duena historian eta gizartean; dena den, EKn ez da bestelako aukerarik baztertzen.

EK-ko 32.artikuluak ezkontzeko eskubidea aitortzen die **gizonari eta emakumeari** guztizko berdintasun juridikoan. Adierazpen horren inguruan, doktrina-korrante batek beti uste izan du Konstituzioak ez duela eskatzen gizona eta emakumea "beren artean" ezkontzeko; ildo horretatik, esaten zuten sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aukera legegilearen esku egongo zela. Horixe izan da gaur egun gailendu den interpretazioa; are gehiago, horren adierazgarria da 13/2005 legea, uztailaren 1ekoa, Kode zibileko zenbait artikulua aldatzen dituen, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak bideratzeko.

Interpretazio horren aurrean, doktrinaren atal batek, kontserbadore deitu ohi zaionak, azpimarratu du ezkontza instituzio bat dela, eta haren elementu adierazgarrienen artean heterosexualitatea dagoela. Uste dute bikote homosexualen arteko loturak errealitate bat direla, horien eskakizunak arautu behar direla, baina ezkontzaren instituzioan sartu gabe. Ildo horretan, Alderdi Popularrak konstituzio kontrako helegite bat aurkeztu zuen kode zibila aldatu zuen legearen kontra, L 13/2005.

Horren aurrean, badago beste doktrina-korrante bat uste duena ordenamenduko edozein termino interpretatzeko zalantza dagoenean kontuan izan behar dela Kode zibilean jasotzen diren interpretaziorako irizpideak, 3. artikuluan; horien artean dago araua aplikatu behar den garaiko gizartearen errealitatea. Izan ere, egungo gizartearen errealitatean, homosexualitatearekiko iritzia zeharo aldatu da azken urteotan. Indarrean dauden arauak ere horren adierazgarri dira.

Garai batean, homosexualitatea penalki zigortuta zegoen, baina, 1994. urtean, Europar Batasuneko parlamentuak zenbait ebazpen eman zituen, eskubide-berdintasuna aitortzen dietenak; ondoren, 2000. urtean, bikote homosexualen eskubide-berdintasunaren alde egiten duen ebazpena izan genuen. Europa osoan ezagutzen zaizkie sexu bereko bikoteen loturei eraginkortasun juridikoa, ezkontzaren parekoa askotan; ezkontzeko eskubidea, ordea, aitortzea estatu gutxi batzuek bakarrik aitortu dute.



## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Egoera horretan, kontuan izan behar da, batetik, homosexualitatearekiko tratamendua aldatu egin dela bai gizartearen bai ordenamendu juridikoan; bestetik, kontuan izan behar dugu, orobat, ezkontzaren esanahia, erakunde juridiko moduan, nabarmenki aldatu dela historian zehar eta bereziki azken urte hauetan.

Aztertu ahal izango dugun moduan, estatu espainiarreko ordenamendu juridikoan XIX. mende arte, ordenamendu kanonikoa, Eliza katolikoarena, zen eskudun bakarra ezkontza arautzeko. Sekularizazioaren eta liberalismoaren eraginez, estatua eskuduntzat jo zuen bere burua ezkontza zibilaren bitartez herritarren ezkontza arautzeko. Horren harira, ezkontza zibila garatuz joan da; ezkontza kanonikoa zuen sorburu, baina, bereziki EK indarrean sartu eta gero, ezkontza zibilak bere bideari jarraitu dio. 1981. urtean gertatu zen ezkontzaren lehen erreforma nagusia, Kode zibila EK-k aitortzen zituen eskubide eta askatasunei nahiz gizartearen errealitateari egokitzeko. Batetik, dibortzioa onartu zen 1981. urtean; ezkontza zibila ez da, beraz, deseginezina. Bestetik, ezkontza eta ugalketa ere berezi ziren; alegia, ezkontza zibila ez zegoen, jada, ugalketara bideratuta. Kode zibilaren bigarren erreforma nagusia, gai honetan, 2005eko bi legeren bitartez etorri da. Batetik, sexu bereko bi pertsonaren arteko ezkontza onartu da eta, bestetik, dibortzioaren erregimena arindu. Egun, dibortzioa ezkontide bakoitzaren borondatearen mende gelditzen da; ez du zertan inolako kausarik alegatu. Ezkontzari tradizionalki eman zaion egonkortasunaren ezaugarria ere zalantzan jartzen du horrek; egonkortasuna ere bikotearen borondatearen mende geldituko da.

Ikusiko dugun moduan, ezkontza zibilaren oinarria ezkontzeko borondatean datza; ezkongaien adostasunak ematen dio hasiera ezkontzari. Bikoteak egonkorra izango den lotura bat eratu nahi du, elkarbizitza-proiektu bateratu bati adostasuna ematen dio; pertsonaren nortasunaren garapena dago oinarrian, bikote batekin batera, afektibitate eta sexualitatea harreman horren barruan egonda.

Testuinguru horretan kokatzen dira ezkondu nahi duten bikote guztiak, homosexualak nahiz heterosexualak. Arrazoi-identitate edo berdintasun bat dago kasu guztietan. Hori hala izanda, eta araudiak eskatzen badu bikote homosexualak arautu behar direla berdintasuneko egoera lortzeko: zer zentzu du ezkontza bikote heterosexualentzat gordetzea, eta bikote homosexualentzako efektu berak izango dituen

beste erakunde bat eratzea? Horren atzean ez al da egongo bikote homosexualak gutxieteko joera?

Auzitegi Konstituzionalaren erantzunaren zain geldituko gara.

EK-ko 32.2 artikuluan, **legearen aldeko erreserba bat** jasotzen da. Hor adierazten da legeak arautu dituela ezkontzaren eremuko zenbait gai: forma, adina, gaitasuna, ezkontideen eskubide eta betebeharrak, ezkontideak banantzeko eta ezkontza desagiteko kausak, eta haien ondorioak besteak beste.

**Lege-erreserba** hori, Kode zibilean, 44. artikuluan eta hurrengoetan gauzatu da. Doktrinak denbora luzez jo izan du gizon batek eta emakume batek osatzen zutela ezkontza-bikotea. Gaur egun, berriz, homosexualen kolektiboak denbora luzez egindako eskariari erantzunez, KZko artikulua batzuk aldatu dira; besteak beste, 44., 66. eta 67. artikulua: “el hombre y la mujer”, “el marido y la mujer” jartzen duen lekuan “los cónyuges”, edo “los contrayentes” jarri.

Gaur egun, kontuan izaten baditugu ezkontza zibilak *instituzio* edo *erakunde* moduan, agerian gelditzen da tradizionalki izan dituen berezitasun batzuk aldatu egin direla. Hasiera batean, **ezkontza zibila ezkontza kanonikoaren erakusgarri** izan zen: ezkontza desaginezina, heterosexuala, monogamoia eta ugalketa helburuetako bat duena.

Denbora pasa ahala, bereziki 80ko hamarkadatik aurrera, desagenezintasuna desagertu zen dibortzioarekin; eta ezkontzaren helburuen artean, esplizituki ez da ugalketa agertzen. Gaur egun, indarrean dagoen ordenamenduan, galdu berria du ezkontza zibilak **heterosexualitatearen** marka. Europa mendebaldeko ezkontza-sistemetan gelditzen den bakarra **monogamia** da; horren adierazgarri da Kode penalean jasotzen den bigamia-delitua. Gaur egun, doktrinak dio *ordena publikoko* gaia dela monogamia; izan ere, esan ohi da lotura poligamoek ez dutela errespetatzen ezkontza zibilaren oinarrietako bat: ezkontideen arteko berdintasuna, EK-ko 32. artikulua; hain zuzen ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ezkontzan.

Kontuan izatekoa da, gizartean aldaketak gertatu diren neurrian, arau juridikoen interpretazioa eta ulertzeko moduak ere aldatuz joan direla. Kode zibileko 3. artikuluan,

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

arau juridikoak interpretatzeko jasotzen diren irizpideen artean dago "arauak aplikatu behar diren garaiko errealitate soziala"rena.

Ordenamenduak ezkontza **negozio juridiko** moduan arautzen du, nagusiki kode zibilean, eta gainontzeko negozio juridikoen egitura du. Eratzeko, betebeharrak batzuk behar dira; eskubide eta obligazio batzuk ekarriko dizkie ezkontideei; ezkontzaren amaiera legeak aurreikusitako bideari jarraituz gertatuko da, eta legeak aurreikusitako ondorio juridikoak sorraraziko ditu.

Dena den, negozio juridiko berezia dugu; bikotearen **borondate-autonomiaren** eremua mugatuta dago, ordenamendu zibilak arautu baititu negozio horren **oinarrizko elementuak**. Horregatik esan ohi da ezkontzak baduela **eremu instituzional** garrantzitsu bat.

Erakunde-markak dituen negozio juridiko horren aurrean, bikotearen borondate-autonomiak garrantzi berezia du **izatezko edo egitatezko harreman edo bikoteetan; *more uxorio elkarbizitzak*** (convivencia more uxorio) ere deitzen zaie horiei.

Bikote-harreman horietan, **bikotearen borondate pribatuak** garrantzi berezia du, nahiz eratzeko, nahiz desegiteko (bideak errazagoak, formalitate askoz ere gutxiagorekin), nahiz harreman pertsonalen edukia zehazterako.

Aipatzekoa da, ordea, azken hamarkadan agerian gelditu den joera: ezkontza zibila progresiboki aldatuz joan da, malgutuz; esana dugu: dibortzioa borondatearen arabera gertatzen da eta ezkontideen arteko obligazioak eta ez betetzearen ondorioak ere asko leundu dira. Izatezko bikoteen jarduera-eremua, ordea, hasierako arautu gabeko egoeratik hasita, geroz eta gehiago arautuz joan da. Bikote horiei ondorio juridikoak aitortzen zaizkie, eta, askotan, ezkontzaren pareko ondorioak aitortu. Dena den, gaur egun, **ez dago inolako estatuko lege orokorrik** izatezko edo egitatezko bikoteen fenomenoaren arautzen duenik.

**Estatu zentralerako legerian, arau bakan batzuk** aurreikusten dira **ezkontideak eta bizikideak parekatzen dituztenak**, hala nola: Kode penalean aringarri eta astungarriari dagokienez eta adopzioan; adibidez, hiri-alokairuen legeak aurreikusten du alokairuko titularra hilez gero alokairuan titular gisa subrogatuko dela berarekin modu

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

iraunkorrean eta ezkontidearen antzeko harreman afektiboarekin bizi izan dena, beraren orientazio sexuala edozein izanda ere.

Dena den, zenbait eremutan, berdintasuna ez da gertatu denbora luzean. Esaterako, alargun gelditzen direnen pentsioak ez aitortzea bizikideetako bat hiltzen denean. Gai horretan, auzitegi Konstituzionalak (66/1994 epaian) esan zuen konstituzioarekin bateragarria dela ezkontzari eta egitatezko bikoteei tratu juridiko desberdina ematea; errealitate desberdinak direnez, legegilearen esku dago tratua berdintzea edo ez; onargarritzat jo zen ezkontzaren alde *diskriminazio positiboa* egitea. Denborarekin, pentsio hori arautzen duen legeria aldatu egin da, eta bizikideei ere aitortu zaizkie, zenbait baldintza betetzen direnean.

Legezko aurreikuspenik ez dagoen eremuetarako, edo bizikideen adostasuna falta denean, epaileak edo dagokion botere publikoak erabaki beharko du kasuz kasu. Aipatzekoa da sarritan eta ebatzi behar diren egoeren arteko antzekotasuna ikusita epaileek analogiaren bidetik izatezko bikoteen krisialdian ezkontzaren arauak aplikatu dituztela.

Legezko aurreikuspenak eman dira, ordea, **Autonomia Erkidegoen eremuan**. Azken hamarkadan, nabaria izan da Autonomia Erkidegoek, beren eskuduntzen eremuan, eman dituzten **izatezko bikoteak arautzeko legeak**. Lehena, 1998. urtean Kataluniako parlamentuak araututakoa izan zen, 10/1998 legea. Ondoren, honako hauek etorri ziren: Nafarroako legea 6/2000, Valentziakoa 1/2001, Galiziakoa 4/2001, Madrilgo Erkidegokoa 11/2001, Balear Uharteetakoa 18/2001, Asturiasko Printzerrikoa 4/2002, Andaluziakoa 5/2002, Euskal Autonomia Erkidegokoa 2/ 2003, Kanarietakoa 5/2003, Extremadurakoa 5/2003. Gaztela–Mantxak ere eman zuen izatezko bikoteen erregistroa eratzen duen lege bat 124/2000, baita Gaztela eta Leonek ere ,117/2002, besteak beste.

Lege horiek antzekotasun nabariak badituzte ere, ez dira berdinak. Oro har, aukera ematen diote bikoteari haien arteko harreman pertsonalak nahiz ondasunezkoak arautzeko, baita eskubide eta betebeharrak ere, hala nola elkarbizitza amaitzen denerako konpentsazio ekonomikoak, zenbait kasutan. Arau pribatu horietan, kontuan hartu beharko dira legeak ezarritako minimoak. Minimo horien artean, honako hauek daude:

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

bikotearen gastu komun en zehaztapena, bikoteak hirugarren pertsonen aurrean egindako gastuen erantzukizuna, adopzioa, tutoretza, bikotearen arteko mantenua/elikagaiak, komunean duten etxebizitzari buruzko arauak, elkarbizitzaren amaiera-arrazoiak, amaiera dela-eta sor daitezkeen konpentsazio ekonomikoak, besteak besteak.

Esan dugun moduan, Erkidego Autonomoek emandako legeak dira; beraz, dituzten eskuduntzen eremura mugatuko da araudia. Horrenbestez, gizarte-segurantza, lan-eremua edo eremu penaleko gaiak ezingo dituzte arautu.

Euskal Autonomia Erkidegoko legeak ez ditu zuzenbide publikoko neurriak bakarrik jasotzen, zuzenbide pribatukoak ere hartzen ditu (adib: oinordetza); gauza bera gertatzen da Nafarroan, Katalunian eta Aragoian, betiere zuzenbide zibil propio horiei dagokien eremuan.

Oro har, esan daiteke **ezkontzari eta izatezko harreman horiei erabateko parekotasuna ematea dela joera nagusia**. Hori hala izanda, zalantzan jartzen da errealitate bera arautzeko figura bikoiztasunaren beharra. Badaude desberdintasun batzuk, esaterako, izatezko bikoteak desegiteko prozedurak ez du eskatzen epaile batek parte hartzea, ezkontzan, aldiz, bai. Gainontzekoan, parekotasuna lortzeko bidean, antzekotasuna da nagusi.

Dena den, legeria eskuan, bikote-bizitza arautzeko bi aukera juridiko dira.

Gure azterketa-eremua ezkontzara mugatuko dugu. Hasteko, ezkontza-sistema deritzon kategoria juridikoarekin hasiko gara.

## 2. Ezkontza-sistemak

### Esanahia:

Estatu bateko ordenamenduaren eremuan, arau batzuek arautuko dute ezkontzaren erregimen juridikoa. Arau horien artean, batzuek arautuko dute ordenamendu horretan **zenbat ezkontza tipo edo mota** dauden indarrean eta zer nolako efektu juridiko zibilak aitortzen zaizkien. Ezkontza-sistemak zehaztuko du

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

ordenamendu horretan ezkontza zibilaren eta erlijiosoaren artean dagoen harremana, eta ezkontza-erlijiosoari aitortzen zaion eraginkortasun zibila.

Hori horrela izanda, estatu bateko **ezkontza-sistema** erabat lotuta egongo da estatu horrek **konfesio erlijiosoekin** ezarri duen **harreman-ereduarekin**.

**Ezkontza-sistema** estatuaren eremuko arau multzoari deritzo, eta arau horiek **zenbat ezkontza tipo dauden indarrean** zehaztea dute helburu; zehazki: ezkontza zibilaren eta erlijiosoaren arteko harremana zein den.

Ezkontza-sistema, ordenamendu juridiko orokorrean kokatzen den azpisisistema bat dugu; horregatik, horko printzipioak aplikatuko zaizkio, besteak beste: pertsonaltasuna (EK-ko 10.1 artikulutik ondorioztatua), laikotasuna, pluraltasun ideologikoa eta kontzientzia-askatasuna (EK-ko 1.1 eta 16. artikuluetatik ondorioztatuak).

Egun, indarrean dagoen ezkontza-sistema aztertu aurretik, oro har **gertagarri diren ezkontza-sistemak** aipatuko ditugu. Horietako batzuk, oraindik, indarrean daude zenbait estatutan; beste batzuk iragandako garai historikoetan egon ziren indarrean. Adierazi dugun moduan, estatu batean indarrean dagoen **estatu-ereduak** erabat baldintzatuko du hango **ezkontza-sistema**.

Hasteko, honela **klasifika** daitezke ezkontza-sistemak:

- **Tipo bakarreko ezkontza-sistemak** (de tipo único)
  
- **Tipo anitzekoak** (de pluralidad de tipos)

Ezkontza-sistema bat **tipo bakarrekoa** izango da, baldin eta estatuko araudiak ezartzen badu **ordenamendu juridiko bakar bat** izango dela eskuduna ezkontza bere osotasunean arautzeko.

Ordenamendu batek ezkontza **bere osotasunean** arautzen duela adierazten dugunean, zehazki, honako eremu hauek arautuko ditu:

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

a) ezkontzeko forma; b) ezkontza baliozkoa izateko baldintzak, alegia, ezkontzeko gaitasuna eta eragozpenak; c) ezkontzaren efektu juridiko zibilak; d) ezkontzaren jurisdikzio-kontrola: ezkontzaren deusezte eta desegitea.

Ezkontza-sistema bat **tipo anitzekoa** izango da, baldin eta estatuko araudiak ezartzen badu **ordenamendu juridiko bat baino gehiago** direla eskudun **ezkontza osotasunean arautzeko**, betiere efektu zibilak sorrarazten badituzte, esaterako, ordenamendu zibila eta erlijiosoak.

Aipaturiko ezkontza-sistema horiek badituzte, aldi berean, azpieroak.

**Tipo bakarrekotan**, honako azpieroak ditugu:

### 1.- Estatuak onartzen den **tipo bakarra ezkontza erlijiosoa denean**

Horretan, estatuak aurreikusiko du efektu zibilak izango dituen ezkontza tipo bakarra erlijiosoa izango dela, alegia, erlijio-konfesio batek arauturikoa. Estatu horietan, ezkondu nahi duten herritarrek, nahitaez, ezkontza erlijiosoa egin beharko dute.

Ezkontza-sistema hori indarrean egon da konfesionaltasun sakoneko estatu-ereduetan, non estatuak uko egingo baitio ezkontza arautzeari, eta ofiziala den konfesioari utziko dio materia hori arautzearen ardura. Eremu politikoaren eta erlijiosoaren artean identifikazioa gertatzen den ereduetan ere, eredu horri jarraituko diote, eta ez da bereiziko egitura erlijioso eta zibilen artean; horietan, ezkontza erlijiosoak bakarrik izango du indarra estatuan.

Espainiar estatuaren kasuan, egoera horixe izan zen 1870. urtera arte; indarrean zegoen ezkontza-sistema tipo bakarrekota zen, eta hori erlijiosoa zen, zehazkiago, erlijioso kanonikoa. Ezkondu nahi zuen orok bide horri jarraitu beharra zion; garai hartan, espainiar herritar guztiak katolikoak zirelako presuntzioa zegoen.

### 2.- Estatuak onartzen duen **tipo bakarra ezkontza zibila denean**

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Horretan, estatuak aurreikusten du ezkontza osotasunean arautzeko eskuduna den ordenamendu bakarra estatuarena dela, alegia, ordenamendu zibila.

Ezkontza-sistema horrek ere baditu azpieroak:

### **2.1.- tipo bakarra zibila eta forma bakarra ere zibila denean; nahitaezko ezkontza zibila**

Kasu horretan, estatuak aurreikusten du efektu zibilak izateko ezkontzeko forma bakarra onartuko dela: estatuak arauturikoa, forma zibila.

Horrelako ezkontza-sistemetan, ezkontza erlijiosoei ez zaie efektu zibilik aitortuko. Oinarri horretatik hasita, desberdintasunak gerta daitezke ezkontza erlijiosoek duten trataera juridikoan. Batzuetan, zenbait erregimen politikotan, ezkontza erlijiosoak debekatuta egon dira, baita penalki zigortuta ere, estatu marxistetan gertatzen zen moduan; haietan, erlijioa *txartzat* jotzen zen, estatuak zituen helburuen kontrakotzat (estatu-eredua eskusibotasunekoa).

Beste batzuetan, ezkontza erlijiosoak onartzen ziren, baina ez zaie inolako efektu zibilik aitortuko; horrelakoak egitea ezkontzideen uste sendoen araberrako kontutzat jotzen da. Gaur egun, aukera horri jarraitzen diote Europako hainbat estatuk, besteak beste, Frantziak edo Alemaniak.

Estatu espainiarraren kasuan, eredu hori indarrean egon zen II. Errepublikaren garaian; estatuaren aurrean ezkontzuta egoteko, nahitaez, zibilez ezkontu behar zuten; nahiz eta ezkontza erlijiosoak egiteko aukera eman, efektu zibilik gabekoak ziren.

Eredu hori erabateko sekularizazioaren adierazpena da. Berez, ez du esan nahi erlijio-askatasuna urratzen denik; izan ere, herritarrek aukera dute forma erlijiosoan ezkontzeko, baina ezkontza horrek ez du efektu zibilik. Are gehiago, doktrinaren atal baten ustez, ezkontza-sistema horixe da hobekien egokitzen zaiona laiktasunari (neutraltasuna eta estatuaren eta elizaren arteko banaketa). Izan ere, herritarren arteko berdintasuna babesten da, denek ezkontza zibila egin beharko baitute ezkontzeko eta ezkontza desegiteko, erregimen juridiko bera aplikatuz. Horretaz gain, bakoitzaren



kontzientziaren arabera, ezkontza erlijiosoak gauzatu ahal izango dira. Ezkontza erlijiosoen efektuak eremu erlijiosora mugatuko dira.

## **2.2.- tipo bakarra ezkontza zibila denean eta forma anitzekoa denean**

Kasu horretan, estatuaren ordenamenduak, ordenamendu zibilak, osotasunean arautuko du ezkontza, baina bide batez onartuko du, ezkontzeko forma, hori besterik ez bada, anitzekoa izatea: zibila eta erlijiosoak.

Alegia, **ezkontzaren funtsa –substantzia** deitu ohi dena (ezkontza baliozko izateko baldintzak, efektuak, kontrol juridikzionala, formaren baldintza minimoak)– **estatuko ordenamenduak arautuko du**. Modu horretan, herritarren arteko berdintasuna bermatu nahiko da ezkontzaren funtsezko elementuetan.

Bide batez, forma-aniztasuna onartzean, herritarren kontzientzia-askatasuna bermatu nahiko da; forma zibila edo erlijiosoa aukeratu ahal izango baitute, betiere estatuak jarritako gutxieneko formazko baldintza batzuk errespetatuz.

Eredu hori estatu laikoetan agertzen da, baina adierazten du konfesio erlijiosoekin dagoen harremana sakona dela. Lankidetzat gauzatzeko bidetzat jotzen da. Ezkontza-sistema hori dago gaur egun espainiar estatuan.

### **Tipo anitzeko ezkontza-sistemak. Azpiereduak**

Kasu horietan, estatuko ordenamenduak ezartzen du badagoela ezkontza osotasunean arautzeko ordenamendu eskudun bat baino gehiago: ordenamendu zibila eta ordenamendu erlijiosoa.

Bi azpieredu daude:

#### **1.- Ezkontza zibila fakultatiboa edo hautazkoa denean**

Horretan, herritarrak aukera izango du aplikatuko zaion ezkontza tipoa hautatzeko; ezkontza zibilaren edo erlijiosoaren artean "hautatzeko *ahalmena*" du.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Hautaketa egin ondoren, ordenamendu hori aplikatuko zaio osotasunean (ezkontzeko baldintzak, ezkontzaren efektuak, jurisdikzio-kontrola eta forma).

Sistema hori 1979 eta 1981 bitartean egon zen indarrean estatu espainiarrean; konfesionaltasun arineko garaia baitzen, neutraltasunerako bidean. Urte horietan, herritarrek aukera izan zuten ezkontza kanonikoaren eta zibilaren artean hautatzeko. Aukeratu ondoren, ordenamendu hori aplikatuko zitzaien osotasunean. Dena den, aipatzekoa da Espainiaren kasuan erregimen juridikoa antzekoa zela eremu kanonikoan eta zibilean; esaterako, ez zegoen dibortzio-aukerarik ez eremu zibilean ezta kanonikoan ere.

Modu horretako ezkontza-sistemek arazoak sor ditzakete herritarren berdintasunarekin eta laikotasunarekin. Izan ere, ezkontza-erregimen desberdinak aplikatuko dira norberaren sinesteen arabera.

### **2.- Ezkontza zibila subsidiarioa denean**

Horretan ere, ezkontza bere osotasunean eta efektu zibilak sorraraziz, bi ordenamenduk arautuko dute: ordenamendu zibilak eta konfesionalak. Baina **herritarrek ezingo dute aukeratu**. Aukera hori legez ezarrita egongo da. Legeak aurreikusiko du ezkontza erlijiosoa nahitaezkoa izango dela konfesio bateko kideentzat (adib: katolikoentzat ezkontza kanonikoa) eta gainontzekoentzat, "subsidiarioki", ezkontza zibila aurreikusten da. Hortik haren izena.

Ezkontza-sistema hori izan zen nagusi espainiar estatuan 1888ko Kode Zibilaren ondoren; indarrean egon zen 1978ko EK arte, salbu eta II. Errepublikaren garaiko ezkontza-sistema indarrean egon zenean. Kode zibilak aurreikusten zuen katolikoak zirenek nahitaez kanonikoki ezkondu behar zutela eta, ezkontza zibila katolikoak ez zirenentzat soilik aurreikusten zen. Orduan pentsatzen zen herritarren gehiengo zabala katolikoa izanda *elizaz* ezkonduko zela; salbuespen-kasuetarako, eta hori frogatu beharra zegoen, estatuak ezkontza zibila arautu zuen, berez kanonikoaren *kopia zibila* zena.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Sistema subsidiario hori konfesionaltasun katolikoaren adierazgarri da. Hori horrela izanda, 1978ko Konstituzioarekin, behera etorri zen. EK-k, 16. artikuluan, erlijio- eta ideologia-askatasuna aitortzen du, eta 16.2an dio inor ez dagoela behartuta adieraztera zein den bere ideologia edo erlijioa. Bide batez, berdintasuna eta arrazoi erlijiosoengatiko diskriminazio eza aitortzen dira, art. 14.

Oinarri juridiko horiek kontuan hartuta, Erregistro eta Notaritzen Zuzendaritza Orokorrak 1978ko instrukzio baten bitartez erabaki zuen forma zibilean ezkontzeko ez zela zertan frogatu pertsona horren egoera erlijiosoa. Hala, nahi zuen herritar orori aukera emango zitzaion forma zibilean ezkontzeko.

Handik aurrera, eta Kode zibila 1981. urtean aldatu arte, egitatez, ezkontza-sistema *fakultatibo* bilakatu zen. Izan ere, herritarrak aukera baitzuen ordenamendu kanonikoari jarraituz edo ordenamendu zibilari jarraituz ezkontzeko. Esan beharra dago bi ezkontza mota horiek gaur egun nahiko desberdinak badira ere garai horietan bi ezkontza mota horien efektuak eta erregimen juridikoa oso antzekoak zirela, bestek beste, ezkontza zibila eta kanonikoa biak ziren desegin ezinak; ez zegoen dibortziorik.

## **2. IKASGAIA. EZKONTZA ETA KONTZIENZIA-ASKATASUNA EUROPAR BATASUNEN ZUZENBIDEAN. EZKONTZA-SISTEMAK ESTATU KIDEEN ZUZENBIDEETAN**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1.- Ezkontza eta kontzientzia-askatasuna Europar Batasuneko zuzenbidean**

#### **2.- Ezkontza-sistemak estatu kideen zuzenbideetan**

##### **2.1** Tipo bakarra eta forma bakarra: **nahitaezko ezkontza zibila:**

Alemania, Belgika, Frantzia, Herbehereak, Luxenburgo, Errumania

##### **2.2** Tipo bakarra zibila denean eta forma anitzekoa denean:

Zipre, Danimarka, Grezia, Estonia, Finlandia, Irlanda, Letonia, Lituania, Polonia, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Eslovakiako Errepublika, Suedia, Portugal, Italia, Espainia, Malta

### **II.- IKASGAIA GARATUTA**

#### **1.- Ezkontza eta kontzientzia-askatasuna Europar Batasuneko zuzenbidean**

Ezkontza arautzerakoan, kontuan izan behar da pertsona askoren ustez beren erlijio-konfesioak agintzen dion errituen arabera ezkontzea erlijio-askatasunaren egikaritzea bera dela. Izan ere, erlijio-askatasuna aitortzen duten arauak aukera hori aurreikusten dute, Erlijio-askatasunaren Lege Organikoa, 2.1 b) artikulua.

Erlijio-konfesio bakoitzak ezkontzarekiko eskakizun maila desberdina izango du bere fededunentzat. Esaterako, protestanteentzako obligazio bakarra ezkontza-ospakizuna beren erritu erlijiosoaren arabera egitea da; katolikoek kasuan, berriz, zuzenbide kanonikoaren arabera, katolikoak behartuta daude ordenamendu horren arabera ezkontzera, horren baldintza guztiak betez eta ondorio juridiko guztiak onartuz, ez bakarrik forma eta erritua.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Europar Batasunako herrialde bakoitzak **ezkontza-sistema ezberdina** du. Ezkontza-sistema prozesu historiko baten emaitza da, eta zuzenean lotuta egongo da estatu bakoitzean nagusi izan den erlijioaren eraginarekin.

Ezkontza-sistemak ezberdinak direnez, estatu bakoitzean indarrean dauden ezkontza motak zehazten dituzten arauak ere ezberdinak izango dira. Horiek guztiak nolabait ere harmonizatzeko asmoz, **2003ko azaroaren 27ko 2201/2003 Erregelamendua** sortu zen. Arau horrek erraztu egin nahi du eremu zibilean ematen diren ebazpenen zirkulazioa Estatu-kideen artean. Zirkulazio libre hori errazagoa litzateke, Europa osoko ezkontza-sistema bateratua izango balitz, baina hori ez da horrela oraingoz; Estatu bakoitzak autonomia du gai horretan.

Erregelamendu horretan zehazten dira zer-nolako **baldintzei eta prozedurei** jarraitu beharko zaien, guri dagokigunez, estatu batean emandako ezkontzaren inguruko ebazpenak Europar Batasuneko eremuan exekutatu ahal izateko.

**Printzipio nagusia zera da:** Estatu-kide batean emandako **banaketa-, dibortzio- zein deuseztasun-epaiak** gainontzeko Estatu-kideek aitortu edo ezagutu ahal izango dituzte, **inolako prozedura gehigarririk egin behar izan gabe** (21. art.).

Zenbait kasutan, **aitortza ezezta daiteke**, arrazoi batzuk gertatzen direnean (ikus 22. art.):

- Agerian gelditzen denean ezagutu edo aitortu nahi den ebazpena eskaera jaso duen estatuaren **ordena publikoaren aurkakoa** dela.
- Ebazpena **auzi-ihesean eman bada**, demandatuak defentsa-eskubidea egikaritzeko aukerarik izan gabe.
- Exekuzio-eskaria jaso duen estatuan ebazpena alderdi beren artean emandako **beste ebazpen batekin kontrajarria bada**.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

- Kide den edo ez den beste estatu batean emanda ebazpena aurretiaz alderdi beren artean emandako beste ebazpen batekin **kontrajarria bada**; betiere, ebazpen horrek betetzen baditu exekuzio-eskaria jaso duen estatuko exekuzio-baldintzak.

Erregelamendu hori aplikagarri izango da, zenbait estatu kidek **Egoitza Santuarekin sinatu dituen lankidetzak-akordioak alde batera utzi gabe**.

Akordio horiek nazioarteko tratatuen izaera juridikoa dute eta **Portugalek, Espainiak, Italiak eta Maltak** sinatu dituzte, Egoitza Santuarekin ezkontza-eremuan konpromiso batzuk hartzeko; bereziki **ezkontza-deuseztasun kanonikoen efikazia** edo **eraginkortasun zibilari buruz**.

Alegia, estatu-kide horiek, beren ezkontza-sistemaren arabera, efektu zibilak aitortzen dizkiete ezkontza-deuseztasun kanonikoei, betiere baldintza batzuk gertatzen badira (3. ikasgaiaren aztertuko ditugunak).

Aipatutako Erregelamendua aplikatuz, jatorriz kanonikoak diren deuseztasun horiei eraginkortasun zibila aitortzen dien dokumentu horrek, bide batez, efektuak izango ditu Europar Batasuneko estatu guztietan. Nahiz eta —eta hor egon daiteke nolabaiteko kontraesana— Estatu kide horiek beren barne-araudian deuseztasun kanonikoei efektu zibilik ez aitortu.

Argitu beharrekoa zera da, Espainiako, Portugaleko, Italiako eta Maltako estatuak dituzten akordioaren arabera, epai kanonikoei efektu zibilak aitortzen dizkietenean, deuseztasun horiek efektu zibilak dituzte. Epai kanoniko horiek, dagokien estatuaren baldintzak bete eta gero, efektu zibilak dituzte; deuseztutako ezkontza kanoniko horiek, deuseztak dira estatuarentzat ere. Aipatu dugun Erregelamendua dela-eta, epai kanonikoa ez da izango zuzenean efektuak izango dituen, bere baitan.

Hain zuzen, aipatutako lau estatu kideetan, efektu zibilak aitortzen dituen ebazpen edo dokumentu horrek —estatuaren organo jurisdikzionaletatik emana— izango ditu efektuak Erregelamendua aplikagarri den eremuan, eta ez zuzenean deuseztasun kanonikoak

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Europar Batasunean, erabaki horixe izango da exekutagarri, eta ez zuzenean deuseztasun kanonikoa.

### 2.- Ezkontza-sistemak estatu kideen zuzenbideetan

Europar Batasuneko estatuetan, bi ezkontza-sistema daude, batez ere, indarrean: nahitaezko ezkontza zibila eta forma-aniztasuneko ezkontza zibila.

Ezkontza-sistema **nahitaezko ezkontza zibila** den estatuetan, erregimena ere ez da beti berdina. Estatu horietan, **ezkontza erlijiosoa askatasunez** egin ahal izango da, baina ez du efektu zibilik sortuko. Normalean, **lehenengo zibilez ezkontzea** izaten da baldintza. Are gehiago, **debekatu egiten da lehenik ezkontza erlijiosoa egitea**; baldintza hori betetzen ez denerako, zigor ekonomikoak aurreikusten dira kultu-ministroarentzat; berrerortzea gertatzen bada, askatasun-gabetze zigorra ere aurreikusten da.

Egoera horretan daude Alemania, Belgika, Frantzia, Herbehereak, Luxenburgo eta Errumania; horietan, estatua laikoa da; ez du erlijio ofizialik.

Sistema horren adierazgarri da: a) herritar guztien berdintasuna errespetatzen da, sistema bera eta nahitaezkoa denentzat: zibila; b) erlijio-askatasuna bermatzen da; izan ere, denek dute eskubidea beren sineste erlijiosoen arabera ezkontzeko, nahiz eta efektu zibilik ez sortu.

Berdintasuna eta erlijio-askatasuna bermatzen dira; horiek dira, hain zuzen, Estatu laiko batek bermatu beharreko printzipioak.

Beste Estatu kide batzuetan, berriz, **forma-aniztasuneko ezkontza zibileko** ezkontza-sistema dago indarrean. Egoera horretan daude Zipre, Danimarka, Grezia, Estonia, Finlandia, Irlanda, Letonia, Lituania, Polonia, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Eslovakiako Errepublika eta Suedia. Estatu horietatik, honako erresuma hauek dute erlijio ofiziala: Danimarka, Suedia, Finlandia, Ingalaterra, Grezia eta Malta.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Estatu kide horietan, Estatuak ezkontza mota edo tipo bakarrik aitortzen du **ezkontza bere substantzian** arautzeko; estatuko ordenamenduak, ezkontza zibilaren bitartez arautuko du ezkontzeko gaitasuna, betebeharrak, efektuak eta epaitegien kontrola. Formari dagokionez, Estatuak ere gutxieneko forma batzuk ezarriko ditu, baina, horiek errespetatuz, forma erlijiosoan egindako ezkontzei efektu zibilak aitortzen zaizkie. Dena den, erregimena ez da bera izango Estatu kide guztietan.

- **Erresuma Batua:** Legeak ez du aipatzen zein diren ezkontza egiteko baimendutako konfesioak. Ordea, nahitaezkoa izango da ezkontza kulturako leku gisa inskribatuta dagoen eraikin batean egitea. Ezkontzeko hiru forma daude eta eliza anglikanoari aldeko erregimen bat aitortzen zaio:

a) **Eliza anglikanoaren aurrean:** elizaren esku daude ezkontzaren aurreko formalitateak, ezkontza-garaiko formalitateak eta inskripzioa bera.

b) **Ezkontza forma zibilean:** estatuko ofizial batek gauzatuko du ezkontza osoa.

d) **Beste erlijio batzuen tenpluetan egindako ezkontzak:** aurretiazko prozedura estatuaren esku dago; ospakizuna konfesioaren esku eta inskripzioa kultu-ministroak egingo du estatuko pertsona baimendua den heinean.

Erresuma Batuan, ezkontza desegin edo deusezteko eskuduntza estatuari bakarrik dagokio, epaitegi zibilen bitartez. Auzitegi erlijiosoek eman ditzaketen deuseztasun-epaiek, esaterako, **auzitegi katolikoek emandakoek, ez dute efektu zibilik izango.**

- **Finlandia, Suedia eta Danimarka:** Ofiziala ez den erlijioaren arabera egindako ezkontzak efektu zibilak izan ditzan, **estatuak aitortutako konfesio baten eremuan** egin beharko da.

Estatu horietan, ezkontza **desegitea** (dibortzioa), banatzeak eta **ezkontza-deuseztasunak** estatuaren eskuduntzapean daude. **Elizako Auzitegien ebazpenek ez dute efektu zibilik izango.**



## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

- **Grezia:** Egun indarrean dagoen ezkontza-sistema 1250/1882 Legeak ezarri zuen. Ordura arte, ezkontza-sistema nahitaezko ezkontza erlijiosoa zen: ezkontza ortodoxoa, alegia. Horrek, noski, ezkontza mota hori egin nahi ez zuten herritarren kontzientzia-askatasuna urratzen zuen; kontzientzia-askatasunaren beste zenbait urratze ere bazeuden. Europar Batasuneko kide izateko nahiak ezkontza-sistemaren aldaketa ekarri zuen.

Herritarrek honako hauen artean hauta dezakete: ezkontza zibila, ezkontza-ospakizun ortodoxoa eta Grezian ezagunak diren bestelako konfesioen errituen arabera ezkontza.

Ezkondu aurretik, beharrezkoa izango da udalerriko alkatearen baimena lortzea, horrek zera egiaztatuko du: ea Kode Zibilak ezkondu ahal izateko ezartzen dituen baldintzak betetzen diren; ezkontza era ortodoxoan eginez gero, baldintza hori ez da bete behar.

Ezkontza-auziak ezagutzeko eskumena duen jurisdikzio bakarra zibila izango da; aitortzen ditu, ordea, auzitegi konfesional batzuen ebazpenak, betiere dagokion kontrola pasatuta.

- **Irlanda:** Soziologikoki Eliza Katolikoak duen eragina nabarmena izanagatik, estatuari dagokio modu eskusiboan ezkontza eta haren efektuak, baita jurisdikzio-kontrola. Ezkontzeko forma-aniztasuna ere aitortzen da, baldin eta forma erlijioso hori estatuak aitortzen duen konfesio bati dagokiona bada.

- **Italia:** Erregimena desberdina izango da eta Eliza Katolikoaren eta lankidetzakordioak dituzten beste konfesio minoritarioen artean. Egoera desberdina izango da akordiorik ez dute konfesioetarako.

**Ezkontza Kanonikoa** 1984ko otsailaren 18ko Akordio batean dago araututa. Horren arabera, ezkontza kanonikoak efektu zibilak izango ditu, erregistro zibilean inskribatzen denean. Erregistroan, hango arduradunak ezkontzaren baliozkotasun-baldintza zibilak betetzen diren aztertuko du. Beraz, **eraginkortasun zibila legaltasun-kontrolaren baldintzapean egongo da.**

**Akordiodun gainontzeko konfesioei** (Taula Valdensea, Adbentistak, Jaunaren Asanblada, Bautistak, Luteranoak, Israeldar Komunitatea, Jehovahren Lekukoak, Budistak), oro har, ezkontza kanonikoari ezartzen zaizkion baldintza berdintsuak ezarriko zaizkie. Aipatzekotan, ezberdintasun bakarra izan daiteke kultu-ministroak italiarra izan behar duela; Taula Valdensekoei ez zaie hori eskatuko.

Jehovahren lekukoei eta Israeldar komunitatekoei honako hauek eskatzen zaizkie: a) autoritate zibilari aurretik jakinaraztea bikoteak ezkontza erlijiosoa egiteko asmoa duela; b) aurretik espediente zibil bat egitea, ezkontza egin ahal izatea baimenduko duena; c) ezkontzeko baimen zibil gisa, “dokumentu” bat ematen zaie, kultu-ministroari aurkeztu behar diotena; d) ezkondu ondoren, ezkontza horrek izango dituen efektu zibilak jakinarazi behar zaizkie.

**Akordiorik gabeko konfesioen ezkontzek**, zibilki baliozkoak izateko, baldintza zibilak bete beharko dituzte forma- eta deuseztasun-arauei dagokienez. Beraz, forma berezian egingo diren ezkontza zibilak izango dira.

- **Portugal**: Efektu zibilak aitortuko zaizkie, **legeak aitortutako erlijio-konfesioen formari jarraitzen bazaio**. Estatuak eskuduntza du materia horretan legeak emateko.

Egoitza Santuarekin, 2004an sinatu zuen konkordatua portugaldar estatuak. Ezkontza kanonikoak efektu zibilak izango ditu burutzen denetik (desde la celebración); betiere, aurreikusitako epean inskribatu beharko da. Konkordatuaren arabera, kanonikoki ezkontzen direnek arau kanonikoei jarraitzeko konpromisoa hartzen dute, eta gogorarazten zaie ez lioketela dibortzio zibilaren bideari jarraitu behar. Esan beharrik ez dago aurreikuspen horiek izaera konfesionala izanik herritarrak eremu moralean bakarrik lotzen dituztela.

Katolikoek ezkontza kanonikoari elizako ebazpen baten bitartez — deuseztasunaren edo rato eta kontsumatu gabeko ebazpenaren bidez— amaiera emango baliote, efektu zibilak aitortuko lirateke **baldintza batzuk beteta**: ebazpena egiazko izatea, eskuduna den auzitegiak emandakoa, alderdien arteko berdintasuna eta eta

jarrera kontrajarriak defendatzeko aukera errespetatzea eta estatuko araudiaren kontra ez joatea.

Sistema horrek antzekotasun handia du espainiar estatuan indarrean dagoenarekin.

**Bestelako ezkontza erlijiosoak:** Portugalen finkatutako konfesio bat behar du izan, eta, beraz, dagokien erregistroan inskribatutakoa. Inskripzioa posible izateko, administrazioak kontuan hartuko du fededun kopurua eta Portugalen izan duen historia. Bestalde, kultu-ministroak portugaldarra izan beharko du edo Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna izan; atzerritarra izanez gero, egoitza-baimena behar du izan. Errespetatu beharreko baliozkotasun- eta forma-arauak zibilak izango dira, eta, gainera, ezkongaiak kode zibilak ezkontza zibilaren izaerari eta ezkontideen eskubide eta betebeharrei buruz dioena ezagutu beharko dute. Nolabait esateko, kasu honetan ere, *forma berezian buruturiko ezkontza zibila* izango da.

**Erabaki kanonikoen eraginkortasun zibilari dagokionez,** Espainian, Italian, Maltan eta Portugalen, aukera ematen da eliz auzitegien erabakiei eraginkortasun zibila ezagutzeko.

Zein kontrol legal ezartzen da eredu horietan homologazio zibil hori gauzatzeko orduan?

- **Portugal:** 2004ko Konkordatua indarrean sartu arte, 1940-V-7ko Konkordatuaren XXV. artikulua arautzen zuen gai hau<sup>1</sup>. Esan bezala, 2004ko konkordatuaren arabera, eliz ebazpenek efektuak izango dituzte eremu zibilean, aipatuko baldintzak betetzen badira: ebazpena egiazkoa izatea, eskuduna den auzitegiak emandakoa, alderdien arteko berdintasuna eta jarrera kontrajarriak defendatzeko aukera errespetatzea eta estatuko araudiaren kontra ez joatea...

---

<sup>1</sup> Ezkontza-deuseztasunari buruzko eliza-epaiak eta ezkontza *rato eta kontsumatu gabeko* erabakien homologazio zibila **modu automatikoan** egingo dela zioen; nahikoa zen eliz auzitegiak auzitegi zibil eskudunari erabakia jakinaraztea. Azken organo horrek erabakia exekutatu zuen eremu zibilean. Beraz, bi eskumen desberdin aitortzen ditu Portugalgo ordenamenduak: bata, elizarena, ezkontza kanonikoei buruzko gatazkak ezagutzeko eta bestea, zibila, beste ezkontzen buruzko gatazkak ezagutzeko.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

- **Italia:** kasu honetan bakarrik izango da aukera ezkontzaren deuseztasun-epai kanonikoak homologatzeko. 1984ko otsailaren 18an Eliza Katolikoarekin sinaturiko Akordioan zehazten da *homologazio-prozedura*. Baldintzak honako hauek dira: organo eskudunak emana izatea, defentsa-eskubidea bermatzea eta Italiako ordenamenduan atzerriko epai bati Italian eraginkortasuna aitortzeko eskatzen diren baldintzak betetzea: a) ordena publikoarekin kontraesanik ez sortzea, b) Italiako organo judizialen baten erabakiaren aurka ez joatea eta c) Italian pertsona eta objektu bera duen prozesu bat erabakitzeke ez egotea.

- **Malta:** Kasu honetan, ebazpen kanonikoek efektu zibilak izango dituzte, baina autoritate zibilek ez dute eskumenik izango erabaki kanonikoaren funtsa aztertzeko.

### **3. IKASGAIA. INDARREAN DAGOEN EZKONTZA-SISTEMA**

#### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

##### **1. Garapen historikoa**

2. **Aplikagarri den araudia:** EK-ko artikulua: 32., 16., 14., 9.2 eta 1.1; EALOk 2.1.b; Egoitza Santuarekin 1979an sinatutako akordioetako VI. art.; 1992ko Lankidetzak akordioak 7. art.; KZko artikulua: 49., 59., 60., 61. eta 80.

3. **Indarrean dagoen sistemaren kalifikazioa: tipo bakarreko ezkontza-sistema: zibila, forma-aniztasunarekin**

##### **3.1. zergatik forma anitzekoa?**

- EK-ko 16. art ; EALOk 2.1.b; KZko 49. art
- Mugak KZko 59. art

##### **3.2. zergatik tipo bakarrekoa ?**

a) Ezkontza baliozkoa izateko betebeharrak norik ezartzen ditu? KZko 45.-48. art.; 73.-78 art..

b) Efektu zibilen aitorpena, inskripzioa KZko 60., 61. eta 63 art.

c) Ezkontzaren jurisdikzio-kontrola:

- Arau orokorra: KZko 73.-80. art, 85.-89. art, EK-ko 117. art.
- Kasu berezia: Eliza katolikoak emandako epai/ebazpenen efektu zibilak
- KZko 80. art., 79ko akordioetako VI. art; *estatuko zuzenbidearekin bat etortzea:*

Zer esan nahi du horrek?

- Homologazio-prozedura JZL 778. art.
- Doktrinaren jarrerak:

a) **PZL\* 954ko baldintzekin bat etortzea:** akzio

b) **PZL\* 954ko baldintzak bete + kausa**

**homologoa**

- Jurisprudentiaren jarrera

-2201/2003 erregelamendua, Europar Batasuneko

## II. IKASGAIA GARATUTA

### 1. Garapen historikoa

Kontuan izan behar dugu sailkapen teorikoa egitean ikusitako ereduak ez direla beti historian zehar eredu *garbi* gisa agertzen.

Espainiako historian zehar, ezkontza-sistemarako hainbat aukera egon dira indarrean.

- **XV. mendera arte**, kontuan izanda erlijio judutarra, islamiarra eta kristaua elkarren arteko tolerantzian bizi zirela, komunitate erlijioso bakoitzak bere ezkontza erlijioso propioa zuen.

- **Errege Katolikoaren erreinaldian** gertatu zen batasun erlijioso, politiko eta juridikoaren ondorioz, erlijio kristau katolikoak nagusigo osoa bereganatu zuen XVIII. mendera arte. Ezkontzari dagokionez, garai hartako estatuan, Eliza zen eskudun bakarra ezkontza arautzeko; ezkontza kanonikoa bakarrik aitortzen zen. Garaiko estatuak Eliza katolikoaren esku utzi zituen botere politikoak, besteak beste, ezkontza arautzea.

- Europatik zetorren ilustrazioaren, arrazionalismoaren, sekularizazioaren eta liberalismoaren haritik, zenbait saiakera izan ziren ezkontza sekularizatzeko, baina ez zuten lortu indarrean egoterik.

- Indarrean egon zen **ezkontza zibilari buruzko lehen legea 1870ekoa izan zen**, 1869ko iraultza liberalaren ondorioz emandakoa. Han aurreikusten zen estatuaren aurrean ezkontza zibilak bakarrik izango zituen efektuak. Herritarrek, oro har, ez zuten arau hori aintzat hartu eta kanonikoki ezkontzen jarraitu zuten; izan ere, hori baitzen

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

haien ustez *benetako* ezkontza bakarra. Arauak ez zuen kontuan hartu zein zen arau hori aplikatu behar zeneko gizartearen errealitatea, guztiz konfesionala baitzen gai horretan.

- Sistema hori 1875. urtean indargabetu zen, eta 1870-75 bitartean egindako ezkontza kanoniko guztiei efektuak aitortu zitzaizkien.

- Horren ondoren indarrean jarri zen ezkontza-sistema **ezkontza zibil subsidiarioa** izan zen: ezkontza kanonikoak zuen lehentasuna, eta nahitaezkoa zen katoliko guztientzat, baina, fedegabeentzat, akatolikoentzat edo apostatentzat, ezkontza zibila aurreikusten zen.

- 1876ko Konstituzioa indarrean zegoela –konfesionaltasun katoliko sakonaren adierazgarri–, **Kode zibilerako oinarri-legea, 1888koa, onetsi zen**. Han, **subsidiario moduan** jasotzen da **ezkontza zibila**; zibilez ezkontzeko aukera onartzen zen erlijio katolikoa ez zutenentzat bakarrik.

- **II. Errepublikaren garaian**, 1931ko Konstituzioaren ondoren, ezkontza-sistema aldatu zen, eta nahitaez ezkontza zibila ezarri zen denentzat. Sistema hori indargabetu zen Gerra zibila hasi eta gero, 1938. urtean, estatu frankistaren hastapenetan.

- **Erregimen frankista indarrean zegoela**, berriro ere, indarrean jarri zen ezkontza zibila subsidiario moduan. Beraz, zibilki ezkontzeko, ezkontideek frogatu behar zuten ez zirela erlijio katolikoaren jarraitzaile. Handik aurrera, ezkontza zibila gordetzen zen katolikoak ez zirela frogatzen zutenentzat. Froga hori, denborarekin, erraztuz joan zen, baina, hasiera batean, bataiatu gabe egotea eskatzen zen; hori frogatzea ez zen batere erraza soziologikoki herritar ia denak bataiatzen ziren estatu batean. Ondoren onartu zen apostatek ere, erlijio katolikotik formalki baztertutakoek, bazutela aukera zibilez ezkontzeko.

- Denborarekin, konfesionaltasuna nolabait leunduz zihoan neurrian, erlijio katolikoa utzi izanaren froga errazagoak ere onartu ziren.

- **1978ko EKren ondoren** indarrean sartu zen estatu-eredu berriarekin eta horrek zekarren printzipio- eta eskubide-aitorpenekin onartu zen zibilez ezkontzeko ez zela

frogatu behar ezkontideen erlijio-sinesteak zein ziren. Hala jaso zen Erregistro eta Notaritzen Zuzendaritza Orokorrak emandako instrukzio batean, 1978ko abenduaren 26koa.

- Instrukzio horrekin, eta Kode zibila aldatu gabe, **ezkontza-sistema fakultatibo bilakatu zen**. Alegia, herritarrek aukeratu ahal izango zuten ezkontza kanonikoaren eta zibilaren artean erabateko askatasunarekin. Egoera horrek jarraitu zuen **1981 arte**; urte hartan, **Kode zibila erreformatu** zen EK-ko baldintza berrietara egokitzeko, eta horrek ezkontza-sistema berri bat eratzea ekarri zuen: **ezkontza zibila formazioaniztasunarekin**.

Dena den, kontuan hartu beharrekoa da estatuko ordenamenduak ezkontza zibila arautu zuenean ezkontza kanonikoa izan zuela eredu. Lehenengo Kode zibiletik hasita 1981 arte, ezkontza zibila eta kanonikoa antzekotasun handikoak ziren. Hain zuzen, antzekotasun horrek ahalbidetu zuen bi eremuen arteko ezagutza eta ia inolako kontrolik gabe efektuak aitortzeko erraztasuna; eremua konfesionala zen eta konfiantza osoa zegoen bi eremuen artean. Hori ez zaie gertatu kanonikoak ez diren gainontzeko ezkontzei –ebanjelikoei, islamiarrei, judutarrei- efektu zibilak sorrarazteko aukera aitortu zaienean; ezkontza horien ezagutza eskasak, konfiantza-faltak eta sekularizazio nabariko egoerak eraman dute kontrolak jartzera baldintza zibilak betetzen direla ziurtatzeko.

**Ezkontza zibilak 1981ko** erreformarekin hasi zuen **bide propioa**. Dibortzioa onartu zen, eta ugalketa desagertu zen ezkontzaren helburu gisa. 2005ean, garrantzi handiko erreformak izan ditu, berriro, ezkontzak, haren izaeran aldaketa garrantzitsuak ekarri dituenak: a) ezkontza ez da heterosexuala izango; izan ere, sexu bereko pertsonak ere elkarren artean ezkondu ahal izango dira, 13/2005 legearen ondoren; b) dibortzioa ere aldatuko da, 15/2005 legea; gaur egun banantzea ez da izango dibortzioaren aurreko nahitaezko pausoa, eta ez da kausarik alegatu beharko ez banantzeko, ezta zuzenean dibortziatzeko ere; epeak ere zeharo laburtu dira, eta arau orokorra da gutxienez hiru hilabete ezkondata egotea.

## **2. Aplikagarri den araudia**



## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Gaur egun indarrean dagoen ezkontza-sistema modu egokian kalifikatzeko, arau batzuk izan behar ditugu kontuan. Maila gorenean, EK dugu; estatu zentralak EK garatzeko emandako legeria ere kontuan izatekoa da.

EKn, honako artikulua hauek dira azpimarragarriak: 32., 149.1.1, 149.1.8, 117. eta 16 artikulua.

Artikulu horietatik ondorioztatzen da **lege-erreserba** bat dagoela ezkontza arautzeko EK-ko 32. artikuluan jasotako eremuetan; lege-erreserba hori, neurri batean, *esklusiboki*, estatu zentralaren aldekoa izango da EK 149.1.8 artikuluan jasotako materietan.

Lege-erreserba Kode zibilean (KZ aurrerantzean) jaso da. KZko araudia, ezkontzari dagokionez, 1981-VII-7 ko 30/1981 legearen bitartez erreformatu zen. Aipagarriak dira 49., 59., 60., 61., 63. eta 80. artikulua. 2005ean, 13 eta 15 legeen bitartez egindako erreformak ere garrantzitsuak izan dira.

Bide batez, kontuan izan behar dugu EK-ko 16. **artikulua**, non, batetik, **ideologia- eta erlijio-askatasuna** aitortzen baita eta, bestetik, estatuak konfesio erlijiosoekin **lankidetzaharremanak** izateko duen konpromisoa jasotzen baita beraren herritarren erlijio-sinesmenen arabera; betiere, herritar horien erlijio-askatasuna eraginkorra izan dadin.

Artikulu horretako erlijio-askatasuna lege organiko batean garatzen da: Erlijio Askatasunaren Lege Organikoa (EALO) 1980koa. EALOk 2.1b) artikuluan, erlijio-askatasunaren **edukien artean**, pertsona orok bere ezkontza-errituei jarraitzeko duen eskubidea jasotzen da. Ez da ezer aurreikusten ezkontza-erritu horien efektu zibilei buruz. Dena den, indarrean dagoen legeriak zehazten du hori.

Ondoren aipatuko ditugu estatuak emandako araudiaren barruan jatorri aldebikoa duten arauak. Horien artean daude erlijio-konfesioekin sinaturiko **akordioak** (1979an Eliza Katolikoarekin, eta 1992an Federazio ebanjelikoekin, judutarrekin eta Komisio islamiarrekin).

Aipatzekoa da Autonomia Erkidegoek ez dutela ezkontza arautzeko eskumenik, aipatu dugun estatuaren aldeko lege-erreserba eskusiboa dela-eta.

### **3. Indarrean dagoen sistemaren kalifikazioa: tipo bakarreko ezkontza-sistema: zibila, forma-aniztasunarekin**

Aipatu ditugun arau horiek kontuan izanda, nolabaiteko adostasunez, doktrinak jo du indarrean dagoen **ezkontza-sistema** tipo bakarrekoa dela; **tipo bakar hori ezkontza zibila izango da, forma-aniztasunarekin.**

#### **3.1. Zergatik forma-aniztasuna?**

Estatuko ordenamenduak, KZren bitartez, ezkontzeko forma hautatzeko aukera aurreikusten du, **49.artikulu**an.

Artikuluak dio espainiarrak honela ezkon daitezkeela:

- Epaille, alkate edo KZk aurreikusitako funtzionario baten aurrean
- Edo, bestela, legeak aurreikusitako forma erlijiosoan

Beraz, forma zibila nahiz erlijiosoan onartzen dira.

**Baina edozein forma erlijiosori** jarraituz ezkon al daitezke modu baliozkoan? Horretarako, KZko **59.** artikulua izan behar dugu kontuan.

Artikulu horretan, zenbait **murriztapen** ezartzen zaizkio forma erlijiosoari efektu zibilak izan ditzan. Alegia, ez da onartuko ezkontza-forma erlijioso oro; KZk betebeharrak ezartzen ditu:

- **Erligio-konfesioak inskribatuta egon behar du** dagokion erregistro berezian; erregistro hori lortzeko, betekizun batzuk bete beharko dira, EALOk 5. artikuluan jasotakoak.

- Are gehiago, **estatuak akordioak sinatuta eduki beharko ditu materia horren gainean erlijio-konfesioarekin**; EALO ikusita (7. art.), besteak beste, sustraitze nabarmena izan behar du konfesioak, administrazioak aitortuta.

Akordiorik egongo ez balitz, KZk dio **estatuak bere legerian aurreikusitako moduan** aitortuko lituzkeela ezkontza-forma erlijiosoak. Esan beharra dago materia horri buruz estatuak ez duela araurik eman; beraz, forma erlijiosoan modu baliozkoan ezkontzeko, aipatu ditugun aurreko betekizunak bete beharko dira.

Hori dena kontuan izanda, gaur, herritarrak **lau forma erlijiosori jarraituz soilik** ezkon daitezke efektu zibilak sorrarazteko: katolikoa, ebanjelikoa, judutarra eta islamiarra. Hala jasotzen da akordioetan, Egoitza Santuarekin sinatutako *gai juridikoei buruzkoak*, VI. art. eta 1992. urtean erlijio-konfesio minoritarioekin sinatutako *lankidetzak-akordioetako* 7. art.

Bestelakorik ez da posible. Beraz, bestelako erlijio-konfesio batek ezkontzeko erritu erlijioso propioak baldin baditu, horiei jarraitu ahal izango zaie, baina efektu zibilik gabe.

Kontuan hartu beharra dago forma erlijioso horiek errespetatu beharko dituztela **estatuko legeriak ezarritako minimo formalak**: ezkontza lekuko kualifikatu baten aurrean egitea eta adinez nagusi diren bi lekuko arrunten aurrean. Bestela, ezkontza ezingo da erregistro zibilean inskribatu.

### 3.2. Zergatik tipo bakarrekoa ?

Estatuko arauak aztertuz, KZn jasotakoak nagusiki, agerian geratuko da ordenamendu bakar batek, zibilak, arautuko duela negozioaren funtsa, efektu zibilak lortzeko. Estatuko ordenamenduak edo ordenamendu zibilak honako hauek ezarriko ditu: a) ezkontza zibilki baliozkoa izateko betekizunak; b) ezkontzak izango dituen efektu zibilak; c) ezkontzaren jurisdikzio-kontrola.

Formari dagokionez, ikusi dugun bezala, forma-aniztasuna onartzen da: zibila nahiz forma erlijioso batzuk. Azken horiek minimo zibil batzuk bete beharko dituzte.

Aztertu ditzagun eremu horiek:

**a) Ezkontza baliozkoa izateko betekizunak nork ezartzen ditu?**

Estatuko ordenamenduak; KZk jasotzen ditu ezkontza batek bete behar dituen betekizunak efektu zibilak lortzeko. Baldintza horiek beteta ezkontza baliozkoa izango da.

Betekizun horiek ez dira zerrenda batean jasotzen, baina KZko artikulua batzuetatik ondorioztatu ditzakegu: 45.-48. artikulua eta 73.-78 artikulua.

- 1.- Ezkongaien ez dute inolako eragozpenik izan behar.
- 2.- Ezkontzeko gaitasun psikologikoa izan behar dute.
- 3.- Ezkontza-adostasunak baliozkoa izan beharko du, inolako errakuntzarik, hertsatzerik edo beldurrik gabe.
- 4.- Ados agertu beharko dute honako pertsona hauen aurrean: a) epaile, alkate edo funtzionario bat, eta b) adinez nagusiak diren bi lekuko. Horiek dira estatuko ordenamenduak aurreikusitako gutxieneko forma-betekizunak, nahitaez errespetatu beharrekoak.

KZn jasotzen diren betekizun horiek **komunak** dira herritar guztientzat, ezkontzeko forma edozein izanda ere.

**b) Efektu zibilak aitortzea; noiz sortzen da ezkontza efektu zibilekin?**

Lehenik aipatuko dugu KZko **60. artikulua**. Hor adierazten da erlijio-formari jarraituz egindako ezkontzek efektu zibilak izango dituztela. Efektu horiek erabatekoak izateko, KZko IV. kapitulura igortzen gaitu.

IV. kapitulu hori **KZko 61. artikulua**rekin hasten da. Hor aurreikusten da ezkontzak **efektu zibilak** sorrarazten dituela **burutzen** den unetik; efektu horiek

**erabatekoak** edo **osoak** izateko, nahitaezkoa izango da ezkontza erregistro zibilean **inskribatzea**.

Ildo berean daude Egoitza Santuarekin sinatutako akordioaren VI. artikulua eta gainontzeko lankidetzak-akordioetako 7.artikulua.

**Berez**, inskripzioak ez du ezkontza sorrarazten; ezkontza eratuta dago egin zenetik, *desde su celebración*. Horrelako inskribatzeak **deklaratzaileak** ditugu. Jadanik existitzen den errealitate juridiko baten berri ematen du<sup>2</sup>.

Esan dugun moduan, inskripziorik gabe ezkontza hori ez da "ofizialki" existituko, nahiz eta KZk esan ezkontzak efektuak dituela burutzen denetik. Inskribatzen ez bada, estatuak ez du haren berririk, eta haren efektuak ez dira erabatekoak (*plenos*) izango.

**Efektuak erabatekoak** (*plenos*) izateko, nahiz estatuaren aurrean nahiz hirugarrenen aurrean, ezkontza inskribatu egin behar da. Inskripzioak deklaratu egingo du *erga omnes*, denen aurrean eta baliotasun ofizialarekin, ezkontza existitu egiten dela, baita egoera zibil berri bat ere: ezkontide edo *cónyuge* delakoarena.

Ezkontza erregistro zibilean inskribatzea nahitaezkoa da. Ezkontzen Inskripzioa ez da ezkontideen borondatearen araberakoa.

Ezkontzen **inskripzioa ez da automatikoa**; estatuak (erregistroko arduradunaren bitartez) **legezkotasun-kontrol** bat egingo du; ziurtatu nahiko da ezkontza hori legearekin bat datorrela.

---

<sup>2</sup> Aipatzekoa da INSKRIPZIOA bi modutakoa izan daitekeela: deklaratzailea eta eratzzailea:

- **Deklaratzailea/declarativo**: ezkontza edo beste negozio juridiko bat inskribatzean, inskribatze horrek negozio juridiko horrek jadanik dituen efektuak deklaratu besterik ez du egiten. Alegia, negozio juridikoak efektuak izango ditu, modu baliozkoan, burutu zenetik; inskripzioak efektu horiek deklaratu bakarrik egiten ditu.

- **Bestalde inskripzio eratzzaileak/constitutivo ditugu**. Badaude negozio juridiko batzuk efektuak sortzen ez dituztenak negozio juridikoa burutzen denean, baizik eta Erregistroan inskribatu behar dute efektuak sortzeko.

Beraz, une horretara arte, errealitate horrek ez du izango efektu juridikorik; izan ere, inskripzioak ematen baitizkio efektu juridikoak.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Betekizun zibilak ez badira betetzen, KZko 63. dioen moduan, inskripzioa ezeztatu egingo da. Horrek esan nahi du ezkontza horrek ez duela efektu zibilik izango; izan ere, frogatu da –ezkontza egin ondoren– ezkontza horrek ez dituela betekizuna zibilak betetzen.

Beraz, ezkontza edozein formatan eginda ere, baldintza zibilak bete beharko dira. Hala gertatzen ez bada, ezkontzari inskripzioa ezeztatuko zaio, eta, horren ondorioz, ezkontzak ez du efektu zibilik izango.

Hori horrela izanik, argi ikusten da estatuak bere ordenamenduaren bitartez, ordenamendu bakar batez, alegia, kontrolatzen duela efektu zibilak aitortzea. Horregatik esan izan da tipoa bakarra dela.

### c) Ezkontzaren jurisdikzio-kontrola

Horrelako kontrola eskudun diren auzitegiei dagokie, eta **ezkontzari amaiera eman nahi zaionean** gauzatuko da. Ikusiko dugun bezala, ezkontzari amaiera emateko bi bide daude: a) ezkontza horren deuseztasuna (*nulidad*) eskatzea eta, b) ezkontzaren desegitea –*disolución*– eskatzea. KZk honako artikulua hauetan arautzen ditu gai horiek: 73.-80. artikulua bitartean, deuseztasuna, eta 85.-89. artikulua bitartean, desegitea.

Bi amaiera-bide horiei dagokienez, KZk dio **ezkontzeko forma edozein izanda ere auzitegi zibilak direla eskudunak** ezkontza-deuseztasunak, banantzeak eta dibortzioak aztertzeke.

Ildo berean, EK-ko 117. artikulua izan behar da kontuan. Hor jasotzen da **jurisdikzio-batasunaren printzipioa** (principio de unidad de jurisdicción). Printzipio horren arabera, estatuko auzitegiek eskusibotasuna dute, bakarrak dira, beren eskuduntzapean dauden gaietan; horien artean daude ezkontza-deuseztasunak, banantzeak eta dibortzioak.

**Arau orokorra, beraz, zera da:** ezkontza-forma edozein izanda ere (zibila edo erlijioso), haren deuseztasuna edo desegitea auzitegi zibilei dagokie.

Baina, **konfesio katolikoari dagokionez, badira salbuespenak**. Izan ere, aipatuko dugun salbuespenak **berezitasun bat ematen dio ezkontza-sistema espainiarrari**, tipo bakarra eta forma-aniztasuneko ezkontza-sistemen eremuan. **Berezitasun horren jatorria espainiar estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko akordioetan dago**.

KZko 80. artikuluan eta horren jatorrian dagoen Egoitza Santuarekin sinatutako gai juridikoei buruzko akordioaren VI. artikuluan zehazten da elizak emandako zenbait erabakik efektu zibilak izan ditzaketela; betiere, *estatuko zuzenbidearekin bat baldin badator*. Honako erabaki hauek dira: a) ezkontza deuseza deklaratzeko epaiak eta b) ezkontza *rato* eta kontsumatu gabekoa dela adierazten duten aita santuaren erabakiak.

KZk Eliza Katolikoko auzitegien ebazpenei soilik egiten die aipamena; horren oinarria, betiere, 1979ko Akordioan dago. Dena den, kontuan hartzekoa da Ebanjelikoek dituzten ezkontza-arauak errituei buruzkoak direla bakarrik. Islamiarrek nahiz judutarrek badituzte auzitegi erlijioso propioak, baina aukera hori aitortzeari uko egin zioten. Konfesio horietako auzitegiek –imanek nahiz errabinoek– emango dituzte ebazpenak, baina, haientzat, balio konfesional soila izango dute; ez dute inoiz asmorik izan ebazpen horiei efektu zibilak aitortzeko.

Eliza katolikoaren kasuan, inertzia historikoa dela-eta uler daiteke aukera gehigarri hori aitortzea; halaber, Eliza katolikoak berak zuen interesa gai honetan eskuduntzak ez galtzeko. Ikuspuntu juridikotik, estatuaren eta konfesioen arteko lankidetzaren zehaztapentzat jo daiteke; alegia, estatuak, tradizionalki *betidanik* datorren aukera hori aitortzen du, katolikoaren erlijio-askatasuna errespetatuz eta dibortziora jo gabe –izan ere, Eliza katolikoak ez du hori onartzen behera etorritako ezkontza kanonikoei amaiera emateko.

Aipatzen diren erabaki kanoniko horiek ez dute automatikoki efektu zibilik izango, baizik eta, ikusi dugunez, "**Estatuko Zuzenbiderekin bat etorri behar dute**", (ados, doituta).

Bat etortze hori gertatzen den ala ez aztertze, legeak **homologazioa** deritzon **prozedura** bat aurreikusten du, 2000. urteko Prozedura Zibilaren Legearen (**PZL**, aurrerantzean) 778. artikuluan arautua. Epaille zibilari dagokio homologazio-prozeduran bat-etortze (*ajuste*) hori aztertzea.

Noiz gertatzen da bat-etortze hori? Horren inguruan ez dago adostasunik. Jarrera desberdinak daude, nahiz doktrinan, nahiz jurisprudenzian.

**a) Doktrinaren atal batek dio** KZko 80. artikulua araberaren epailearen zeregina dela erabaki eliztarraren azterketa formal bat egitea. Nahikoa izango da Prozedura Zibileko Lege zaharraren (PZL, aurrerantzean) 954. artikuluan jasotzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatzea. Lege horretan, 954 artikuluan, baldintza batzuk jasotzen ziren *exequatur* deritzona bideratzeko; alegia, estatu atzerritar bateko auzitegiek emandako erabakien exekuzioa Espainian gauzatzeko.

Izan ere, eliza katolikoa, horren burua Egoitza Santuan egonda, estatu atzerritartzat jotzen da, nazioarteko zuzenbideko subjektutzat. Ildo berean, Estatu espainiarra eta elizaren arteko akordioak sinatzeko, nazioarteko tratatuen bideari jarraitu zaio.

PZL zaharreko 954. artikuluko hori ez da agertzen 2000. urteko LEC berrian. Dena den, indarrean jarraitzen du PZL berriaren Xedapen Derogatzailerako Bakarrak hala diolako, gai zibilen inguruan kooperazio juridiko internazionalerako legea eman arte.

PZL zaharreko 954. artikuluko betekizunak honako hauek dira:

a) Exekutatu nahi den ebazpena **akzio pertsonal** baten ondorioa izatea

b) Exekutatu nahi den ebazpena **auzi-ihesean** (*en rebeldía*) emana ez izatea<sup>3</sup>

---

<sup>3</sup> Auzi-ihesari (rebeldía) dagokionez, badago jurisprudentzia –AG 2004 eta 2007ko epaia azkenekoa– baita doktrina ere, auzi-ihesen motak desberdinak sailkatzen dituztenak. Guri dagokigunez, joko dugu auzi-ihesiko egoera gertatuko dela, alderdi demandatua modu egokian deia jaso (emplazado) ez badu, eta beraren defentsa-eskubidea egikaritzeko behar diren baldintzak errespetatu ez badira.

Badaude auzi-iheserako beste arrazoi batzuk: *rebeldía de conciencia* deritzo, demandatua ez bada auzitegi eliztarren aurrean aurkezten kontzientziako arrazoiak alegatuz; *rebeldía por conveniencia* izango da, demandatua agertzen ez bada komeni ez zaiolako.



- c) Ebazpena exekutatu nahi den estatuan **zilegia** (*lícito*) izatea
- d) Exekutatu nahi den ebazpena **egiazkoa** (*auténtico*) izatea

Zilegitasunaren betekizunaren inguruan, jarrera edo interpretazio modu desberdinak egon dira. Zer esan nahi du termino horrek? Doktrinaren atal batek uste du betekizun horren arabera, epaileak homologazio-prozeduran, aztertu beharko duela homologatu nahi den erabaki kanonikoaren funtsa, gutxienez galdera honi erantzun ahal izateko: *homologatu nahi den erabaki horrek urratzen al du indarrean dagoen ordena publikoa?* Maila horretan bakarrik aztertu beharko da eliz erabakiaren funtsa.

*Ordena publikoa ez urratzea*, zein da horren esanahia? Doktrinak eta jurisprudenziak esan ohi dute Konstituzioan jasotako funtsezko printzipioak errespetatzea dela, ildo berean, estatuak araututako ezkontza-zuzenbidearen oinarritzko printzipioak ez urratzea. Esaterako, doktrinak dio ordena publikoa urratuko litzatekeela, homologatuko balitz arrazoi hertsiki erlijiosoetan oinarrituriko ezkontza kanoniko baten deuseztasuna; horren adibide izan daiteke hertsiki kanonikoak diren eragozpenak egonda –kultu-ezberdintasuna edo ordena sakratua–, eta dagokien dispentsa eskatu gabe egindako ezkontza kanonikoak. Izan ere, ezkontza-kanoniko bat deuseztat joko balitz ezkontideen erlijioa desberdina delako eta zegokion dispentsa kanonikoa eskatu ez zelako, eta deuseztasun hori eremu zibilean homologatuko balitz, efektu zibilak aitortuz, haien ustez, horrek indarrean dagoen estatu laikoaren printzipioetako bat urratuko luke, hala nola, erlijio-askatasuna.

Argi dago doktrinaren atal horren ustez epaileak ez duela bilatu behar bi ordenamenduen arteko erabateko berdintasuna. Epaileak ez du erabaki kanonikoa arau zibilen arabera kalifikatu beharko, edo nolabaiteko *kausa homologoa* bilatu beharko. Epailearen analisiak epai kanonikoaren funtsa aztertuko du, *ordena publikoa* errespetatzen dela egiaztatu arte; ordena publikoaren kontrola gaindituta, homologatutzat joko da, deuseztasun-kausa kanonikoaren baliokide zibila bilatu gabe.

Doktrinaren beste atal baten ustez, D. LLAMAZARES buruan duela, KZk efektu zibilak emateko eskatzen du: batetik, Estatuko zuzenbidearekin bat-etortzea, eta, bestetik, homologazio-ebazpenak PZL zaharreko 954ko betekizunak betetzea.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Epaile zibilak aztertzen duenean epai kanonikoa bat datorren Estatuko zuzenbidearekin, aztertuko beharko du legeri zibila aplikatuta, kasuari emango litzaiokeen irtenbidea berdina litzatekeen ala ez. Epaile zibilak eremu kanoniko eta zibilean *nolabaiteko kasu-adostasuna* aurkitu beharko du; erabateko adostasuna ez bada ere, gutxienez partziala; *kasu homologoa* deituko dioguna.

Horretaz aparte, PZL zaharreko 954. artikuluko betekizunak ere errespetatu beharko dira.

Jurisprudenzian ere ez dago adostasunik. Auzitegi Goreneko jurisprudentziak ez du eskatzen ordenamendu kanoniko eta zibilaren artean kasu-identitate bat aurkitzeko beharra. Honako hauek dira horren adierazgarri: AGren epaia 1994ko uztailaren 1ekoa, AGren epaia 1995eko azaroaren 23koa, AGren epaia 2001eko martxoaren 8koa.

Praktikan, badirudi mailaz beheragoko epaileek ere ez dutela funtsa aztertzen kausa homologoa aurkitzeko. Ordena publikoa gainditzeko behar den heinean soilik aztertuko dute.

D. Llamazaresen ustez, ordea, kausa homologoa aurkitzea ezinbestekoa da herritarren arteko berdintasuna bermatzeko, baita estatuaren laikotasuna bermatzeko ere.

Aipatu dugun homologazio-prozedura amaitu eta gero, epaile zibilak erabaki dezake, auto bitartez, erabaki kanoniko horri efektu zibilak aitortzea.

### **Deuseztasun kanonikoen elizako epaien kasuan**

Ezkontza kanonikoen deuseztasunean, kontuan izan behar da Europar Batasuneko Kontseiluak emandako 2201/2003 erregelamendua –gurasoen erantzukizuna eta ezkontza eremuko ebazpen judizialak aitortu eta exekutatzeko eskumenari buruzkoa<sup>4</sup>–. 63. artikuluan adierazten da erregelamendu hori aplikatuko dela, estatu espainiarrak eta Egoitza Santuak 1979an sinatutako akordioak *alde batera utzita (sin perjuicio)*. Beraz, Estatu espainiarraren kasuan, akordioak, eta han hartutako

---

<sup>4</sup> Erregelamendu horrek indargabetu egiten du orain arte materia hori arautzen zuen beste Erregelamendu bat: R. CE 1347/2000. 2116/2004 Erregelamenduaren (europarra) bidez (abendua 2koa), 2003ko Erregelamenduari aldaketa batzuk egin zitzaizkion, Maltaren egoerari aipamena eginez.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

konpromisoak mantendu beharrekoak izango dira. Antzeko egoeran daude Portugal, Italia eta Malta.

Erregelamendu horren bitartez, gerta daiteke printzipioz ezkontza kanoniko deusezei inolako efekturik aitortzen ez dieten estatuak (Europar Batasuneko gehienak, 2. ikasgaian ikusi dugunez) behartuta egotea zeharka Espainiatik, Italiatik, Portugaletik edo Maltatik datorren erabaki kanoniko bat exekutatzera. Kontuan izan beharko da, zuzenean, Europar Batasuneko estatuetan exekutatzen dena ez dela epai kanoniko bera zuzenean, dagozkion homologazio-prozedurak gainditu eta gero –espainiar estatuaren kasuan– estatuak emandako erabakia baizik.

Ildo horretan, autore batzuek iritzi diote araudi propioetan erabaki kanoniko horiei efekturik aitortzen ez dizkieten Estatuak, dituzten ezkontza-sistemek ez dutelako hala aurreikusi, argudiatu ahal izango dutela –erregelamenduko 22 a) artikulua kontuan hartuta<sup>5</sup>– *ordena publikoko* arrazoiak deuseztasun-ebazpena ez aitortzeko.

Dena den, erregelamenduko 25. eta 26. artikulua ere kontuan hartzekoa izango dira <sup>6</sup>. Han jasotzen da estatuen arteko zuzenbide aplikagarria desberdina izateak ezin dituela ezindu estatu batek aitortutako ezkontza deuseztasunaren efektuak gainontzeko estatuetan.

---

<sup>5</sup> 22. art.: *sobre motivos de denegación del reconocimiento de resoluciones en materia de divorcio, separación judicial o nulidad matrimonial: a) si el reconocimiento fuere manifiestamente contrario al orden público*

<sup>6</sup> 25. art: *Diferencias de Derecho aplicable*. No podrá negarse el reconocimiento de una resolución de divorcio, de separación judicial o de nulidad del matrimonio alegando que el Derecho del Estado miembro requerido no autorizaría el divorcio, la separación judicial o la nulidad del matrimonio basándose en los mismos hechos

26. art. *No revisión en cuanto al fondo*. En ningún caso la resolución podrá ser objeto de una revisión en cuanto al fondo.

## 4. IKASGAIA. EZKONTZA, NEGOZIO JURIDIKOA

### I. IKASGAIAREN ESKEMA

#### 1. Ezkontzaren izaera juridikoa

##### - Terminologia zehaztea:

*ezkontza* terminoaren zentzu bikoitza, bereizi beharreko unek:

- \* Ezkontza "in fieri"
- \* Ezkontza "in facto esse"

-Ezkontzaren **izaera juridikoa**. Doktrinaren jarrera desberdinak:

- \* Eremu zibilean: kontratua, erakundea/instituzioa, negozio juridikoa.  
Familia-eremuko negozio juridiko
- \* Eremu kanonikoan: ezkontza kontratu-sakramentu

#### 2. Ezkontzaren esentziazko elementuak

##### **Arlo zibil eta kanonikoan.**

- Adostasuna, objektua, kausa, forma

#### 3. Ezkontzaren balio-gabeziaren motak

- Esanahia

##### **Arlo zibilean:**

- Motak eta bakoitzaren esanahia
  - 1.- Deuseztasun absolutua / *nulidad absoluta*
  - 2.- Deuseztasun erlatiboa edo deuseztagarritasuna / *anulabilidad*
- *Erregimen juridikoa:*
  - Efectua
  - Akzioa egikaritzeko legitimatuak
  - Akzioaren iraungipena (*caducidad*)

##### **Arlo kanonikoa:**

- Mota bakarreko baliogabezia: deuseztasuna
- Deuseztasun zibilarekiko desberdintasuna

- Erregimen juridikoa: efektuak, legitimazioa, akzioaren iraungipen-eza.

## II.- IKASGAIA GARATUTA

### 1.- Ezkontzaren izaera juridikoa. Eremu kanoniko eta zibila

Hasteko, zehaztapen terminologiko bat egin behar dugu. Izan ere, *ezkontza/matrimonio* termino bera bi zentzutan erabili ohi da, bi une desberdin adierazteko:

a) Batzuetan, ezkontza burutzen, gauzatzen ari den une hori aipatzen da, **matrimonio "in fieri"** delakoa; alegia, *eratzen* edo *egiten* ari den ezkontza.

b) Besteetan, ezkontza horretatik ondorioztatu den bizitza-elkartea adierazi nahi da termino horrekin, ezkontuta egotea, alegia, **matrimonio "in facto esse"** (jadanik *eraturiko* edo *egindako* ezkontza).

Desberdintasun horrek nolabaiteko garrantzia izan dezake, ezkontzaren izaera juridikoa zehazterakoan. Horren inguruan ez dago adostasunik. Batzuek diote **ezkontza kontratu bat dela**, haren jatorria borondate-akordio batean datzalako. Adierazpen horrek ezkontza "in fieri" unean du erreferentzia, hor gertatzen baita ezkontideen arteko borondate-akordioa.

Kalifikazio horri beste batzuek zerbait gehituko diote. Izan ere, ezkontza kontratu berezi bat da; tradizionalki, ezkontza burutu ondoren beraren erregimen juridikoa ordenamenduak arautzen du neurri handi batean. Beste kontratuetan ez bezala, ezkontideek beren borondatearen arabera, ezin dute ia ezer zehaztu; borondate-autonomiarako ez da tarte handirik egoten. Ezkontzak gizartearen egituraketan duen garrantzia aipatu ohi da hori azaltzeko. Hori guztia kontuan hartuta, jo ohi da ezkontza – hasierako une horretaz aparte–, *in facto esse* egoerari dagokionez, **erakunde edo instituzio bat dela**. Hau da, ezkontza jotzen da organizazio edo antolakuntza sozial eta juridikotzat; datu historikoa ere hor dago. Ezkontzak, beraz, bere izaera eta funtzio sozial propioa du. Eremu juridikoan, erregimen zehatz bat izango du, ezkontideek aldatu ezin dutena.

Horien ustez, **ezkontzaren izaera juridikoa bikoitza** litzateke: kontratua eta instituzioarena.

Dena den, azpimarratzekoa da azken bolada honetan **zurruntasun hori leuntzen ari dela**. Horren adierazgarri da ezkontza desegiteko –dibortzioaren bitartez– eman den azkeneko araudia, 15/2005 legearen bitartez KZ aldatu duena. Dibortzioa, jada, ez da zertan kausa edo arrazoi zehatzetan oinarritu. Ezkontideen –batena edo biena– borondatea nahikoa izango da dibortziatzeko. Ezkontzaren araudiak ezarritako betebeharrak ez betetzeak, oro har, ez du bestelako eragin negatiborik izango. Horregatik, esan ohi da ezkontzaren instituzio-izaera leuntzen ari dela.

Doktrinan, badago hirugarren jarrera bat. Horien ustez, kontratua baino egokiagoa izango da beste kategoria juridiko bat erabiltzea ezkontza kalifikatzeko: **negozio juridikoa**. Izan ere, negozio juridikoa kontratua baino kategoria juridiko zabalagoa da; haren ezaugarri nagusia: harreman juridiko bat sortu edo ezabatuko duen borondate-adierazpen bat egotea da.

Haien ustez, kontratuaren kategoria gehiago egokitzen da ondarearen edo patrimonioaren alorrera. Aproposagoa izango da kategoria zabalago bat erabiltzea, negozio juridikoa, alegia. Gehiago zehaztuz, **familia zuzenbideko negozio juridiko** gisa definitzen dute.

Negozio juridikoaren izaeraren aldekoak direnen artean ere, batzuek iritzi diote ezkontzak aldi berean instituzio-izaera ere baduela. Kontuan hartzen dute ezkontideek ezin dituztela beren arteko harremanak arautu. Alegia, aurretiaz finkaturiko zerbait dela. Baina esan dugun moduan, erakundearen marka hori leunduz doa azken erreformak direla eta.

Dena den, denak ados daude datu batean: ezkontzak –nahiz kontratu, negozio juridiko edo erakunde izan– izaera berezia duela; berezitasun propioak ditu kategoria orokorreko. Gainera, pertsonen egoera zibila aldatzen du.

Zuzenbide kanonikoaren eremuan, kontuan izatekoa da ordenamendu konfesional bat dela. Beraz, horko kategoria juridikoei oinarri eta zentzu erlijiosoa izango dute. Ezkontza kanonikoaren kasuan, batetik, beraren kontratuzko izaera jasotzen da, ezkontza-baietza ematean ezkontideen borondatearen nagusitasuna baitago. Baina beste datu bat gehitzen zaio. Zuzenbide kanonikoak dio bi bataiaturen arteko baliozko ezkontza *sakramentu* ere izango dela. Noski, sakramentua ordenamendu kanonikoaren elementu propioa da. Guretzat, interesa du; izan ere, ezkontza sakramentu<sup>7</sup> izateak ondorio juridiko kanonikoak ditu.

Beraz, ezkontza kanonikoa **kontratu-sakramentu**tzat jotzen da. Horrek ondorio juridiko kanonikoak izango ditu, besteak beste ezkontzaren desegiteko ezintasuna.

## 2. Ezkontzaren esentziazko elementuak

Negozio juridikoaren teoria orokorrari jarraituz, haren esentziazko elementuak zehaztu ditzakegu. Oinarri gisa, KZko 1261. artikulua hartuko dugu. Hor, kontratuari egiten zaio aipamena, baina, abstrakzioa eginez, negozio juridikoari ere heda dakioket han jasotakoa.

Beraz, honako hauek dira ezkontzaren esentziazko elementuak:

**1.- Adostasuna/consentimiento:** Ezkontza eratzeko alderdiek egingo duten borondate-adierazpena da. KZk berak dio ez dela ezkontzarik egongo adostasunik gabe, 45. art.

Adostasun horrek objektu eta kausa zehatz bat izango du, eta forma zehatz bati jarraituz gertatuko da. Hain zuzen, horietan dira ezkontzaren gainontzeko elementuak.

Ezkontza-adostasunak, baliozkoa izateko, betekizun batzuk izan beharko ditu; aurrerago aztertuko ditugu.

---

<sup>7</sup> Codex Iuris Canonici (CIC) kontuan hartuta, 840. kanonena, sakramentutzat hartzen da fedea adierazten duten sinbolo edo bitartekoa. Horien bidez, fededun katolikei nolabaiteko batasuna lortu ahal izango dute beren jainkoarekin.

**2.- Objektua:** Ondarezko kontratuetan bezala, kasu honetan, objektua ez da izango gauza bat edo zerbitzu bat. Nolabaiteko *fikzio bat* egingo da ezkontzaren objektua ezkontideak berak direla joz. Esan ohi da negozio horrek **izaera pertsonala** duela; hori ezkontzatik ondorioztatzen diren eskubide eta obligazioetatik ondoriozta daiteke (KZko 67.-69. art).

**3.- Kausa:** Horren inguruan doktrina ugari baldin badago ere, guri dagokigunez, negozioak, ezkontzak kasu honetan, duen **izateko arrazoia edo funtzioa** adieraziko dugu kausarekin. Oro har, aipatzen da bikote-bizitzarako elkarte baten sorrera dela; bizikidetzaren bitartez, ezkontzaren helburuak bete ahal izango dira: elkarbizitza bera, bikotea elkarri laguntzea, bikotearen afektibitatea eta sexualitatea bideratzeko eremua, baita familia eratzea eta zaintzea ere, horrek dakartzan ardurekin batera.

Ildo horretan, alor kanonikoan, ezkontzaren helburuak espresuki jasotzen dira, CIC 1055. kanonean: ezkontideen ongizatea eta seme-alabak sortzea eta hezteko jasotzen dira ezkontzaren helburu gisa<sup>8</sup>.

KZn ez dira espresuki jasotzen helburuak, baina doktrinak, ezkontzaren helburuei buruz mintzatzean, antzekoak aipatzen ditu:

- helburu sozialak edo biologikoak: haurrak izan eta hezi

- helburu indibidualak: elkarbizitza eta elkar zaintzea

**4.- Forma:** Nahiz zuzenbide zibilean nahiz kanonikoan, funtsezko betebeharra da. Ezkontza **negozio juridiko formal** bat dugu; ez da negozio adostasunezkoa (*consensual*). Horrek esan nahi du modu baliozkoan ezkontzeko, alderdiek adostasuna forma zehatzean adierazi behar dutela.

---

<sup>8</sup> Helburu horiekin batera, CIC 1055.2 kanonak adierazten du bataiatuen arteko baliozko ezkontza bidez sakramentu ere badela. Alegia, ezkontza kanonikoak “maitasun jainkotiarren” sinbolo edo irudi izatea izango du helburu; eremu honetan, maitasun jainkotiar hori izango da eredia eta erreferentzia ezkontideen arteko harremanetan.



Horietako **elementuren bat falta** baldin bada edo **akasduna** baldin bada, ordenamendu zibilak nahiz kanonikoak beren zigorra (*sanción*) aurreikusiko du: ezkontza baliogabea/*invalido* izango da, arau orokor gisa.

### 3. Ezkontzaren balio-gabezia motak

#### - Esanahia:

Ezkontza bat *baliogabetzat (inválido)* jotzen denean, ez du efektu zibilik sorraraziko. Izan ere, ezkontza baliogabea izango da zuzenbidearen kontrakoa denean. Zigorren antzeko zerbait izango da, legez kontrakoa izateagatik. Horregatik, ezkontza baliogabeei indar juridikoa ezeztuko zaie.

#### Balio-gabeziaren motak:

##### Arlo zibila:

Oro har, bi balio-gabezia mota bereiz ditzakegu, orokorki negozio juridikoei eta konkretuki ezkontzei dagokienez.

Terminologiari dagokionez, aipatu behar da erabiliko ditugun terminoak — **deuseztasun (nulidad)** eta deuseztagarritasuna (**anulabilidad**)— ez direla KZn jasotzen.

KZk beti deuseztasuna (*nulidad*) aipatzen du. Dena den, eraentza edo erregimena desberdina denez, doktrinak bereizi egiten ditu.

#### 1.- Deuseztasun absolutua: *Nulidad absoluta*

Hori ordenamenduak eman dezakeen maila goreneko zigorra (*sanción*) dugu; ezkontzak kasu horietan ez du efektu juridikorik sortuko. Hori gertatuko da ezkontza bat ordenamenduko debeku bat hautsiz burutzen denean, errespetatu gabe, edo esentziazko betebeharren baten faltan. KZn, horren adibide ditugu 73. artikuluko 1, 2 eta 3 zenbakiak.

#### 2.- Deuseztasun erlatiboa edo deuseztagarritasuna

Ezkontza bat deuseztagarria izango da *–anulable–*, esentziazko betebeharrak guztiak izanda, horietako batean **bizio edo akats** bat gertatzen bada. Horren adibide dira KZko 73.4 eta 73.5 zenbakietan aurreikusitakoak.

**- Erregimen juridikoa:**

Balio-gabeziako bi kategoria horien eraentza/erregimen juridikoa ez da berdina. Beraz, bata edo besteak ondorio juridiko desberdinak izango ditu, modu honetan:

**a) Ezkontza deuseza denean: KZko 74. art.**

- Ezkontza deuseztat jotzen denean, fikzio moduan esaten da sekula burutu ez balitz bezala izango dela; ez du inolako efekturik sortuko.

Salbuespena 79. artikuluan agertzen dena da, *ezkontza putatiboa* (putare: uste izan), **ustezko ezkontza**. Kasu horretan, ezkontza deuseztat jotzeak ez ditu baliogabe utziko jadanik sortu diren efektuak: a) seme-alabekiko, b) fede onez zeuden ezkontideekiko.

\* Honako pertsona hauek egongo dira deuseztasun-akzioa egikaritzeko **legitimatuta**: ezkontideak, Ministerio publikoa, eta interes legitimo eta zuzena duen edozein pertsona.

\* Ezkontzaren deuseztasuna egikaritzeko **akzioa ez dago ez preskribatzearen ez iraungitzearen menpe**, edozein unetan egikari daiteke. Ez da iraungiko (*extinguir*) denboraren poderioz.

**b) Ezkontza deuseztagarria denean: KZko 75.-76. art.**

\* Akzioa egikaritzeko legitimatua: bizioa/akatsa jasan duen ezkontidea izango da, 76. artikuluan jasotzen den moduan.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

\* Deuseztagarri izatearen berezitasunik nagusiena zera da: pertsona legitimatuek ezkontzaren nulitatea edo deuseztasuna eskatzeko **epe bat dutela**. Epe hori urtebetekoa izango da; epea kontatzen hasiko da bizioa desagertu zen unetik aurrera.

Legitimatuei dagokien akzioa egikaritu gabe epe hori igarotzen bada, ezkontza baliozkotuko (*convalidar*) da.

**Balio-gabeziaren kasuen artean, berezia dugu KZko 75.artikulukoa:** behar den **adina ez izatea denean ezkontzaren akatsa**. Horretan, bi une eta bi erregimen bereizi dira:

- **Ezkontidea adin txikikoa den bitartean**, deuseztasunaren erregimenari jarraituko zaio; legitimatuak: guraso, tutore eta Ministerio publikoa; akzioa egikaritzeko eperik gabe

- Ezkontideak **adin nagusitasuna lortzean**, deuseztagarritasunaren erregimenari jarraituko zaio; legitimatuak: ezkontideak; eta baliozkotzea gertatuko da elkarrekin urte betez bizitzen badira adin nagusitasuna lortu duen unetik aurrera.

### Zuzenbide kanonikoaren arloa

Horretan, balio-gabeziako **kasu bakarra** jasotzen da: deuseztasuna/*nulidad*. Baina kontuan izan behar da ezkontzaren deuseztasun kanonikoa **ez dela deuseztasun zibilaren guztiz berdina**.

Hasteko, deuseztasun kanonikoa eskatu ahal izango da nahiz esentziazko elementu bat falta bada, nahiz, elementu hori egon arren, akasduna edo biziatura baldin badago.

Modu berean, eremu kanonikoan, ezkontza deusezak baliozkotu daitezke, dagozkion baldintzak betetzen badira.

Zuzenbide kanonikoaren arabera ezkontza bat deuseztat jotzen bada:

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

- Ez du efektu juridiko-kanonikorik izango
- 1674. kanonean jasotako pertsonak egongo dira akzioak egikaritzeko **legitimatua**k: ezkontideak eta *justitia bultzatzaile* deritzona (promotor de justicia), eta azken hori kasu berezi batzuetan: deuseztasuna dibulgatu/zabaldutenean eta balioztatu ezin denean.
- Deuseztasun-akzio hori **ez da iraungiko**.

## **5. IKASGAIA: EZKONTZA KANONIKO ETA ZIBILAREN PRINTZIOPIO INFORMATZAILEAK**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

1. Sarrera

2.- Ezkontza zibila eta kanonikoaren printzipioak:

#### **Arlo zibilean:**

**Pertsonaltasunaren** printzipioa

Adostasunaren printzipioa

Printzipio instituzionalista

“Favor matrimonii” printzipioa

Formaren printzipioa

#### **Arlo kanonikoan:**

**Sakramentutasunaren** printzipioa

Printzipio instituzionala

Adostasunaren printzipioa

“Favor matrimonii” printzipioa

Formaren printzipioa

### **II.- IKASGAIA GARATUTA**

#### **1. Sarrera**

Nahiz arlo zibilean nahiz kanonikoan, ezkontza ordenamendu juridiko baten azpisistema bat da: ezkontza zibila, estatuko ordenamenduarena, eta ezkontza kanonikoa, ordenamendu kanonikoarena. Horregatik, estatuko ordenamenduko printzipioak, nahiz ordenamendu kanonikoarenak aplikagarriak izango zaizkie (bakoitzari dagokiona).

Nahiz eta izenez ezkontza zibila eta kanonikoa arautzen dituzten printzipioak ia berdinak izan, haien edukia ez da guztiz berdina. Izan ere, ezkontza mota bakoitzaren **printzipio gorena desberdina** da, **pertsonaltasuna** batean eta **sakramentutasuna** bestean; printzipio goren horren esanahiak beste guztiena baldintzatuko du.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Kontuan izan behar da Espainian ezkontza zibilak izandako arauketa juridikoak zuzenbide kanonikoaren eragin nabaria izan duela; are gehiago, esan daiteke ezkontza zibila ezkontza kanonikoaren egokitzapen bat izan dela, jatorriz behintzat. 1978ko Konstituzioarekin, iraganarekiko haustura nagusi bat gertatu zen. Kode Zibilak izan zuen lehenengo erreforma garrantzitsua, kode hori EK-k aurreikusitako printzipio eta eskubideetara egokitzeko; 1981ean izan zen, eta, besteak beste, dibortzioa onartu zen. Aipatzekoak dira 2005. urtean KZk aldatu duten bi lege: 1.- 13/2005 legeak KZ aldatu zuen, sexu bereko bikoteei ezkontzeko aukera emanez; 2. 15/2005 legeak KZ aldatu zuen ezkontza-banantzea eta dibortzioa aldatzeko; kanpoan utzi da banandu edo dibortziatzeko KZn jasotako kausa zehatz batzuk alegatzeko beharra; dibortzioa ezkontideen borondatearen mende utziko da: bi ezkontideen borondate-akordio bidez, nahiz ezkontide bakar baten borondate hutsez.

Jatorri hori dela-eta, ezkontza zibilak, hasiera batean bederen, ezkontza kristauaren elementu asko jasotzen zituen. Elementu horiek ez ziren hartu elementu erlijiosotzat, mende askotako mendebaldeko kulturaren partetzat baizik. Esaterako, ezkontza monogamotzat hartzea, 1981 arte desegin ezin izatea, 2005 arte heterosexualen artekoa izatea edo ezkon-adostasunari ematen zaion garrantzia; horrelakorik ez da gertatu mendebaldeko kulturatik aparte dauden herrialdeetan, esaterako, erlijio islamiarra nagusi izan den eremuan.

Aipatutako printzipioak aztertuko ditugu.

## **2. Pertsonaltasunaren printzipioa**

Printzipio hori EK-ko 10.1 artikulutik ondorioztatu ohi da, eta ordenamendu juridiko osoan zehar proiektatuko da, esaterako familiaren eta ezkontzaren eremura. Izan ere, jo ohi da familia eta ezkontza eremu egokiak direla gizakiaren izaeraren garapena bideratzeko afektibitateari edo bikote-elkarbizitzari dagokienez. Azken finean, EK-n aitortzen diren eskubide guztiek pertsonaren duintasunean eta nortasunaren garapen librean dute oinarria, aldi berean legea eta besteen eskubideak errespetatuz.

Pertsonaltasunaren printzipio horretatik, honako ideia hauek ondoriozta ditzakegu **ordenamendu zibilari** dagokionez:

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

- Gure sisteman, familia ez da nahitaez ezkontzara lotzen; norberaren ideologia eta erlijio-sinesmenen arabera, beste modu bateko familiak ere egon daitezke; betiere, pertsonaren nortasunaren garapen librea helburua izanik, legea eta gainontzekoen eskubideak errespetatuz.
- Gizabanakoek eta haien ongizateak lehentasuna izango dute osatzen dituzten elkaratekiko, esaterako ezkontzarekiko, instituziotzat hartuta. Esan daiteke ezkontza *gizabanakoen zerbitzura* dagoela, eta ez alderantziz. Ezkontideen ongizateak izango du lehentasuna, haien nortasuna libre garatu ahal izateak, eta ez ezkontzak; hala, gizartean izan dezakeen funtzio instituzionala azpimarratu egiten da. Horregatik, arlo zibilean, adostasunaren printzipioak izango du lehentasuna erakundearen printzipioarekiko. Bi ezkontideen adostasuna beharko da ezkontzari hasiera emateko; amaiera, ordea, bi ezkontideen edo bakarraren borondatez etor daiteke.
- Pertsonaltasunaren printzipioak adostasunari ematen dio garrantzia, negozioa sortzeko baita amaitzeko ere. Hala, dibortzioaren oinarria pertsonaltasuna da, ezkontzak bere egitekoa betetzen ez duenean, pertsonaren garapenari eta ongizateari dagokienez bikotearen elkarbizitza luzatu ezin denean, ezkontza desegin ahal izango da pertsonen hobe beharrez.

**Arlo kanonikoan**, ezkontideen adostasuna ere ezinbestekoa da ezkontza sortzeko, ikusiko dugun moduan. Baina, ezkontza balioz eratu eta gero, ezkontzak ordenamendu kanonikoan duen funtzioa eta esanahia kontuan hartuta, ezkon-lotura desegitea ez dago ezkontideen borondatearen esku. Ezkontzari amaiera emateko, ez da nahikoa izango ezkontza bikote edo familiaren garapenerako biderik egokiena ez izatea; baliozkoa den ezkontza kanonikoa ezin da desegin. Elkarbizitza larriki urratuko duten arrazoiak daudenean, Kode Kanonikoak aurreikusten duen irtenbide bakarra bikotearen elkarbizitza etetea da, banaketaren bidez, baina baliozko ezkon-lotura ezingo da desegin.

- Pertsonaltasunaren printzipioa dela-eta, esan dugun bezala, arlo zibilean, adostasunaren printzipioak izango du lehentasuna instituzionaltasunarekiko.

Hori horrela izanik, ordenamendu zibilak ezkontzaren eduki minimoa bakarrik arautuko du, alderdi ahulena babesteko. Muga horien barruan, ezkontideek ezkontza moldatu ahal izango dute beren egoera konkretura, betiere beren izaeren garapena hobeto bermatzeko.

- Ezkontza zibilaren pertsonaltasunaren printzipioak duen nagusitasunagatik, ezkontzeko eskubidea –*ius connubii* delakoa– gizabanako guztiei aitortzen zaie. Hala, ordenamenduak ezarritako murriztapenak gutxienekoak izango dira aukera hori ahalik eta pertsona gehienei emateko, norberaren nortasunaren garapenerako egokitzat jotzen delako.

Ez da horrela gertatuko arlo kanonikoan. Hor, ezkontzak kontratuzko izaera izateaz gain, **salkramentu-esanahia** ere badu. Ezkontza kanonikoak funtzio edo sinbologia zehatza du, eta ezin da desegin. Ordenamendu kanonikoak ezkontzeko jartzen dituen betebeharrak zorrotzagoak izango dira; pertsona guztiak ez dira egokiak izango betekizun horiek betetzeko.

Horren adierazgarri, indarrean dauden arauen idazkera dugu. EK-ko 32. artikuluan ezkontzeko eskubideari dagokionez jasotzen den formulazio zabala alde batera uzten da, eta aurreikusten da kanonikoki ezkondu ahal izango direla *legeak ezkontzea galarazita ez daukaten pertsonak bakarrik* (1058. k.); ezkon-eragozpenak, debekuak, ugariagoak izango dira. Izan ere, ezkontza kanonikoa desegin ezin denez bikoteak bere gain hartzen dituen obligazio pertsonalak bizi osorako izanda, ordenamendu kanonikoak uste du pertsona guztiek ez dutela horretarako gaitasunik.

### 3. Sakramentutasunaren printzipioa

Horren legezko oinarria Kode Kanonikoaren 1055. kanonean jasotzen da<sup>9</sup>. Handik ondorioztatzen da bi bataiaturen arteko baliozko ezkontza kanonikoa kontratua izateaz gain sakramentu ere izango dela. Ezkontza kanonikoan, kontratu- eta

---

<sup>9</sup> 1055. kan: " La alianza matrimonial, por la que el varón y la mujer constituyen entre sí un consorcio de toda la vida, ordenado por su misma índole natural al bien de los cónyuges y a la generación y educación de la prole fue elevada por Cristo Nuestro Señor a la dignidad de sacramento entre bautizados.

Por tanto, entre bautizados, no puede haber contrato matrimonial válido que no sea por eso mismo sacramento".



sakramentu-izaera ezin dira banandu; eremu baten baliozkotasunak bestearena dakar; ezkontideek ezkontzaren sakramentu-izaera kanporatu edo beren kontzientzian baztertuko balute, ezkontza deuseza eta, ondorioz, baliogabea litzateke, ondorengo ikasgaitan aztertuko dugun moduan.

Sakramentutasuna ikuspuntu bikoitz batetik azter daiteke, hertsiki erlijiosoa eta juridiko-kanonikoa; ikuspuntu teologiko-erlijiosoak baldintzatzen du ezkontzaren araudi kanonikoa. *Sakramentu* terminoak esanahi erlijiosoa duen zeinua edo sinbolo bat adierazten du. Beraz, ezkontza kanonikoak bere alderdi juridikoa izango du (guk aztertuko duguna), baita bere alderdi erlijiosoa, teologikoa, ere. Bi pertsona kanonikoki ezkontzen direnean, zuzenbide kanonikoaren eremuko kontratu bat eratzen dute; aldi berean, egintza juridiko kanoniko horrek erlijio-esanahia ere badu; kodeak dio sakramentu bat eratzen dutela. Ezkontza kanonikoa efektu juridikoak dituen egintza erlijioso bat da.

Ordenamendu kanonikoan –ordenamendua konfesionala izanda– ezkontza kanonikoa sakramentu bat dela esatean, zera esan nahi da: ezkontza batean izaten den *gizon-emakume arteko maitasun-harremana "maitasun dibino edo jainkotarraren", adierazgarri edo sinboloa dela*. Ezkontza kanonikoak sinbolizatzen duen *maitasun dibino hori* erabatekoa (*total*), baldintza gabekoa eta behin betikoa da; ildo horretatik, gizakien arteko ezkontzak ere berezitasun horiek izango ditu. Halaber, adierazten da ezkontideen arteko erabateko maitasuna eta batasuna (eremu pertsonalean eta eremu fisiko-sexualean) maitasun jainkotar/dibinoaren sinbolo/adierazgarri direla, baita *Kristo eta haren Elizaren* arteko batasunaren adierazgarri<sup>10</sup> ere. Ezkontza kanonikoak maitasun ideal horren adierazgarri izan behar du. Hori da ezkontza sakramentu<sup>11</sup> izatearen esanahia.

Ezkontza kanonikoak duen esanahi erlijioso horrek erabat baldintzatuko ditu beraren araudia, zentzua eta helburua. Printzipio hori kontuan izanik, modu egokian uler

---

<sup>10</sup> Ikuspuntu teologikotik, ezkontzaren eremuan izaten den gizon-emakume arteko "*batasun fisiko*" ari, harreman sexualari, alegia, esanahi edo dimentsio erlijioso bat emango zaio. Senar-emazteen arteko maitasuna eta batasun fisiko-sexuala, *batasun erlijioso* baten adierazgarritzat joko da; nolabait esateko, "*maitasun trinitarioaren*" sinbolotzat, non aitak- semeak-espíritu santuak bat egiten baitute. Horrela adierazten du BERNÁRDEZ CANTÓN, A., irakasleak lan honetan: *Compendio de Derecho matrimonial canónico*, 26.-29. or.

<sup>11</sup> Can 840: los sacramentos (...) son signos y medios con los que se expresa y fortalece la fe, se rinde culto a Dios y se realiza la santificación de los hombres, y por tanto contribuyen en gran medida a crear, corroborar y manifestar la comunión eclesial (...).

daitezke ezkontza kanonikoaren esentziazko propietateak: batasuna eta desegin ezin izatea, baita arlo kanonikoko eragozpenak eta ezkontza-deuseztasuna sorrarazten dituzten kausa guztiak ere.

Ondoren aztertuko ditugu bi printzipio goren horietatik ondorioztatzen diren gainontzeko printzipioak; eremu zibilean edo kanonikoan gailentzen den printzipioak ondoren datozenen esanahia nabarmenki baldintzatuko du.

#### 4. Adostasunaren printzipioa

Bi ereduetan, adostasuna dugu ezkontzaren "kausa eraginkorra", hau da, ezkontza bera eragin edo sortuko duen kausa. Nahitaezko betekizun bat dugu; adostasunik gabe ez da ezkontzarik egongo ez arlo zibilean (KZko 45. art.), ezta kanonikoan ere (CIC 1057. kan. ).

Dena den, ezkontza baliozkoa izateko, adostasuna forma zehatz bati jarraituz adierazi beharko da.

Bi arloetan, ezkontideen adostasunak garrantzi berezia du ezkontza eratzen edo egiten den unean, *in fieri* unean. Arlo zibilean, ezkontideen adostasunak ere garrantzi berezia du, ezkontzari amaiera emateko, dibortzioaren bidez. Arlo kanonikoan, ordea, ezkontzaren desegitea ez dago alderdien borondatearen mende, beraren sakramentu-izaera dela-eta.

Bi arloetan adostasuna baliozkoa izateko, **betebihar batzuk** bete behar ditu. Orain ikusiko dugu horiek nola sistematizatu; garapena datozen ikasgaietan egingo da.

a) Ezkontza-adostasuna barne-**borondatearen adierazgarri da**; horrek zera adierazi nahi du:

- ezkontza sorrarazten du/ *causa eficiente* delakoa; nahitaezko elementua da; batzuetan, ordea, ez da nahikoa ezkontza baliozkoa izateko

- ezkontza-adostasuna ezkongaietik berek adierazi behar dute, ezin da ordezkapenik egin

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

- ezkontza-adostasunak honelakoa izan beharko du: askatasunez emana, positiboa, orainaldikoa, aldebikoa, erabatekoa, baldintza gabekoa.

b) Ezkontza-adostasuna kanpora begira adierazi behar da.

c) Kanpora begira egindako adierazpenak bat etorri behar du pertsonaren barneko borondatearekin.

-bat-etortze hori (*concordancia*) gertatzen dela, presuntzio bat da.

- bat-etortze hori gertatzen ez bada, ezkontza deuseza izango da; simulazio-kasu bat izan daiteke.

Kontuan izatekoa da arlo kanonikoan garrantzi berezia duela kontzientzian ezkongai bakoitzak nahi duena; kanpoan adierazi denaren eta barne-borondatearen artean kontraesana baldin bada, barne-borondateak izango du lehentasuna, batez ere ordenamendu kanonikoaren kontzientziazko izaera dela-eta.

### 5. Printzipio instituzionalista

Gizartean, sozialki, datu historikoak kontuan hartuta, ezkontzak badu eta izan du bere egitekoa, bai arlo zibilean baita kanonikoan ere. Zeregin hori modu egokiagoan lortzeko, ordenamendua bakoitzak ezkontza modu zehatz batean arautu du.

**Arlo zibilean**, legearen aldeko erreserba bat jasotzen du EK-k (32.2); hori garatuz, KZk arautu ditu ezkontza baliozkoa izateko betekizunak, haien edukia eta amaiera.

Ezkontza zibilaren **edukiari** dagokionez, ordenamenduak minimoak soilik arautzen ditu: bikoteari leial izatea, elkarri laguntzea, elkarrekin bizitzea eta elkar errespetatzea. 2005eko azken erreformarekin, betebeharrei gehitu zaie etxeko ardurak konpartitzea eta aurreko nahiz ondorengo ahaideak eta haien ardurapean dauden bestelako pertsonak zaindu eta artatzea.

KZko 66. eta 68. art. Betiere, alderdiek, ados jarriz gero, horien hedadura zehaztu dezakete. KZn (indarrean dagoen araudian) ez da jasotzen betebeharrak ez betetzeagatik –mantentzeko betebeharrak kenduta– ondorio juridiko zuzenik<sup>12</sup>; horrek benetako obligazio juridikoaren marka galarazten du, eta doktrinak dio *obligatio moralak* direla.

2005eko erreformaren aurretik, araudian jasotako betekizunak ez betetzea banantzeko kausa zen, dibortziorako bidea emango zuena. Gaur egun, ordea, dibortziorako bidea aldatuta, kausarik behar ez denez, konpromiso pertsonalen parekoak izango dira betekizun horiek neurri handi batean. Ezkontzaren iraupena ezkontideen borondatearen arabera izango da, ez legez ezarritako betebeharrak.

**Arlo kanonikoan**, ezkontzaren sakramentu-izaera dela-eta, ordenamendu kanonikoak osorik arautzen du ezkontza. Ezkontideek ezingo dute aurrez ezarritako erregimen horretatik ezer aldatu edo kanporatu; hala eginez gero, ezkontza deuseza izan daiteke. Ezkontideen borondatearen mende, hasierako baietza kenduta, ezer gutxi geldituko da bere borondate-autonomiaren arabera. Horregatik, **arlotan**, printzipio instituzionalistak du lehentasuna, ezkontideen adostasunarekiko; hori ezkontzaren sakramentu-izaeratik ondorioztatzen da.

Hau da, ezkontza kanonikoak duen sakramentuzko esanahi hori bakarrik lortuko da ezkontza ordenamendu kanonikoak zehaztutako moduan bideratzen bada. Horregatik, lehenik, sakramentutasuna dugu; ondoren, printzipio instituzionala, lehena ahalbideratzeko; azkenik, ezkontideen adostasuna, ezkontza-baietzari soilik dagokionez.

**Arlo zibilean**, ordea, pertsonaltasunaren printzipioa gorena izanda, ezkontideek emandako adostasunak, ezkontideen borondateak, izango du lehentasuna. Arlo horretan ere, ezkontzak badu erakunde-izaera, baina maila beheragoko batean geldituko da. Ezkontza zibilak izan duen garapena ikusita, ezkontza-erakunde zibilaren helburuen artean, bikotea eratzen duten bi pertsonen garapena dago: printzipio pertsonalista dela-eta.

---

<sup>12</sup> Esaterako, 2005eko reforma baino lehenago, ezkontza-betebeharrak ez baziren betetzen, ezkontideak banantzeko eska zezakeen. Izan ere, bikotea banantzeko kausa batzuk zeuden zerrendatuta, 82. artikuluan; lotura estua zuten askok ezkontza-betebeharrak ez betetzearekin.

Nolabait esateko, arlo kanonikoan pertsonak ez du lehentasuna, zentzu zibilean ulertu den moduan. Ezkontza kanonikoak duen erakunde-izaerarengatik eta sakramentuaren printzipioaren nagusitasunarengatik, ezkontideen adostasuna –hasierako unea pasatuta– bigarren mailan gelditzen da, erakundearen mesedetan, sakramentutasunaren zentzu horren eraginez.

## 6. "Favor matrimonii" printzipioa

Printzipio horrek esan nahi du ordenamenduan ezkontzari aldeko tratatu bat emateko joera egongo dela. *Ezkontzaren aldeko* jarrera hori bi mailatan nabaritu daiteke: perfekzio maila *gorena* eta egonkortasun maila *gorena*.

1.- Batetik, ordenamendu bakoitzak ezkontzaren *perfekzio maila gorenena* bermatu nahiko du bere araudiarekin. Lortu nahi dena zera da: egindako ezkontzetatik ahalik eta gehienak zuzenak, egokiak, *perfektuak* izatea. Horretarako, ordenamenduak, behar diren neurriak hartuko ditu, ahal bezainbat, ezkontza-deuseztasunik ez gertatzeko. Horretarako aurreikusten dira ezkontzari jarritako forma-betekizunak.

Neurri horien artean, ezkontza aurreko espedientea dago. Ezkondu aurretik egin beharreko azterketa bat da, ikusteko ea ezkontza baliogabe egingo duen arrazoirik ote dagoen, esaterako ezkontzeko eragozpenak egotea edo ezkontideek behar duten gaitasuna ez izatea.

2.- Ezkontza ordenamenduak jarritako betekizun guztiak errespetatuz burutzen bada, ordenamendu berak ezkontzari egonkortasun mailarik altuena, *gorena*, eman nahi dio.

Horretarako, hainbat neurri jasoko ditu ordenamenduak; ezkontzari ahalik eta egonkortasun handiena emateko. Hori garbi ikusten da arlo kanonikoan 1060. kanonean<sup>13</sup>, non esaten baita “zuzenbideak ezkontzaren alde egingo duela; horregatik,

---

<sup>13</sup> CIC 1060. kan.: "El matrimonio goza del favor del derecho, por lo que en la duda, se ha de estar por la validez del matrimonio, mientras no se pruebe lo contrario".

zalantza-kasuetan, ezkontza baliozkotzat joko da, kontrakorik frogatzen ez den bitartean”.

**Arlo zibilean**, antzeko adibidea dugu KZko 78. artikuluan<sup>14</sup>, non esaten baita “epaileak ez duela erabakiko ezkontza deuseza dela, forma-akatsak egoteagatik, baldin eta gutxienez ezkontideetako bat fede onez ezkondu bada”.

Arau horien bitartez, ordenamenduak ezkontzaren aldeko apustua egiten du; printzipio moduan, lortu nahi dena da ezkontza baliozko moduan mantentzea, eta bide batez ezkontideen "fede ona" ere babestu. Dena den, arlo zibilean, ordenamenduak mekanismo tekniko bidez ematen duen egonkortasun hori mugatuta dago; izan ere, dibortziatzeko aukera aurreikusten da. Arlo zibilean, egonkortasunak amore ematen du pertsonaltasunaren printzipioaren alde. Ezkontza zibilaren egonkortasuna ezkontideen borondatearen arabera izango da. Borondate hori badago, ordenamenduaren *aldeko babes* hori ere izango du.

Ezkontza kanonikoa desegin ezina izanda –betiere sakramentuzko izaera dela eta–, ordenamenduak jarritako betekizunak bete ondoren –aipatzekoa da ordenamendu kanonikoak jarritako betekizunak ezkontza baliozkoa izateko sakonagoak direla ordenamendu zibilekoak baino–, ordenamenduak ezkontzaren egonkortasunaren alde egingo du.

### **Formaren printzipioa**

Ezkontza, negozio juridiko formal bat dugu; ezkontza baliozkoa izateko, adostasuna forma zehatz batean eman beharko da. Horrekin, batez ere, **segurtasun juridikoa** bermatu nahi da, alegia, benetan, ezkontza burutu izanaren ezaguera izatea eta hori frogatu ahal izatea. Horretarako aurreikusten da ezkontza erregistro zibilean inskribatu behar izatea.

---

<sup>14</sup> KZko 78. art.: "El juez no acordará la nulidad de un matrimonio por defecto de forma, si al menos uno de los cónyuges lo contrajo de buena fe".

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Betiere, ezkontzeko forma anitz onartzen dira, ondoren etorriko den ikasgai batean aztertuko den bezala. KZk 49. artikuluan onartzen ditu ezkontzeko forma zibila eta erlijiosoa.

Ordenamendu zibilak, KZn jasotzen den moduan, efektu zibilak aitortuko dizkie zenbait ordenamendu konfesionali, ezkontzeko formari dagokionez; gaur egun, eta forma zibilaz gain, honako forma hauei onartuko zaizkie efektu zibilak: kanonikoa, judutarra, islamiarra eta erritu ebanjelikoak. Forma erlijioso horiei jarraituz eratutako ezkontzak Erregistro zibilean inskribatu beharko izango dira erabateko efektu zibilak izateko; betiere, inskripzioa gauzatu ahal izateko, ordenamendu zibilak ezarritako gutxieneko betekizun formal batzuk bete beharko dituzte: ezkontza burutzea adinez nagusi diren bi lekuko arrunten aurrean eta lekuko kualifikatu baten aurrean (epailea alkatea, funtzionarioa edo erlijio-ministroa).

## **6. IKASGAIA. EZKONTZA-ERAGOZPENAK EZKONTZA-SISTEMA KANONIKO ETA ZIBILEAN**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1.Eragozpenaren izaera juridikoa**

#### **2.Eragozpenen sailkapena**

-Sailkapen komunak:

\*Erlatiboak/absolutuak

\*Dispentsa jaso dezaketenak/dispentsa jaso ezin dutenak

\*Ziurrak/zalantzarriak

-Zuzenbide kanonikoko sailkapen bereziak:

\*Zuzenbide jainkotiarrekoak/eliz zuzenbidekoak

\*Publikoak edo ezkutukoak

#### **3.Eragozpenen erregimen juridikoa**

-Eragozpenak sortu eta ezabatzeko eskuduntza

-Eragozpenaren amaiera:

-Dispentsaren azterketa berezia:

\*Dispentsei inguruko eskuduntza

\*Dispentsak emateko baldintzak

\*Dispentsen inskripzioa

\*Dispentsa kanonikoen homologazio zibila

#### **4.Ezkontza-eragozpenen banakako azterketa**

##### **A) Zuzenbide Kanonikoko eragozpenak:**

1.-Adina (1083. kan.)

2.-Inpotentzia (1084. kan.)



- 3.-Ezkontza-lotura (1085. kan.)
- 4.-Kultu-desberdintasuna (1086. kan.)
- 5.-Ordena Sakratua (1087. kan.)
6. -Boto Publikoa (1088. kan.)
- 7.-Bahiketa (1089. kan.)
- 8.-Krimena (1090. kan.)
- 9.-Odolkidetasuna (1091. kan.)
- 10.-Ezkontza-ahaidetasuna (1092. kan.)
- 11.-Onestasan publikoa (1093. kan.)
12. -Ahaidetasun legala (1094. kan.)
- \*Ezkontza egiteko debekua (1124. kan.)

**B) Zuzenbide Zibileko eragozpenak:**

- 1.-Adina (KZko 46.1 art.)
- 2.-Ezkontza-lotura (KZko 46.2 art.)
- 3.-Odolkidetasuna (KZko 47.1 eta .2 art.)
- 4.-Ahaidetasun legala (KZko 47.1 art.)
- 5.-Krimena (KZko 47.3 art.)

**5. Eragozpen batean oinarrituriko ezkontza-baliogabetasuna erabakitzen duten eliz epaiaren homologazio zibila**

**II. IKASGAIA GARATUTA**

**1. Eragozpenaren izaera juridikoa**

Ezkontza-eragozpenek ezkontza baliogabe bihurtzen dute bai eremu kanonikoan bai zibilean, baina doktrinaren aldetik ez dago adostasunik horien izaera juridikoaren inguruan. Batzuek diote ezgaitasun-kasuak direla. Beste batzuek ezkontza-bateraezintasun kontzeptuarekin lotzen dituzte. Azkenik, debeku legalak besterik ez dela ere argudiatzen da.

Gure ikuspegitik, bai eremu zibilean bai kanonikoan, eragozpenak ezkontza baliokoa izateko oztupoak dira. Ildo horretan, zehaztu behar dugu eragozpenek ez

diotela ezkontzaren negozio juridikoaren izaerari (hots, ezkontza *in fieri*) eragiten, negozio horretatik sortzen den aldebiko erlazio juridikoari baizik (hots, ezkontza *in facto esse*). Beraz, eragozpenek ez dute adostasunaren adierazpenaren baliozkotasunaren inguruan inolako eraginik. Ezkontza-kausarekin objektiboki bateraezinak diren inguruabarrak dira, hau da, ezkontzaren sakramentutasun-izaerarekin (ezkontza kanonikoan) eta pertsonaren nortasunaren garapen osorako eremuaren kontzeptuarekin (ezkontza zibila).

## 2. Eragozpenen sailkapena

Eragozpenak, beren ezaugarrien arabera, modu desberdinez sailkatu ditzakegu:

Badaude eragozpenen zenbait **sailkapen komun**, eremu zibil nahiz kanonikoan:

-Eragozpenak **erlatiboak edo absolutuak** izan daitezke, pertsona jakinekin edo edozein pertsonarekin ezkontzea eragozten baldin badute.

Dispentsa jaso dezaketenak edo dispentsa jaso ezin dutenak, agintari eskudunak kasu zehatzaren inguruabarrak direla-eta eragozpenak aplikatzea salbuetsi badezake edo ezin badu.

-**Ziurrak edo zalantzarriak**, eragozpenaren inguruko ezagutzaren arabera. Zalantza legearen interpretazioaren edota eragozpena sortzen duen inguruabarraren inguruan sor daiteke.

Beste zenbait sailkapen **zuzenbide kanonikoak** dira **esklusiboki**

-**Zuzenbide jainkotiarrekoak edo eliz zuzenbideak**, baldin eta eragozpena jainkozko zuzenbidetik zuzenean eratoritzen bada edo elizaren organo eskudunek onartutako araua batean jasotzen bada. Lehenengo kasuan, eragozpenari ezin izango zaio inoiz dispentsarik eman; bigarren kasuan, aldiz, dispentsa eman ahal izango da.

-**Publikoak edo ezkutukoak**, eragozpenak kanpo-eremuan frogagarriak diren ala ez aintzat hartuta.

### 3. Eragozpenen erregimen juridikoa

-Eragozpenak sortu eta ezabatzeko gaitasuna:

**Eremu kanonikoan**, Aita Santua da eskuduna eliz zuzenbideko eragozpenak sortzeko, baita jatorri jainkotiarra duten eragozpenak identifikatzeko ere (1075. kan.). Eliza katolikoaren bestelako organoek ezkontza-debekuak sortzeko ahalmena soilik izango dute (1077. kan.).

**Eremu zibilari** dagokionez, Konstituzioaren 32.2 artikulua zehazten duen bezala, ezkontza legez arautu behar da. Lege hori Kode Zibila da. Hain zuzen ere, haren I. Liburuko IV. Tituluan arautzen da ezkontza, eta, erregulazio horretan, ezkontzeko gaitasunari eta ezkontzaren gainean sor daitezkeen eragozpenei egingo zaie aipamen. Beraz, botere legegileak izango du, berak baitu Kode Zibila bezalako legeak onartu, erreformatu eta indargabetzeko eskuduntza, ezkontza zibilari eragiten dioten eragozpenak sortu eta ezabatzeko ahalmena.

-Eragozpenen **amaiera**:

Bi eremuetan, eragozpenarekin amaituko da hori sortu duten egitatezko inguruabarrak desagertzen direnean.

Bestalde, eta egitatezko inguruabarrak mantendu arren, badago eragozpenekin amaitzeko beste bide bat, **dispentsa**. Dispentsa bi eremuetako organo eskudun batek kasu berezi eta zehatzetan eragozpena ez aplikatzea dakarren erabakia da.

-**Dispentsaren azterketa berezia**:

**Eremu Kanonikoari** dagokionez, **dispentsa emateko eskuduna** Aita Santua izango da modu orokorrean (1078.2 kan.). Aita Santuak dispentsa guztiak eman ditzake. Hala ere, lan hori egingo du bere inguruan lan egiten duten beste organo batzuen bitartez (Ofizio Santua, Ekialdeko Elizarako Kongregazio Sakratua eta abar).

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Lekuko ordinarioek –normalean gotzainak izango dira–, Aita Santuari eskusiboki dagozkion dispentsez salbu, edozein dispentsa emateko aukera izango dute (1078.1 kan.). Ezkongaietariko bat heriotza-arriskuan baldin badago (1079. kan.) edo eragozpena ezkontza egiteko prest dagoenean ezagutzen bada eta hori atzeratu ezin bada (harridurazko kasua deitzen zaio horri, 1080. kan.), Aita Santuari eskusiboki dagozkion dispentsak ere eman ahal izango dituzte Lekuko Ordinarioek (ordena sakratuaren eragozpena salbu, heriotza-arriskua dagoenean, eta ordena sakratua eta boto publikoa salbu, harridurazko kasuan).

Heriotza-arriskua dagoenean, eta tokiko ordinarioarengana jotzeko ezintasuna egonik, ezkontza burutu behar duen parrokoak edo eskuduntza delegatua duen apaizak edo diakonoak eman ahal izango dute dispentsa (1079.2 kan.). Eragozpena ezkutukoa balitz, dispentsa emateko eskuduntza aitorlearenganaino ere hedatuko da (1079.3 kan.).

Harridurazko kasuan eta eragozpena ezkutukoa izanik, dispentsa emateko eskuduntza ezkontza egin behar duen parrokoarengana edo eskuduntza delegatua duen apaiza edo diakonoarengana zabalduko da baita aitorlearengana ere (1080. kan.).

**Eremu Zibilari dagokionez, dispentsa emateko organo eskudunak** (KZko 48 art.), zein eragozpen den, Justizia Ministroa (krimenik badago) edo lehen instantziako epailea (adin txikikoa bada eta odolkidetasunik badago) izango dira.

**Dispentsa emateko baldintzei dagokionez, bi eremuetan**, organo eskudunari zuzenduriko eskaria (90. kan. eta KZko 48. art.) egin beharko da lehenik eta behin. Ondoren, dispentsaren inguruko erabakia emango da, eta, betiere, horrek arrazoitua izan beharko du; ildo horretan, arrazoi zuzen bat ematea eskatzen da bi eremuetan (90. kan. eta KZko 48. art.). Salbuespen gisa, Justizia Ministroari ez zaio galdatuko dispentsa emateko arrazoi zuzenik.

**Dispentsa** eman eta gero, hura **inskribatu** beharko da:

**Eremu kanonikoan**, dispentsa parrokiako ezkontzen liburua inskribatuko da (1081. kan.). Eragozpena ezkutukoa balitz, beraren dispentsa elizbarrutiko kuriaren artxibo sekretuan inskribatuko da (1082. kan.).

**Eremu zibilari** dagokionez, dispentsa ezkontza-aurreko txostenean jasoko da (KZko 57 art.).

Badago dispentsa ezkontza ondoren eskatzeko aukera, baldin eta oraindik baliogabetasunik erabaki ez bada.

**Dispentsa kanonikoaren eraginkortasun zibila:** dispentsa kanonikoak zibilki homologagarriak dira. Honako baldintzak hauek bete beharko dira: ezkontza forma kanonikoan eginda egotea, dispentsa bi eremuetan komuna den eragozpen bati ematea eta dispentsa horren edukia Estatuko ordenamenduarekin kontraesanik ez sortzea. Nolabait, eta nahiz eta Eliza Katolikoarekin sinatutako akordioan dispentsei buruz aipamenik ez egin, baliogabetasun-erabaki kanonikoen homologazio zibilaren logika bera aplikatu daiteke hemen. Askatasun-erlijiosoak egikaritzea erraztu nahian, dispentsa ez da bi eremuetan eskatu beharko aukera hori aurrera eramanez.

#### **4. Ezkontza-eragozpenen banakako azterketa**

##### **A) Eremu kanonikoa**

**1. -Adina (1083. kan.):** Zuzenbide Kanonikoaren arabera, ezkontzeko gutxieneko adin legala 14 urte da emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat, 16 urte da. Ezkongaietariko batek baldintza hori betetzen ez badu, ezkontza baliogabea izango da. Eliz zuzenbidekoa izanik, eragozpena horri dispentsa eman dakioke.

**2. -Inpotentzia (1084. kan.):** kopula burutzeko ezintasunean oinarritzen da eragozpen hori (ez nahasi antzutasunarekin). Ezkontza aurretiazkoa izan behar du arazo horrek eta betierekoa (hots, sendaezina). Zuzenbide jainkotiarrekoa izanik, ezin da dispentsarik eman.

**3. -Ezkontza-lotura (1085. kan.):** indarrean dagoen aurretiazko ezkontza baliozko baten parte den pertsona ezingo da berriz ere ezkondu. Aurreko ezkontza horrek baliozkoa izan behar du Eliza Katolikoarentzat; hots, adibidez, katoliko batek egindako ezkontza zibila ez da baliozkoa izango eliza horrentzat, bai, ordea bataiatu gabeko bi

pertsonaren ezkontza zibila. Zuzenbide jainkotiarrekoa izanik, ezin da dispentsarik eman.

**4. -Kultu-desberdintasuna (1086. kan.):** Zuzenbide Kanonikoak ezkontza baliozkoa izateko bi ezkongaiak bataiatuta egotea galdatzen du. Ezkongaietariko bat bataiatu gabea izateak sortzen du ezkontza-eragozpen hori. Dena den, eragozpen hori eliz zuzenbidekoa izanik, dispentsa eman dakióke. Dispentsa lortzeko, alderdi katolikoak dispentsa emateko eskudunaren aurrean hitzeman behar du bere fedetik aldentzeko ez dela eta seme-alabak bataiatu eta fede katolikoaren printzipioei jarraituz hezteko bere esku dagoen guztia egingo duela. Modu berean, bataiatu gabeko ezkongaiari bere bikotekideak buruturiko adierazpenaren berri eman behar zaio. Azkenik, ezkongaiari ezkontza kanonikoaren ezaugarri eta helburuen berri emango zaie (1125.-1126. kanonak).

**5. -Ordenua Sakratua (1087. kan.):** Eliza katolikoaren barnean modu balizkoan ordenatu direnak (apaizak, parrokoak... ikus 1009. kan.) ezin dira kanonikoki ezkondu. Nahiz eta eragozpen hori betierekoa izan, eliz zuzenbidekoa izanik, dispentsa eman dakióke. Dispentsa Aita Santuak bakarrik eman dezake eta elizgizon-izaera galtzea ekarriko du automatikoki.

**6. -Boto Publikoa (1088, kan.):** betiereko kastitate botoa modu baliozkoan burutu dutenengan izango ditu efektuak eragozpen horrek. Betierekoa da, baina eliz zuzenbidekoa; beraz, dispentsa eman dakióke.

**7. -Bahiketa (1089, kan.):** eragozpen hori sortzen da indarra erabiliaz eta ezkontza burutzeko helburuarekin gizonezko batek emakumezko bat bahitzen duenean. Bahiketa amaitu eta gero, emakumezkoa aske izanik ezkontzea erabakiz gero, ez legoke eragozpenik. Eliz zuzenbidekoa denez, dispentsa eman dakióke.

**8. -Krimena (1090. kan.):** eragozpen hori sortzen da hilketa bat burutzen denean hildakoaren alargunarekin ezkontzeko asmoarekin edota hilketa alargun geratuko denak egiten duenean hirugarren batekin ezkontzeko. Betiere, erlazio zuzen batek egon behar du hilketaren eta ezkontza berriaren artean. Eragozpena sortzen da ezkontza berria

burutu nahi dutenetako bat hilketaren egilea edo gaizkidea bada. Eliz zuzenbidekoa da eragozpena eta dispentsa eman dakioko.

**9. -Odolkidetasuna (1091. kan.):** lerro zuzenean edozein mailatan odolokide direnak (aita-ama, seme-alabak eta abar) eta alboko lerroan 4. maila artekoak (lehengusuak) ezin dira elkarren artean ezkondu. Eliz zuzenbidekoa da eragozpena eta dispentsa eman dakioko alboko lerroko 3. (osaba-izeba eta iloben arteko ezkontza) eta 4. mailetan (lehengusuen arteko ezkontza).

**10. -Ezkontza-ahaidetasuna (1092. kan.):** baliozko ezkontza batetik sortzen den erlaziotik eratortzen da eragozpen hori eta beste ezkontidearen lerro zuzeneko odolokideengana hedatzen da. Eliz zuzenbidekoa denez, dispentsa eman dakioko.

**11. -Onestasan publikoa (1093. kan.):** Baliozkoa ez den ezkontzatik edota egitatezko elkarbizitza publikotik eratortzen da eta bikotearen lerro zuzeneko odolokideen lehen mailara luzatzen da. Eliz zuzenbidekoa denez, dispentsa eman dakioko eragozpen horri.

**12. -Ahaidetasun legala (1094. kan.):** adopzioetik eratortzen da eta adoptatuarengan aplikatzen da. Eragozpen hori adoptatzailearen familiaren lerro zuzenera eta alboko lerroko 2. mailara hedatzen da (hau da, adoptatua eta adoptatzailearen seme-alaba odolokideen artean ezingo da ezkontzarik egin). Eliz zuzenbidekoa denez, dispentsa eman dakioko

**\*Ezkontza burutzeko debekua (1124. kan.):** katoliko bat eta katolikoa ez den bataiatu bat (katolikoa ez den beste eliza kristau baten barne bataiatutakoei buruz ari gara, hots, adibidez, protestanteak eta ortodoxoak) ezkondu nahi dutenean sortzen da. Ezkontza baliozkoa izanik (2 bataiaturen arten delako), ez litzateke zilegi izango; zilegitasuna lortzeko, ordinarioaren lizentzia bat behar da. Lizentzia hori eman ahal izateko baldintzak honako hauek dira: alderdi katolikoak lizentzia emateko, eskudunaren aurrean hitzeman behar du bere fedetik aldenduko ez dela eta seme-alabak bataiatu eta fede katolikoaren printzipioak jarraituta hezteko bere esku dagoen guztia egingo duela. Modu berean, bataiatu gabeko ezkongaiari bere bikotekideak buruturiko

adierazpenaren berri eman behar zaio. Azkenik, ezkongai ei ezkontza kanonikoaren ezaugarri eta helburuen inguruan berri emango zaie (1125.-1126. kanonak).

**B) Eremu zibila:**

**1. -Adina (KZko 46.1 art.):** zibilki ezkontzeko adin legala 18 urte dira (Kode Zibilaren arabera, emantzipatutako adin txikikoak ere ezkondu ahal izango dira), baina, 14 urtetik aurrera, dispentsa eman dakiok (1. instantziako epaileak eman dezake dispentsa).

**2. -Ezkontza-lotura (KZko 46.2 art.):** zibilki baliozkoa den eta indarrean dagoen ezkontzatik sortzen da eragozpen hori. Ezin zaio dispentsarik eman.

**3. -Odolkidetasuna (KZko 47.1 eta .2 art.):** debekua lerro zuzenean eta alboko lerroko 3. mailako odolkideengana iristen da. Alboko lerroko 3. mailako odolkidetasun-erlaziotik (osaba-izeben eta iloben arteko ezkontza) eratortzen den eragozpenari dispentsa eman dakiok (1. instantziako epailea da eskuduna).

**4. -Ahaidetasun legala (KZko 47.1 art.):** adoptatuengan aplikatzen den eragozpena da eta adoptatzailearen lerro zuzeneko maila guztietara hedatzen da (beraz, eremu zibilean, adoptatuaren eta adoptatzailearen seme-alaba odolkideen arteko ezkontza baliozkoa da).

**5. -Krimena (KZko 47.3 art.):** norberaren ezkontidea edo ezkontza berria burutu nahi duen pertsonaren ezkontidearen hilketak sortzen du eragozpena. Ekintza horren egilea edo haren gaizkidea izango da; ezkongai berrietako bat bakarka edo bi ezkongai berriak ari daitezke lankidetzan. Parte-hartze horrek epai judizial irmo baten bitartez frogatua behar du izan. Eragozpen horri dispentsa eman dakiok (Justizia Ministroa da eskuduna).



**5. Dispentsarik jaso ez duen eragozpen batean oinarrituriko ezkontza-deuseztasuna erabakitzen duten eliz epaien homologazio zibila.**

Dispentsatu gabeko eragozpen batean oinarrituriko ezkontza-deuseztasuna erabakitzen duten eliz epaien homologazio zibila posible izateko, erabaki horren edukiak bat etorri behar du Estatuko ordenamendu juridikoarekin. Ez da horrela gertatuko deuseztasuna sortu duen eragozpena ordenamendu juridikoan jaso ez baldin bada. Adibidez, ezkontide baten betiereko eta ezkontza aurreko inpotentziak, onestasan publikoak, ordena sakratu izateak edo betiereko kastitate-boto publikoa egiteak, besteak beste, ez dute eraginik eremu zibilean eta, beraz, ezkontza-deuseztasuna erabakitzen duen eliz epaia horrelakoetan oinarritzen baldin bada, hori ezingo litzateke zibilki homologatu.

Beste kasu batzuetan, nahiz eta ezkontza deuseztatzen duen eragozpen zehatza bi eremuetan agertu, haren ezaugarriak desberdinak izan daitezke arlo kanonikoan eta zibilean, eta horrek homologazioa oztoka dezake. Adibidez, krimenaren kasuan, eremu zibilean galdatzen da epai irmo baten bitartez frogatu behar dela ezkongai batek edo biek hilketan parte hartu izana. Ez da halakorik gertatzen arlo kanonikoan. Beraz, eliz erabaki batek epai irmo baten bitartez frogatua ez den krimenaren eragozpenagatik ezkontza zehatz bat deuseztatzen baldin badu, hori ezingo litzateke zibilki homologatu, ordenamendu juridikoan ezartzen diren baldintzak ez baitira betetzen.

## **7. IKASGAIA. EZKONTZA-ADOSTASUNA EZKONTZA-SISTEMA KANONIKO ETA ZIBILEAN**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1. Ezkontza-adostasuna**

#### **2. Baliozko ezkontza-adostasuna emateko gaitasuna**

##### **A) Ezkontza kanonikoa:**

-Ezkontza-adostasuna emateko gaitasunaren elementuak:

- \*Ezaguera nahikoa (97.-99. kanonak)
- \*Adimen-zuhurtasuna (1096. kan.)
- \*Ezkontzaren oinarrizko betebeharrak bere gain hartzeko gaitasuna

-Ezkontza-ezgaitasuna aitortzeko baldintzak:

- \*Ezgaitasunerako arrazoa ezkontza aurretikoa izatea eta ezkontza burutzen den garaian eragitea
- \*Larritasun nahikoa izatea borondate-ahalmenak baldintzatzeko edota ezkontza-paktuaren bitartez konprometitzeko ahalmena ezeztatzeko
- \*Ezkontza-arloari eragitea

-Ezkontza-ezgaitasunaren kasuak (1095. kan.)

- \*Ezaguera nahikoa ez izatea (1095.1 kan.)
- \*Ezkontzaren oinarrizko eskubide eta betebeharren inguruko adimen-zuhurtasunaren gabezialarria (1095.2 kan.)
- \*Arrazoi psikikoengatik ezkontzaren oinarrizko betebeharrak bere gain hartzeko ezintasuna (1095.3 kan.)
- \*Behin-behineko buru-nahasteak

##### **B) Ezkontza zibila:**

-Negozio juridikoetan adostasuna adierazteko gaitasunaren erregela orokorra (KZko 1263. art.)

-Ezkontza zibilaren arloko arau bereziak (KZko 48. eta 56. artikulua)

**D) 1095. kanonean agertzen diren ezgaitasun-kasuetan oinarritutako deuseztasunaren eliz epaiaren homologazio zibila**

**3. Adostasuna adieraztea:** Adostasuna pertsonalki (edo ahalordez) adieraztea hitzez edo keinuz egindakoa (1104. kan. eta KZko 58. art.)

**4. Ahalordez buruturiko ezkontza**

A) Ezkontza kanonikoa (1104.-1105. kanonak)

B) Ezkontza zibila (KZko 55. art.):

**II. IKASGAIA GARATUTA**

**1. Ezkontza-adostasuna**

Adostasuna ezkontza negozio juridikoaren oinarritzko elementua da bi eremuetan (1057. kan., KZko 45. art.). Adostasunik gabe ez dago ezkontza baliozkorik. Ezkongaien adostasuna ezinbesteko da, baina ez beti nahikoa.

Ezkontza baliozkoa izateko, barne-borondateak eta kanpo-adierazpenak bat etorri behar dute. Ezkongaien adostasuna da ezkontzaren gakoa da, ezkongaiak modu kontzientean eta askean eman behar dena. Bi baldintza horiek betetzen ez baldin badira, adostasunaren adierazpena ez da baliozkoa izango.

Ordenamendu juridikoak, eremu kanonikoan zein zibilean, ezkontza-adostasuna emateko, gaitasun-baldintza zehatz batzuk betetzeko eskatzen die ezkongaiari. Adostasuna emateko gaitasunari garrantzi berezia ematea ezkontzaren objektua ezkongaiak berak izatean oinarritzen da.

## 2. Baliozko ezkontza-adostasuna emateko gaitasuna

### A) Ezkontza kanonikoa

Eremu kanonikoan, gaitasunaren inguruko 3 baldintza eskatzen -adostasuna modu baliozkoan emateko; honako hauek dira **ezkontza-adostasuna emateko gaitasunaren elementuak**:

**-Ezaguera nahikoa:** norberaren buruaren eta ekintzen jabe izatea esan nahi du (99. kan.). Uste da 7 urtetik aurrera lortzen dela gaitasun hori (97.2 kan.). Ezaguera nahikoa izanik, zenbait negozio juridiko burutu daitezke, baldin eta arauak beste elementu gehigarriak eskatzen badute. Hala gertatzen da ezkontzaren negozio juridikoan, ezaguera ezkontza burutzeko ezinbesteko gaitasun baldintza da, baina ez nahikoa.

**-Adimen-zuhurtasuna (1096. kan.):** ezkontzaren ezaugarri nagusiak (hau da, *ezkontza gizonezko eta emakumezko baten artean sortutako betiereko elkarte bat da, nolabaiteko lankidetzaz sexual zehatz baten bitartez seme-alabak izatera bideratuta dagoena*) eta ezkontzatik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak (1055., 1056. eta 1057. kanonak) ezagutzeko, hauen inguruko balioespen kritiko bat egiteko eta negozio horrek dakarren konpromiso mailaz jabetzeko gaitasuna da.

Arlo kanonikoan uste da adimen-zuhurtasuna pubertaroan lortzen dela. Arrazoi horrengatik, Kode Kanonikoan, ezkontza egiteko gutxieneko adina 14 urtetan ipini da emakumezkoen kasuan eta, gizonezkoen kasuan, 16 urtetan.

**-Ezkontzaren oinarriko betebeharrak bere gain hartzeko gaitasuna:** ezkontzeko egokitasunari egiten dio erreferentzia kontzeptu horrek. Aurreko gaitasunen jabe izateaz gain, ezkontzatik eratortzen diren betebeharrak norberaren gain hartzeko gaitasuna galdatzen da. Horrekin frogatu nahi da ezkongaiak pertsona egokia dela ezkontza kanonikoa burutzeko. Ezkontza kanonikoak dakartzan betebeharrei aurre egin ezin diezaieketen pertsonak ezin dute horiek bere gain hartzeko konpromisoa hartu.

Ezkontza-egaitasunaren kasuak aztertu aurretik, **ezkontza-egaitasuna aitortzeko nahitaezko baldintzak** aipatu behar ditugu:

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

\*Ezkontzaren ezgaitasun-arrazoia ezkontza aurretikoa izateaz gain, ezkontza burutzen den garaian, eragina izan behar du. Ezgaitasuna sortu duen gaitza ezkontza aurretikoa zela frogatuz gero, jotzen da ezkontza burutzen den garaian efektuak zituela. Kontrakoa, hau da, gaitza sufritzen duenak ezkontza buru-argitasunaren une batean burutu duela, frogatu beharko da. Hala izanez gero, ezkontza baliozkoa litzateke.

\*Gaitzak larritasun nahikoa izan behar du buru- edo borondate-ahalmenak baldintzatzeko edota ezkontza-paktuaren bitartez konprometitzeko ahalmena ezeztatzeko.

**Ezkontza ezgaitasunaren 3 kasuak** Kode Kanonikoaren 1095. kanonean agertzen dira. Gaitzaren larritasuna kontuan izanik mailakatzen dira, lehengoak kasu larrienei erreferentzia egiten diolarik eta azkena, arinenari:

**-Ezaguera nahikoa ez izatea (1095.1 kan.):** gaixotasun psikiko larrienek sortuko dute ezgaitasun mota hori. Hain zuzen ere, beren eraginez gure adimena 7 urteko haur batenaren azpitik utz dezaketenak. Kasu honetan aipatzen den adibideetako bat oligofrenia da.

**-Ezkontzaren oinarrizko eskubide eta betebeharren inguruko adimen-zuhertasunaren gabezialarria (1095.2 kan.):** gaitz psikiko batek ezkontzaren ezaugarri nagusiak eta horretatik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak ezagutzea, haien inguruko balioespen kritiko bat egitea eta negozio horrek dakarren konpromiso mailaz jabetzeko gaitasuna mugatu edo ezeztatzen duenean izango du ezgaitasun mota horren kasu bat. Eskizofreniak, adibidez, eragin dezake ezgaitasun hori.

**-Arrazoi psikikoengatik ezkontzaren oinarrizko betebeharrak bere gain hartzeko ezintasuna (1095.3 kan.):** nahiz eta ezaguera nahikoa eta adimen-zuhertasuna izan, arrazoi psikikoengatik ezkontzatik eratortzen diren betebeharrak bere gain hartzeko eta, beraz, horiek bete ahal izateko gai ez direnak sartuko dira kasu horren barnean. Hemen, eliz doktrinak eta jurisprudentziak hainbat gaitz barneratu dituzte, hala nola ninfomania, drogazaletasuna eta alkoholismoa. Heldutasun falta ere bideratu izan da ezkontza-ezgaitasunaren kasu horretara zenbaitetan.

\***Behin-behineko buru-nahasteak** (drogen edo alkoholaren eraginez sortua, ezkontza-adostasuna hipnosiaren eraginpean gertatu denean) ere erakar dezake ezkontza burutzeko orduan ezkongaiia baliozko adostasuna emateko ezgai izatea. Buru-nahasteak eragin duen nahasmen maila kontuan hartuz, ezgaitasun-kasu batean edo bestean sartuko dugu.

## **B) Ezkontza zibila**

**-Negozio juridikoetan adostasuna adierazteko gaitasunaren erregela orokorra** (KZko 1263. art.): emantzipatu gabeko adin txikikoek eta ezgaituek ezin dute baliozko adostasunik eman.

**-Ezkontza zibilaren arloko arau bereziak:** adinari dagokionez, ezkontzaren negozio juridikoaren kasuan, Kode Zibilak dio 14 urtetik aurrera eta dispentsa bitartez adin txikikoek ezkontza modu baliozkoan burutu dezaketela (48. art.).

Bestalde, Kode Zibilaren 56. artikulua dioenez, ezkongaiiek arau horrek eskaturiko ezkontzeko gaitasuna frogatu beharko dute ezkontza-espeditentean. Espeditentearen arduradunak sumatuko balu ezkontzan ezkongaietarikoren bat ezgaitasun-kasu baten menpe egon daitekeela, Ministerio Publikoari jakinarazi beharko dio, horrek ezgaitze-prozedura bultzatuz dezan (Prozedura Zibilaren Legearen 757.3 art.). Ezgaitzea erabaki judizial baten bitartez bakarrik aitortu ahal izango da (KZko 199. art.).

## **D) 1095. kanonean agertzen diren ezgaitasun-kasuetan oinarritutako deuseztasunaren eliz epaiaren homologazio zibila:**

Doktrinaren esanetan, Kode Kanonikoaren 1095. kanonean agertzen diren bi lehenengo ezgaitasun-kasuetan –hots, ezaguera nahikoa ez izatea eta ezkontzaren oinarrizko eskubide eta betebeharren inguruko adimenaren zehaztasun-gabezialarria izatea– oinarritutako ezkontzaren deuseztasun-erabakiak zibilki homologatzeko arazorik ez legoke. Bi kasu horietan bildutako gaitza psikikoek eremu zibilean ezkontza-adostasuna emateko ezgaitasuna sortuko dute. Ezkontza kanonikoa eta zibila burutzeko

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

pertsonaren ezagutza-, balioespen- eta borondate-ahalmenak larriki mugatuak egongo dira kasu horietan.

Aldiz, 1095. kanonaren 3. zenbakian aipatzen den ezgaitasun-kasuan –hots, arrazoi psikikoengatik ezkontzaren oinarrizko betebeharrak bere gain hartzeko ezintasuna– oinarritutako ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakiak ezingo dira inolaz ere ez zibilki homologatu.

Aurreko gaietan azaldu dugun bezala, eremu kanonikoan eta eremu zibilean, ezkontzaren kontzeptuak oso desberdinak dira; horren ondorioz, ezkontza kanonikoko betebeharrak eta ezkontza zibiletik eratortzen diren eginbeharrak ere zeharo desberdinak dira. Beraz, ezkontza kanonikoan zehazten diren betebeharrak norberaren gain hartzeko ezintasunak ez du erlazorik ezkontzaren zibilaren betebeharren inguruko gorabeherekin. Are gehiago, ezkontza zibilaren kasuan, negozio horretatik eratortzen diren betebeharrak baztertzeak ez du ezkontza-adostasuna baliogabetzen. Arrazoi horiengatik, 1095. kanoneko hirugarren kasuan oinarritutako ezkontza-deuseztasunaren epaiak ezingo dira zibilki homologatu.

### **3. Adostasuna adieraztea**

Gehiagi luzatu gabe, bi eremuetan, ezkongaiak ezkontza-adostasunaren adierazpena pertsonalki edo ahalordez egin beharko dute, eta adierazpena hitzez edo keinu argiz egin beharko da (KZko 58. art. eta Kode Kanonikoaren 1104. kan.).

### **4. Ahalordez buruturiko ezkontza**

Hainbat arrazoiengatik, ezkongaiak gainditu ezineko oztopoak izan ditzakete ezkontza egiten ari den lekuan eta unean pertsonalki agertzeko. Kasu horietarako eta ezkontza gauzatu ahal izateko, ordenamendu zibilak eta kanonikoak ezkontza-adostasuna ahalorde bitartez adierazteko aukera ematen dute.

#### **A) Ezkontza kanonikoa (1104.-1105. kanonak)**

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

1104. kanonak aipatzen duenez, ezkontza burutzeko, bi ezkongaiak pertsonalki edo ahalordez aurkeztu beharko dute ezkontza hori egingo den tokian.

Ezkontza-adostasuna ahalordez adierazi ahal izateko, 1105. kanonaren arabera, agindu berezi batean formalizatu beharko da ahalordetzea. Ahalordetzea dokumentua eliztarra, zibila edo pribatua (bi lekukoen aurrean sinatutakoa) izan daiteke eta, hor, agindua jasotzen duen pertsona zehaztu beharko da. Ahalordetze pertsonala jasotzen duenak burutu beharko du eginkizun hori, eta ezingo dio hirugarren bati utzi.

Agindu-emaileak ezkontza burutu aurretik ahalordetzea ezeztatzen badu edo ezgaitzen bada, ezkontza deuseza izango da, nahiz eta beste ezkongaiak edo ahalordeak inguruabar hori ezagutu ez.

### **B) Ezkontza zibila (KZko 55. art.)**

Ezkontza aurreko espedientean, ezkongaietariko batek bere ezkontza-adostasuna ahalordez adierazteko baimena eman daiteke, baldin eta beste ezkongaiak ezkontza egiten ari den tokian badago.

Ahalordetzea agindu berezi baten bitartez burutuko da; hor, ahalordea identifikatzeko behar diren datu guztiak zehaztuko dira.

Kode Zibilaren 55. artikulua arabera, ahalorde-ematea agindu-emailearen erabakiaz, ahalordearen ukoaz eta agindu-emailearen edo ahalordearen heriotzaz iraungi ahal izango da.

Eremu kanonikoan, bi ezkongaiak eman dezakete ezkontza-adostasuna ahalorde bitartez; eremu zibilean, berriz, ezkongai batek, behintzat, ezkontza egiten den tokian eta unean bertan egon beharko du pertsonalki adostasuna adierazteko. Beraz, ezkontza kanonikoa bi ahalorde bitartez egiten bada, hori ezingo da erregistro zibilean inskribatu, ordenamendu zibilaren oinarritzko arauen kontra baitago.



## **8. IKASGAIA: ADOSTASUNA EZKONTZA-SISTEMA KANONIKO ETA ZIBILEAN (II): ADOSTASUN FALTA**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1. Adostasun falta ezkontza-deuseztasunaren kasu gisa**

#### **2. Indarkeria fisikoa**

-A) **Ezkontza kanonikoa** (125. eta 1103. kanonak): kanpoko indar fisiko jasanezin baten eraginez ezkongai batek adostasuna adierazten duelako keinua egitea.

B) **Ezkontza zibila** (KZko 1265., 1267. eta 73.1 artikulak): ezkontza arloan espresuki agertu ez, baina bai kontratuen deuseztasun-kasu orokorren artean.

C) **Indarkeria fisikoan oinarrituriko ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakien homologazio zibila**

#### **3. Simulazioa**

A) **Ezkontza kanonikoa** (1101. kan.):

-Simulazio motak:

\*Aldebakarrekoak/aldebikoa

\*Erabatekoa /partziala

-Ezinbesteko froga-elementua: borondatearen egintza positiboa

-Erabateko simulazioa:

\*Negozioa bera baztertzeko da

\*Frogarako oinarritzko elementuak:

.Borondatearen egintza positiboa.

.*Causa simulandi*.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

.Aurreko, oraingo eta ondorengo inguruabarrak.

-Simulazio partziala:

\*Ezkontzaren oinarrizko elementu edo propietate bat baztertzea

\*Eskubidearen eta beraren egikaritzaren arteko desberdintasuna.

\*Simulazio partzialaren motak:

+Ezkontzaren oinarrizko elementu bat baztertzea:

.*Ius in corpus + bonum prolisa* baztertzea (1055. eta 1061.1 kanonak)

.Sakramentu-duintasuna baztertzea (1055.2 kan.)

.Bizitza-elkartea baztertzea

+Ezkontzaren oinarrizko propietate bat baztertzea:

.Batasuna eta fideltasuna (*bonum fidei*) baztertzea (1055. eta 1056. kanonak)

.Desegiteko ezintasuna (*bonum sacramenti*) baztertzea (1056. kan.)

### **B) Ezkontza zibila (KZko 73.1 art.)**

\*Simulazio motak:

+Aldebakarreko/aldebiko simulazioa

+Erabateko simulazioa, partziala hemen ez da posible

\*Aldebiko erabateko simulazio: bi alderdiek ez dute ezkondu nahi

\*Aldebakarreko simulazio erabatekoa edo erreserba erabatekoa: kontratuen teoria orokorrean, buru-erreserbaren eragin juridiko eza ez da aplikatzen ezkontzaren kasuan

### **C) Simulazioan oinarrituriko ezkontza-deuseztasunaren eliz epaien homologazio zibila**

## **II. IKASGAIA GARATUTA**

### **1.Adostasun falta ezkontza-deuseztasunaren kasu gisa**

Adostasuna ezkontza negozio juridikoaren oinarrizko elementua da bi eremuetan (1057. kan., KZko 45. art.). Adostasunik gabe ez dago ezkontza baliozkorik.

Ezkontza baliozkoa izateko, barne-borondateak eta kanpo-adierazpenak bat etorri behar dute. Gauza bera gertatu behar da ezkongaiak nahi dutenaren eta ordenamendu juridikoak negozio juridiko horri efektu juridikoak aitortzerakoan bilatzen duen helburuaren artean. Baina benetako gakoa, beti, ezkongaien adostasuna da, ezkongaiak modu kontzientean eta askean eman behar dutena. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, adostasunaren adierazpena ez da baliozkoa izango.

Ordenamendu zibilak eta kanonikoak adostasun faltaren bi kasu aurrikusten dituzte: indar fisikoa eta simulazioa. Kasu horietan, ezkontza deuseza da, nahiz eta kanpo-eremuan ezkontza-adostasuna itxuraz adierazi barne-eremuan –hots ezkongaiaren benetako borondatea– ez baita adostasunik .

### **2. Indarkeria fisikoa**

Indarkeria fisikoaren kontzeptuaren definizioa bera da bi eremuetan: kanpoko indar fisiko jasanezin baten eraginez ezkongai batek bere ezkontza-adostasuna adierazten duelako keinua egiten du. Itxuraz, bere adostasuna adierazi du kanpo-eremuan, baina beraren barne-borondatea beste zentzu batekoa izan zitekeen.

#### **A) Ezkontza Kanonikoa (125. eta 1103. kanonak)**

Kode Kanonikoaren 125.1 kanonak dioenez, indar fisiko jasanezin baten eraginez buruturiko egintzek ez-burututzat joko dira. 1103. kanonera joaten baldin bagara, horretan, indar fisikoari egiten zaio erreferentzia ezkontza-deuseztasunaren kasu gisa. Bi kanon horien irakurketatik eratortzen da indarkeria fisikoak ezkontza deuseztatu dezan baldintza hauek bete beharko direla:

-Indarkeria fisikoa behar da.

-Pertsona batek eragin behar du indarkeria ezkongai batengan

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

-Indarkeria hori ezkongaiaren adostasuna adierazteko erabil daitezkeen organoetan eragin behar da.

-Jasanezina izan behar du. Baldintza hori subjektiboki aztertu beharko da, hau da, jasaten duen pertsonaren arabera balioetsi behar da.

Kasu hori nahiko artifiziala da, arauetan agertzen da, baina praktikan kasuaren bat aurkitzea ia ezinezkoa da.

### **B) Ezkontza Zibila (KZko 1265., 1267. eta 73.1 artikulak)**

Indarkeria fisikoa ez da espresuki aipatzen Kode Zibilaren 73. artikuluan ezkontza-deuseztasunaren kasu gisa, baina bai, ordea, modu orokorrean kontratuen deuseztasun-arrazoi gisa (1265. eta 1267. artikulak). Artikulu horietan aipatzen da indarkeriak jasanezina izan behar duela eta subjektiboki aztertu behar dela. Dena den, ezkontzari dagokionez, bereziki, indarkeria 73.1 artikuluko kasuaren barnean legoke, kasu horietan ez baitago benetako ezkontza-adostasunik.

### **D) Indarkeria fisikoan oinarrituriko ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakien homologazio zibila**

Kode kanonikoan aurreikusten den indarkeria fisikoaren kontzeptuan oinarritutako ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakiaren homologazio zibila lortzeko ez dago oztoporik, bi eremuetan, kontzeptu horren definizioa bera baita. Halaber, indarkeriak adostasuna ezeztatzen du eta, bi eremuetan, adostasunik gabe buruturiko ezkontza deuseza dela zehazten da.

## **2. Simulazioa**

Simulazioan barne-borondatearen eta kanpo-adierazpenaren edo alderdien borondatearen eta ordenamendu juridikoaren nahiaren arteko kontraesan bat gertatzen da, baina hori jakitun izanda eta nahita egiten da.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Dena den, hemen, erabateko simulazioa eta simulazio partziala bereizi behar ditugu.

Erabateko simulazioan ez dute ezkontza bera nahi, ezkontzatik eratortzen diren efektuak baizik. Ezkontza-itxura erabili nahi da bestelako onura batzuk lortzeko (naziotasuna, etab.). Ezkontza benetako borondaterik gabe eta bestelako ondorioez onurarik ateratzeko asmorik gabe egingo balitz, ez legoke simulazio erabatekorik, *iocandi causa* erabateko desadostasuna baizik.

Beste kasu batzuetan, ezkontza nahi izatea posible da, baina ez ordenamenduak legalki eratzen duen bezala, hau da, kontraesan bat legoke ezkongaiak nahi dutenaren eta ordenamenduren arauketaren artean.

### A) Ezkontza Kanonikoa (1101. kan.)

Lehen aipatu dugun simulazioaren definizioa guztiz aplikagarri da eremu kanonikoan. Beraz, simulazioa, zuzenbide kanonikoaren ustez, ezkongaiaren edo ezkongaien barne-borondatearen eta kanpo eremuan adierazitakoaren arteko desadostasuna da. Kontraesan hori gertatzen dela frogatuz gero, simulazioaren adierazpen guztiek ezkontza kanonikoaren deuseztasuna ekarriko dute.

Eremu kanonikoan, simulazioen honako **sailkapen** hauek egin daitezke:

**-Aldebakarreko/aldebiko simulazioak:** simulazioa ezkongai bakar batek egin dezake, beste ezkongaiarekin halako kontraesanik egon gabe. Dena den, posible da ezkongai biek, bakoitzak bere aldetik, simulazio modu independentean ere hori burutzea; kasu horretan, nolabaiteko aldebakarreko simulazio bikoitza izango da. Bestalde, bi ezkongaiak simulazioa egitea posible da, biek hala adostuta. Azken adibidean, aldebiko simulazio bat genuke.

**-Erabateko simulazioa/simulazio partziala:** lehenengo kasuan, ezkontza bera ez dute nahi; ezkontza egiten da negozio horretatik eratortzen den efekturen batetik onura lortzeko. Bigarren kasuan, ezkongaiak/ek ezkontza nahi du/dute, baina beren ezkontza-kontzeptua aplikatuaz, hots, zuzenbide kanonikoak ezkontzaren oinarritzko

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

elementu edo propietate gisa zehazten dituen elementuetako bat baztertuaz. Kasu horretan, eremu horretan ulertzen da ezkontza kanoniko bera baztertzen dela.

Edozein kasutan, simulazioa gertatu dela frogatzeko oinarritzko elementua simulazioa burutzeko **borondatearen egintza positiboa** izango da, hots, frogatu behar da ezkontza bera edo horren propietate edo elementuren bat baztertu nahi izateko borondatea edo nahia dagoela, ez baita aski hala uste izatearekin.

**-Erabateko simulazioa:** aurrez esan bezala, simulazioa egiten duen/duten ezkongaiak/ek ezkontza-adostasuna ematen dute itxuraz, baina ez dute ezkontza benetan burutu nahi, baizik eta horretaz baliatu bestelako helburuak lortzeko. Kasu horietan, ez dago, beraz, ezkontza-adostasunik eta ezkontza deuseza da.

Erabateko simulazioa frogatzeko, lehen esan bezala, frogatu beharko da **borondatearen egintza positibo** bat gertatu dela (hots, ezkontza baztertzea nahita egindako ekintza bat dela). Modu berean, *causa simulandi* edo simulazioa burutzeko arrazoi batek egon beharko du. Hau da, ezkontzaren itxura zein helburu lortzeko egin den ezagutu behar da. Ezkontzaren erabilera hori gabe ez legoke erabateko simulaziorik, *iocandi causa* erabateko desadostasuna baizik (kasu horretan ere, noski, adostasunik ez dagoenez, ezkontza deuseza litzateke). Bai egintza positiboa zein simulazioa burutzeko arrazoa frogatu ahal izateko, ezkontza horren inguruan izandako **aurreko, oraingo eta ondorengo inguruabarrak** aztertu beharko dira.

**-Simulazio partziala:** zuzenbide kanonikoan definitzen den simulazio partzialean, ezkontzaren oinarritzko elementu edo propietate bat baztertzen da. Ezkongaiak/ek bere/bereren ezkontzaren kontzeptua aplikatu eta inposatu nahi du/te ezkontza legalak zehazten duen ereduaren gainetik, baina horiek nahitaezko betebeharreko xedapenak dira ezkongaiantzat. Ezkongaiak ezin dute ezkontza-erregimena beren nahierara aldatu. Dena den, gerta daiteke ezkongaiak/ak bazterketa horren eta, beraz, zuzenbide kanonikoarekin sor daitekeen kontraesanaren jakitun ez izatea. Hau da, ezkontza kanonikoaren propietatea eta elementua baztertzen da, jakin gabe zuzenbide kanonikoarentzat izaera hori duela.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Eremu kanonikoan ulertzen da ezkontza kanonikoaren oinarrizko ezaugarrietariko bat baztertu nahi baldin bada ezkontza bera baztertzen dela.

Ezkontzaren oinarrizko elementu edo propietateen bazterketaren inguruan gerta daiteke ezkongaiak/ek baztertu nahia izatea, baina ezkondu ondoren horrelakorik ez egitea. Gerta daitekeen beste kasu bat zera da: ezkontzaren une zehatz batean ezkontzaren propietate edo elementuren bat baztertzea, nahiz eta printzipioz ezkontza egiterakoan hori errespetatzeko borondatea izan. Lehenengo kasuan bakarrik legoke benetako simulazio partziala.

Azken finean, simulazio partzialagatik ezkontza deuseztatzeko eskatzen dena ezkontza burutzen den garaian ezkontzaren oinarrizko propietate edo elementuren bat baztertzeke nahia da. Hau da, elementu edo propietate hori errespetatzeko betebeharra ez betetzeko borondatea da funtsezko elementua, eta berdin da gero efektiboki bazterketa hori gertatzen den ala ez. Horrela, kontrako kasuan, ez da simulaziorik gertatuko, ezkontza burutzen den garaian betebeharra errespetatzeko borondatea baldin badago, nahiz eta ezkondu ondoren uneren batetan asmo hori bete ez.

Baztertzen den ezkontzaren oinarrizko elementu edo propietatearen arabera, eremu kanonikoan, hainbat **simulazio partzial** aurki ditzakegu:

### **+Ezkontza kanonikoaren oinarrizko elementuak baztertzea:**

*.Ius in corpus + bonum prolisa baztertzea* (1055. eta 1061.1 kanonak): ezkontza kanonikoaren helburuetariko bat ezkontideen lankidetzaren sexuala bitartez seme-alabak izan eta horiek hezteko da. Beraz, simulazio partziala izango dugu seme-alabak izateko helburua duten harreman sexualak baztertzen baldin badira edota, harreman horiek edukiaz, seme-alabak izatea baztertzen baldin bada (hori gerta ez dadin dagozkion neurri antisorgailuak hartuz adibidez). Simulazio partziala egongo da, halaber, seme-alabak izatea baztertzen ez bada, baina bai koittoa bera (hau da, seme-alabak ernalketa artifizialaren bitartez izaten direnean).

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Simulazio kasu horretan, betebeharrak hori praktikan ez betetzea ezkontza burutzerakoan horren bazterketa gertatu delako izango da normalean.

**.Sakramentu-duintasuna baztertzeara** (1055.2 kan.): ezkontzak sakramentu izaera du eremu kanonikoan. Sakramentu-izaera hori baztertzeara bada gertatuko da simulazio mota hori. Sakramentu-izaera hori ezkontza kanonikoaren kontzeptuari modu banaezinean lotuta dagoenez, zenbait autorek diote simulazio partziala bat baino erabateko simulazio bat dela

Bazterketa hori gerta daiteke, adibidez, fedea galdu duen katoliko batek ezkontza kanonikoa egiten badu horrek efektu eta baliozkotasun zibilak izan ditzan bakarrik.

**.Bizitza-elkartearen baztertzeara:** ezkontza kanonikoak ezkontzideen arteko bizitza-elkarte bat sortzen du. Bi ezkontzideen artean, batasun material eta espiritual bat gertatu behar da. Bizitza-elkarte horien baztertzeara litzateke, adibidez, ezkontzideek beren erlazioa harreman sexualetara mugatzeko nahia izango balute, bestelako erlazio pertsonalak eta elkarrenganako betebeharrak baztertuaz.

### +Ezkontza kanonikoaren oinarriko propietateak baztertzeara :

**.Batasuna eta fideltasuna (*bonum fidei*) baztertzeara** (1055. eta 1056. kanonak): batasuna ezkontza kanonikoaren oinarriko propietate bat da eta fideltasuna horren oinarriko betebeharrak bat. Biak elkarturik daude, modu oso estuan erlazionaturik. Bietako bat baztertzeara bestea ere baztertzeara ekarriko du aldi berean.

Batasuna baztertzeara litzateke, adibidez, ezkontzideetako batek ezkontzaren kontzepzio ez-monogamikoa balu (adibidez, ezkontzidea musulmana izanik). Hala posible litzateke ezkontzide horrek ezkontzerakoan batasunaren propietatea baztertzeara, uste baitu ezkontzak eta haren ezkontzideek ez dutela zergatik bakarrik izan.



## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Batasuna baztertua ez da maiz gertatuko den simulazio partzialaren kasu bat. Fideltasuna baztertua, praktikan, errazago gertatuko da. Fideltasunaren kasuan, simulazio partziala gertatuko da ezkontza egiterakoan fideltasunaren betebeharra baztertu bada, hau da, beste ezkontideari fidela izateko asmorik ez badago. Simulaziorik ez legoke, lehen aipatu ditugun irizpideen arabera, betebeharrak hori errespetatzeko borondatea izanik fideltasuna ezkondu ondoren mantentzen ez bada.

**.Desegiteko ezintasuna (*bonum sacramenti*) baztertua** (1056. kan.): ezkontza kanonikoa ezin da desegin. Zuzenbide kanonikoak ez die ezkontideei bere borondatez ezkontza desegiteko aukerarik ematen. Arlo kanonikoan ez dago dibortzio zibilaren parekorik. Hala, ezkontide batek edo biek ezkontzaren propietate hori ezkontza burutzeko garaian baztertu gero, simulazio partziala gertatuko litzateke. Ildo horretan, nahikoa litzateke, besteak beste, ezkontza-bizitza arrakastatsua ez izanez gero dibortzio zibila lortzeko aukeraren inguruko borondatea izatea.

### **B) Ezkontza Zibila (KZko 73.1 art.):**

Eremu zibilean, simulazioari ez zaio aipamen espresurik egiten ezkontza-deuseztasuneko kasu gisa. Baina simulazioan ezkontza-adostasunik ez dagoela jotzen baldin bada, orduan uler daiteke kasu horiek Kode Zibilaren 73.1 artikuluan aipatzen den kasuan sar daitezkeela. Kasu horretan adostasunik gabeko ezkontzak deusezak direla esaten da; dakigunez, adostasunik gabe ez dago ezkontzarik (KZko 45.1 art.).

Eremu zibilean, simulazioaren kontzeptua lehen aipaturiko definizioarekin bat dator; hau da, kasu horietan, ezkongaiaren/ezkongaien barne-borondatearen eta adierazitakoaren arteko kontraesana sortzen da.

Simulazio motei dagokionez, eremu kanonikoan bezala, **aldebakarreko edo alde biko simulazioak** aurkituko ditugu, simulazioa ezkongai batek edo biek egiten duten. Modu berean, **erabateko simulazioak** ere egongo dira, baina **ez**, ordea, **simulazio partzialik**. Ezkontza zibilaren eskubide eta betebeharrak Kode Zibilaren 66.,

67. eta 68. artikuluetan zehazten dira eta horiek bazterteak juridikoki ez du inolako eraginik ezkontzaren baliozkotasunari dagokionez.

Aztertu ditzagun ezkontza zibilaren deuseztasuna erakar dezaketen simulazio kasuak-:

**-Aldebiko erabateko simulazioa:** bi alderdiek ez dute ezkontza bera nahi, ezkontzatik eratortzen den efektuaren baten onura baizik. Zalantzarik ez dago hemen. Ezkongaiaren aldetik ez dago ezkontza-adostasunik eta, beraz, 73.1 artikulua dioen bezala, ezkontza deuseza izango da.

**-Aldebakarreko erabateko simulazioa edo erabateko erreserba: eremu zibilean,** kontratuen teoria orokorrera jotzen badugu, ikusiko dugu hor buru-erreserbaren eragin juridiko eza ezartzen dela. Negozio juridiko bat burutzen denean, ordenamenduari berdina zaio zein den kontratu-egileen barne-borondatea, buruturiko negozioan hartutako konpromiso juridikoak baizik. Buru-erreserbari efektu juridikoak aitortuz gero, lege-iruzurrari lekua irekiko litzaioke eta segurtasun juridikoa galduko litzateke, negozio juridikoaren baliozkotasuna eta ezarritako eginkizunen betetzea alderdien barne-borondatearen esku utziko bailirateke.

Ezkontzaren kasuan, gauzak desberdinak dira. Ezkontzaren objektua, beste ezkongaiari eskaintzen zaiona, pertsona bera da. Arrazoi horrengatik ez du zentzurik ezkontza baliozkotzat ematea alderdi batek ezkontza benetan nahi ez duenean; pertsona hori ezin da behartu beste ezkontidearekin bizitza-elkarte bat sortzera, hots, bere burua beste ezkontideari eskaintzera. Beraz, kontratuen teoria orokorraren salbuespen gisa, ezkontzaren kasuan, aldebakarreko simulazio erabatekoak eragin juridikoa izango du, eta negozio juridiko hori deusez bihurtu.

### **C) Simulazioan oinarrituriko ezkontza-deuseztasunaren eliz epaien homologazio zibila**

Erabateko simulazioetan –bai aldebikoak b aldebakarrekoak izanda– oinarritutako ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakiak zibilki homologatzeko ez legoke inolako oztoporik, ezkontza-adostasunaren ezak bi eremuetan ezkontza-deuseztasuna baitakar.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Simulazio partzialetan oinarritutako ezkontza-deuseztasunaren erabakiekin ez da gauza bera gertatuko. Ezkontza kanonikorako oinarritukoak diren propietate eta elementu horiek arrotzak zaizkio ezkontza zibilarari. Gainera simulazio partzialak arlo zibilean ez du inolako eraginik. Beraz, homologazioa ez litzateke posible izango horrelako kasuetan.

**9. IKASGAIA. EZKONTZA-ADOSTASUNA EZKONTZA-SISTEMA  
KANONIKO ETA ZIBILEAN (III): ADOSTASUN AKASTUNA.  
ERRAKUNTZA, BELDURRA ETA BALDINTZA**

**I. IKASGAIAREN ESKEMA**

**1. Adostasun akastuna ezkontza-deuseztasun kasu gisa**

**2. Errakuntza**

-Kontzeptua: Ezkontza-negozioaren edo beste ezkongaiaren inguruko ezagutza okerra

**A) Ezkontza kanonikoa**

-Errakuntza motak:

\*Zuzenbidezko errakuntza

+Negozioaren nortasunean (1096. kan.)

+Negozioaren ezaugarrietan

. Funtsezko propietateen gainekoa (1099. kan.)

.Ezkontzaren deuseztasunaren gainekoa (1100. kan.)

\*Egitatezko errakuntza:

+Ezkongaiaren nortasunaren inguruko errakuntza (1097.1 kan.)

+Ezkongaiaren ezaugarri pertsonalen inguruko errakuntza:

.Errakuntza modu zuzen eta nagusian bilaturiko ezaugarri  
pertsonal baten gainekoa (1097.2 kan.)

.Dolu bidez sorraraziko errakuntza (1098. kan.)

**B) Ezkontza zibila**

-Arau orokorra (KZko 6. eta 1266. artikulua): zuzenbidezko errakuntzak ez dio  
negozio juridikoaren baliozkotasunari eragiten.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

-Ezkontzaren eremuko arau bereziak (KZko 73.4 art.)

-Errakuntza motak:

\*Pertsonaren nortasunaren inguruan

\*Ezkongaiaren ezaugarri pertsonalen inguruan, horiek ezkontza-adostasuna emateko erabakigarriak izan badira

-KZko 76. art.: deuseztagarritasun-kasua da (legitimazio murriztua eta akzioak iraungitze-data)

**C) Errakuntzan oinarritutako ezkontza-deusezetasuna erabakitzen duten eliz erabakien homologazio zibila**

### 3. Beldurra

-Kontzeptua

#### A) Ezkontza kanonikoa

-125.2 kan. (erregela orokorra negozio juridiko-kanonikoetarako, deusezgarritasuna) +  
1103. kan. (ezkontza-arloan, deusezetasuna)

-Motak:

\*Beldur arrunta:

+Kontzeptua (1103 kan.)

+Ezaugarriak:

.Beldurra zuzena edo zeharkakoa

.Kanpotik sorrarazia.

.Mehatxuaren gaitza objektiboki larria eta objektua ezkongai edo haren inguruko pertsona bat izatea

.Ezin baztertuzkoa

.Ezkontza aurrekoa

.Gaitzaren bidegabekeria?

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

\*Begirunezko beldurra:

+Kontzeptua (1103. kan.)

+Ezaugarriak (aurrez azaldutakoak, baina begirunezko erlazioari egokituak):

+Gaitzaren izaera berezia: haserre iraunkorra...

+Kanpotik sorrarazia hainbat hertsapen-bidez, ez da zertan espresuki izan.

+Zuzenean eragina

+Gaitza bidegabekoa

+Ezkontza aurrekoa eta ezkontza burutzeko eragile nagusia

+Ezin baztertuzkoa

### **B) Ezkontza zibila**

-Kontzeptua: KZko 1267. art. (negozio juridikoekiko oro har) + KZko 73.5 art. (ezkontza-arloan).

-KZko 76. art.: deuseztagarritasun-kasua da

### **C) Beldurrean oinarritutako ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakien homologazio zibila**

#### **4. Baldintza**

-Ez da adostasunaren akats bat, ustekabeko elementua baizik

-Alderdien borondatez, negozio juridiko baten efektuen hasiera edo amaiera gertakari ezezagun baten menpe jartzen da.

-Motak:

\*Geroaldiko/etorkizuneko baldintza:

+Bertan behera uztekoa

+Suntsiarazlea

\*Lehenaldiko edo orainaldiko baldintza

### **A) Ezkontza kanonikoa**

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

-1102.1 kan.: etorkizuneko baldintzak ezin dira ipini. Horrelakorik izanez gero, ezkontza deuseza litzateke.

-1102.2 kan.: lehenagoko edo orainaldiko baldintzak ipin daitezke; beraz, dagozkien efektuak izango dituzte.

-Segidako traktuko baldintza

-Baldintza ezkontza aurretik ipini behar da eta ezkontza egiten den unean mantendu.

### **B) Ezkontza zibila**

-KZko 45. art.: baldintzak ez du inolako efekturik; ez jarritzat jotzen da.

C) Baldintzatutako adostasunean oinarritutako ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakien homologazio zibila

## **II. IKASGAIA GARATUTA**

### **1. Adostasun akastuna ezkontza-deuseztasun kasu gisa**

Aurreko ikasgaian, ezkontza-adostasunaren faltaren kasuak aztertu ditugu. “Ezkontza adostasunik gabe ez dago ezkontzarik” printzipioari jarraituta, kasu horietan, ezkontza deuseza da, funtsezko elementu hori falta delako. Baina gerta daiteke ezkontza-adostasuna ematea, baina, hori akastuna delako, bai errakuntza bat dagoelako, bai hori beldurraren eraginez eman delako, akats horrek ezkontzaren deuseztasuna ekartzea.

### **2. Errakuntza**

Errakuntzak ezkontza-negozio juridikoaren edo beste ezkongaiaren inguruko ezagutza okerra dakar. Errakuntza eta ezjakintasuna bereizi behar ditugu. Ezjakintasuna ezkontzaren inguruko ezagutza falta osoa da, hots, negozio horri buruz ezer ez jakitea, ez dugu kontzepzio oker bat bera ere. Errakuntzan, ordea, ezagutza oker bat dago negozioaren edo beste ezkongaiaren nortasunaren edo ezaugarrien inguruan.

### **A) Ezkontza Kanonikoa**

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Azter dezagun zuzenbide kanonikoak **errakuntza mota** bakoitzari zein efektu juridiko ematen dizkion:

**-Zuzenbidezko errakuntza:** errakuntza mota horrek ezkontza-deuseztasuna ekarriko du. Horren barnean, bi eratako errakuntzak gerta daitezke:

**\*Errakuntza negozioaren nortasunean (1096. kan.):** ezkontza kanonikoaren nortasuna zehazten duten ezaugarriak ezagutzen ez baldin badira edo horien inguruko ezagutza oker bat baldin badago, negozioaren nortasunaren inguruko errakuntza bat dagoela jotzen da; horrek ezkontza-deuseztasuna ekarriko du.

Honako hauek dira ezkontza kanonikoaren nortasuna zehazten duten eta ezkongaiak nahitaez ezagutu behar dituzten ezaugarriak: ezkontza kanonikoa gizonezko baten eta emakumezko baten arteko elkarte iraunkor bat dela eta haren helburua bikotearen lankidetzaren bitartez seme-alabak izan eta horiek hezteko dela.

Printzipioz, eremu kanonikoan uste da pubertarotik aurrera ezkontzaren nortasuna osatzen duten ezaugarri horien gaineko ezagutza dagoela edo, behintzat, ezkongaien asmo praktikoaren eta ordenamendu kanonikoaren borondatearen arteko bat-etortzea. Beraz, negozioaren nortasunaren inguruko errakuntza frogatu beharko da.

**\*Errakuntza negozioaren ezaugarrietan:**

**+Funtsezko propietateen gainekoa (1099. kan.):** Kode kanonikoaren 1099. kanonak dioenez, ezkontza kanonikoaren batasunaren, deseginezintasunaren edo sakramentu-izaeraren inguruko errakuntzak ez du ezkontza-adostasuna akastun bihurtzen; ez du ezkontzaren deuseztasuna ekarriko, behintzat, baldin eta horrek ezkongaiaren/ezkongaien borondatea baldintzatzen ez badu.

Kasu horretan ulertzen da errakuntza horrek ez diola ezkontza-adostasunari eragiten. Nahiz eta ezkongaiak/ek ez jakin zein diren ezkontzaren funtsezko propietateak edo horien gaineko ezagutza oker bat egon, eremu



## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

kanonikoan, ezkontza burutzeko borondateari eta adostasunari ematen zaie lehentasuna.

Aldiz, ezkongaiak/ek ezkontzaren inguruan izan dezakeen/dezaketan kontzepzio desberdinak beraren/beren eta ordenamenduaren borondateen arteko desadostasuna sortzen baldin badu, ezkontza deuseza izango da. Kasu horretan, ezkongaiak/ek funtsezko propietate bat inplizituki baztertu duela/dutela joko da. Ezkontza-adostasunaren deuseztasunaren arrazoia ez litzateke errakuntza, simulazio partziala baizik.

### **+Ezkontzaren deuseztasunaren gaineko errakuntza (1100. kan.):**

1100. kanonak dioenez, ezkontzaren deustasunaren inguruko uste edo ziurtasunak ez du nahitaez ezkontza-adostasuna baztertzen. Beraz, kasu horietan, printzipioz, ezkontza baliozkoa da. Ezkontzaren deuseztasunaren inguruko ustea eta ezkontza-adostasuna bateragarriak dira, kontrakoa frogatzen ez bada behintzat.

**-Egitatezko errakuntza:** errakuntza horren objektua beste ezkongaiak da. Hor ere, hainbat kasu aurki ditzakegu:

### **\*Ezkongaiaren nortasunaren inguruko errakuntza (1097.1 kan.):**

ezkontzaren negozio juridikoaren objektua ezkongaiak direnez, horien nortasunaren inguruko errakuntzak ezkontzaren baliozkotasun eza ekarriko du. Kasu hori praktikan ez da maiz gertatuko; ezkongaiak fisikoki elkar ezagutzen ez badute edota ezkontza-adostasuna ahalordez egiten bada, posible da beste ezkongaiaren nortasunaren inguruko errakuntza gertatzea, baina nekez gertatuko da.

### **\*Ezkongaiaren ezaugarri pertsonalen inguruko errakuntza:**

**+Modu zuzen eta nagusian bilaturiko ezkongaiaren ezaugarri pertsonal baten inguruko errakuntza (1097.2 kan.):** printzipioz, beste ezkongaiaren ezaugarrien inguruko errakuntzak ez dio eragiten ezkontzaren baliozkotasunari. Salbuespen bat aurreikusten du Zuzenbide kanonikoak: baldin eta ezaugarri hori nagusiki eta modu zuzenean bilatua bada eta ezkongaiak aukeratu baldin bada ezaugarri zehatz horren jabe delako, ezaugarri horren

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

inguruko errakuntzak ezkontzaren deuseztasuna ekar dezake. Ezkongaiak, nagusiki, ezaugarri hori nahi du eta bigarren mailan, ezaugarri horren jabe den pertsona.

Ezaugarri horrek, edozein kasutan, pertsonala izan behar du, hau da, ezin da kanpo-eremuko ezaugarri bat izan (aberatsa izatea, naziotasun zehatz bat izatea, etab.), eta horren faltak ezkontzatik sortzen den bikotearen elkarbizitziari modu txarrean eragin behar dio.

Adibidez: ezkongai batek seme-alabak izatea du helburu eta beste ezkongaiak horiek izateko gaitasuna izatea erabakigarria zaio ezkontza-adostasuna emateko garaian. Ondoren, jakiten du ezkongai antzua dela eta, noski, arazo hori zuela ezkontza burutu zen garaian. Beraz, hemen aipatzen ari garen kasu horietako bat da.

**+Dolu bidez sorraraziko errakuntza (1098. kan.):** kasu horretan, ezkongaiaren ezaugarrien inguruko errakuntza sorrarazi da ezkontza gertatu ahal izateko. Errakuntza sorrarazten duena ezkongai bat edo hirugarren bat izan daiteke, baina, edozein kasutan, ekintza horren helburu zuzenak ezkontza burutzea izan behar du eta, errakuntzaren objektua izan den ezaugarria (pertsonala edo kanpo-eremuko izan daiteke kasu horretan) objektiboki garrantzitsua izateaz gain, ezaugarri hori egoteak edo ez egoteak ezkontzatik eratortzen den elkarbizitza larriki aztoratu behar du. Baldintza horiek betez gero, dolu bidez sorraraziko errakuntza horrek ezkontza deuseztatuko luke.

Eliz jurisprudenzian aurkitzen ditugun kasuetan, errakuntzaren objektua, besteak beste, honako hauek izan dira: birjintasuna, gaixotasun benereo bat jasatea, delitu-aurrekariak.

### **B) Ezkontza zibila**

**-Arau orokorra (KZko 6. eta 1266. artikulua):** zuzenbidezko errakuntzak ez du eraginik negozioaren baliozkotasunean.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

-Ezkontza-arloko arau bereziak (KZko 73.4 art.): honako kasu zehatz hauetan gertatuko da ezkontza-deuseztasuna egitatezko errakuntza egonez gero:

\* Errakuntza **pertsonaren nortasunaren inguruan** izan bada

\* Errakuntza **ezkongaiaren ezaugarri pertsonalen** (ezkongaiaren pertsonari atxikita doazkion ezaugarriak; ez dira kanpo-eremuak biltzen hemen) inguruan izan bada, baldin eta ezaugarri hori egotea edo ez egotea **erabakigarria** bada ezkontza-adostasuna egoteko.

-Ezkontzaren baliozkotasunari eragin diezaioketen egitatezko errakuntza horiek, KZko 76. artikulua araber, deuseztagarritasun-kasuak izango dira. Hau da, deuseztasuna eskatzeko pertsona legitimatu bakarria errakuntza jasan duen ezkontidea izango da eta, errakuntza desagertu ondoren elkarbizitza mantentzen baldin bada, akzioa urtebeteko epean iraungiko da.

### **C) Errakuntzan oinarritutako ezkontza-deuseztasuna erabakitzen duten eliz epaien homologazio zibila:**

Eremu zibilean zuzenbidezko errakuntzak eraginik ez duenez, errakuntza mota horrengatik zuzenbide kanonikoak aurreikusten dituen deuseztasun-kasuetan oinarritutako eliz epaiak ezingo dira zibilki homologatu.

Deuseztasunaren arrazoia ezkongaiaren nortasunaren inguruko errakuntza baldin bada, ez dago inongo arazorik eliz epaia homologatzeko. Errakuntza ezkongaiaren ezaugarrietan gertatzen bada, eta kasu zehatzaren araber ezaugarri hori pertsonala dela eta ezkontza-adostasuna emateko erabakigarria dela eratoritzen bada, kasu horietan ere, posible izango da homologazioa.

### **3. Beldurra**

Eremu kanonikoan eta zibilean beldurraren erregimen juridiko aztertu aurretik, kontzeptu hori argitu beharko dugu. Kasu horretan, hertsatzea erabiltzen da pertsonaren barne-borondatean eragiteko; hertsatze horren eraginez, ezkontza burutzen da, eta beldurra jasaten duenak ezkondu nahi du presio hori desager dadin. Kasu horretan,

beraz, ezkontza egin nahi da, baina hertsatzea desagerrarazteko asmoz. Arrazoi horrengatik esaten da beldurraren menpe emandako adostasuna akastuna dela.

### A) Ezkontza kanonikoa

Kode Kanonikoaren 125.2 kanonaren arabera, eta erregela orokor modura, beldurraren eraginez buruturiko negozio juridikoak deuseztagarriak izango dira, hau da, eliz epai batek deuseztatu ditzake alderdien eskariaz edo ofizioz, baina, halakorik eragiten ez baldin bada, baliozkoak izango dira.

Erregela orokor hori ez da ezkontza-arloan aplikatzen. 1103. kanonaren esanetan, beldurraren eraginez egindako ezkontzak deusezak izango dira. Ezkontzaren sakramentu-izaera dela-eta, deseginezina da, eta, beraz, ezin zaio deuseztagarritasunaren kategoria aplikatu. Arrazoi horrengatik, legegileak beldurra ezkontza arloan efekturik juridikorik gabe utzi edo deuseztasun kasutzat jotzeko aukera zuen. Eta azken aukera hori hartu zuen, ezkontzaren arrakasta bermatzeko modu egokiena zelakoan.

Eremu kanonikoan, **bi beldurra motak** erakar dezakete ezkontzaren deuseztasuna:

#### **-Beldur arrunta:**

Beldur arruntaren kontzeptuari dagokionez, esan behar da kasu horretan pertsona batek ezkongai bat gaitz batekin mehatxatzen duela. Ezkontidearentzat, mehatxuaren gaitza saihesteko irtenbide bakarra ezkontza burutzea da eta hertsatze horren baldintzapean egiten da ezkontza.

Definizio hori kontuan izanik, beldur arruntak ezkontza deuseztatu dezan, honako ezaugarri hauek agertu beharko dute:

\*Beldurra zuzena edo zeharkakoa izan daiteke: mehatxuaren helburua zuzenean ezkontza egitea izan daiteke, baina beste helburu bat izatea ere posible da. Ezkontza-adostasun akastun horrek ezkontza deusezta dezan, mehatxua desagertzeko irtenbide bakarra ezkontza burutzea izatea da funtsezko datua.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

\*Beldurra kanpoko mehatxu batek sorrarazi behar du: hau da, beldurra beste pertsona batek (beste ezkongaiak edo hirugarren batek) egindako mehatxu batetik eratortzen da; mehatxua zuzenean edo zeharka egindakoa izan daiteke.

Ezaugarri horren barnean, eliz jurisprudentziak, besteak beste, honako kasu hauek onartu izan ditu: beste ezkongaiaren edo hirugarren baten buru-hilketaren mehatxua edo ezkongaiak ezkontza ez gertatuz gero hirugarrenek kalteak sor diezazkioketen susmoa.

\*Mehatxuaren gaitzak, objektiboki, larria izan behar du, eta objektua ezkongaiaren edo haren inguruko pertsona bat izango da. Larritasun kontzeptuaren subjektibotasuna dela-eta, hori mailakatzeko, mehatxatzailea eta mehatxatuaren ezaugarriak aztertu beharko dira kasu zehatz bakoitzean.

\*Ezin baztertuzkoa izan behar du beldurrak: ezkongaiaren ikuspegitik, beldurra sortzen duen mehatxua saihesteko irtenbide bakarra ezkontzeak izan behar du.

\*Ezkontza-adostasuna eman aurretik sortu behar da beldurra sorrarazten duen mehatxua.

\*Beldurra sortzen duen mehatxuaren objektuak bidegabekoa den gaitz bat izan behar du: Doktrinan ez dago adostasun argirik ezaugarri horren inguruan. Indarrean dagoen kodean ez da hitzez hitz aipatzen ezaugarri hori, baina bai, ordea, aurreko kodean, hots, 1917koan. Hau da, aurreko kodearen arabera, mehatxuaren objektua bidezkoa zen gaitz bat izanez gero (adibidez, ezkontza ez baldin bada burutzen, ezkongai batek delitu bat egin duela salatuko da), beldurrak ez zuen ezkontza deusez bihurtzen. Gainera, indarrean dagoen kodeak erregela hori negozio juridikoetarako, oro har, aplikatzen jarraitzen du (125. kan.).

Gure ustez, eman beharreko erantzunaren gakoa adostasunean dago; beldurraren eraginez, gaitza bidegabekoa izanik edo ez, adostasuna akastun

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

bihurtzen baldin bada, ezkontza ez da baliozkoa izango. Adostasunik gabe edo hori akastuna izanda ez baitago ezkontzarik.

### **-Begirunezko beldurra:**

Begirunezko beldurraren berezitasuna datza beldurra sortzen duen pertsonaren eta mehatxua jasaten duen ezkongaiaren erlazioan. Bien arteko hierarkia- edo ahaidetasun-erlazioaren ezaugarriak ezkongaiarentzat dakarren errespetuzko eta begirunezko jarreratik eratortzen da beldur mota berezi hori.

Beldur horren ezaugarriak beldur arruntaren berdinak dira, berezitasun batekin, kasu horretan mehatxuaren objektua den gaitza zera baita: mendekotasun edo begirunezko erlazio horren bidez beldurra jasaten duen ezkongaiari lotuta dagoen pertsonaren haserre iraunkorra.

Gaitzaren ezaugarriak kontuan izanik, kasu horretan, mehatxuak zuzena izan beharko du beti (hau da, haren helburu ezkontza egitea izango da) eta gaitza bidegabekotzat jo ahal izango dugu.

### **B) Ezkontza zibila**

Kode Zibilean, beldurra negozio juridikoen erregimen juridiko orokorrean (KZko 1267. art.) eta ezkontza arauketa berezian aipatzen da (KZko 73.5 art.). Artikulu horiek irakurrita ondoriozta dezakegu arlo zibileko beldurraren kontzeptua eremu kanonikoan gertatzen denaren oso antzekoa dela. Desberdintasun bakarra zera da: eremu zibilean mehatxuaren objektua den gaitza berehalakoa izatea eskatzen dela. Halaber, aipatu behar dugu, Kode zibilak ez duela eskatzen beldurra ezin baztertuzkoa izatea, nahikoa da hori ezkontza-adostasuna emateko erabakigarri izatea.

Ezkontza arloan, eta Kode zibilaren 76. artikulua dioenaren arabera, beldurra ezkontzaren deuseztagarritasun-kasu bat da. Hau da, ezkontza-deusezatasuna bultzatzeko pertsona legitimatu bakarra beldurra jasan duen ezkontidea izango da eta, elementu hori desagertuz gero elkarbizitza urte betez mantentzen baldin bada, deusezatasun-akzioa iraungi egingo da.

### **C) Beldurrean oinarrituta ezkontza-deuseztasuna erabakitzen duten eliz epaien homologazio zibila**

Beldurrean oinarrituta ezkontza-deuseztasuna erabakitzen duten eliz erabakiak zibilki homologagarriak izango dira beldurra sortzen duen mehatxuaren larritasunaren arabera; horrek beldurra jasaten duen ezkongaiak ezkontza-adostasuna ematera bultzatzen badu, hau da, adostasuna emateko erabakigarria den elementu bat baldin bada, orduan, homologazioa emateko ez da arazorik egongo. Kasu horietan argi baitago ezkontza-adostasuna akastuna dela. Printzipio hori aplikagarria da beldurra arrunta edo begirunezko beldurra izanik.

### **4. Baldintza**

Baldintza ez da adostasunaren akats edo bizio bat, horren ustekabeko elementu bat baizik.

Baldintzan, alderdien borondatez, negozio juridiko baten efektuen hasiera edo amaiera gertakari ezezagun baten menpe jartzen da.

Hainbat baldintza **mota** aurki ditzakegu:

**-Geroaldiko/etorkizuneko baldintza:** gertakaria ez da oraindik errealitate objektiboan gauzatu.

**\*Baldintza etengarria:** gertakaria gauzatu arte negozioaren efektuak bertan behera geratzen dira.

**\*Baldintza suntsiarazlea:** gertakaria gauzatu gero, negozioaren efektuak amaitzen dira. Hala ere, posible da efektuak *ex tunc* izatea, hau da, aurreko efektuak ere deuseztatzea.

**-Lehenaldi edo orainaldiko baldintza:** gertakaria errealitate objektiboan gauzatu da dagoeneko, baina alderdiek oraindik ez dakite gertatu den ala ez. Gertakari hori errealitatean gauzatu den jakin arte ez da jakingo negozioa baliozkoa den ala ez.

### **A) Ezkontza Kanonikoa**

1102.1 kanonaren arabera, ezkontza kanonikoan ezin da etorkizuneko baldintzarik ipini eta, hala gertatu dela frogatuz gero, ezkontza deuseza litzateke. Aldiz, lehen edo orainaldiko baldintzak ipin daitezke, eta, beraz, dagozkien efektuak izango dituzte (1102.2 kan.): hau da, ezkontza kanonikoaren baliozkotasunerako, aintzat hartuko da baldintzaren objektua izan den gertakari hori gertatu den ala ez.

Hemen ere, segidako traktuko baldintzak aipatu behar dira: kasu horretan, baldintza betetzearen kontrola etengabe gertatuko da (adibidez: baldintzaren edukia beste ezkongaiak alkohola edo drogaletasuna uztea bada). Kasu horretan, orainaldiko baldintza bat dagoela jotzen da, baldintza ipintzen denean une horretan hartzen den konpromiso bat eskatzen zaiolako beste ezkongaiari.

Amaitzeko esan behar da baldintza ezkontza aurretik ipini eta ezkontza burutzen den unean mantendu behar dela. Baldintzaren objektuak ezkontzaren arrakastarekin zerikusi objektibo bat behar du izan.

### **B) Ezkontza zibila**

Kode zibilaren 45. artikulua dioenez, baldintzak ez du inolako efekturik; beraz ez jarritzat jotzen da.

### **C) Baldintzatutako adostasunean oinarritutako ezkontza-deuseztasuna erabakitzen duten eliz epaien homologazio zibila**

Eremu zibilean baldintzak ez jarritzat jotzen direnez, etorkizuneko baldintza ipintzeagatik arlo kanonikoan ezkontza bat deuseztat jotzen bada, horrek ez du efektu zibilik izango. Lehenagoko eta orainaldiko ezkontzen kasuan, baldintza ez betetzeagatik ezkontza kanonikoki deuseztatzen baldin bada, horrek ez du inolako efekturik izango arlo zibilean; ez da homologagarria izango.



## **10. IKASGAIA: EZKONTZAREN FORMA JURIDIKOA EZKONTZA-SISTEMA KANONIKO ETA ZIBILEAN**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1. Forma ezkontza zibil eta kanonikoan**

-Indarrean dagoen ezkontza-sistema: mota bakarreko ezkontza (zibila), forma aniztasunarekin

-Ezkontza-negozio formala arlo zibilean zein kanonikoan

#### **2. Ezkontza-forma zibila**

-Forma arrunta:

\*Ezkontza aurreko formalitateak (KZko 56. art.+ Prozedura Zibilaren Legeko 238.-253. artikulak): ezkontza aurreko espedientea

\*Ezkontza garaiko formalitateak (KZko 51.-58. artikulak): ezkontza-adostasuna egintza formal batean adieraztea

\*Ezkontza ondorengo formalitateak (KZko 61.-65. artikulak): ezkontza erregistro zibilean inskribatzea

-Forma arruntaren mota berezia: ezkontza sekretua (KZko 54. eta 64. artikulak)

\*Nahikoa frogaturiko kausa larria + Justizia Ministerioaren baimena

\*Publikotasun eza ezkontzaren formalitate guztietan

-Aparteko forma: heriotza-arriskua (KZko 52. art.)

\*Ez da beharrezkoa aurreko espedientea

\*Lekuko kualifikatuen eskuduntza zabaldu

\*Lekuko arrunten baldintza salbuets daiteke

-Ezkontza-forma bakoitzari aplikagarri zaion printzipioa (KZko 53. art.)

### **3. Ezkontza-forma Kanonikoa**

-Kanonikoki ezkontzera behartuta dauden bikoteak (1117. kan.). Salbuespena (1127. kan.)

-Forma kanonikoaren dispentsa (1079., 1127.2 eta 1129. kanonak)

-Ordenamendu zibilak Zuzenbide kanonikoaren ezkontza-formaren arauetara egindako igortzearen hedapena (KZko 60. art. + 1979ko Akordioaren VI.1 art.)

-Forma arrunta:

\*Ezkontza aurreko formalitateak (1066.-1070. bitarteko kanonak): ezkontza aurreko espedientea.

\*Ezkontza garaiko formalitateak (1108.-1112. bitarteko kanonak): ezkontza-adostasuna egintza formal batean adieraztea

\*Ezkontza ondorengo formalitateak (1121. kan., KZko 60. eta 63. artikulak): ezkontza inskribatzea, kanonikoa eta zibila

-Forma arruntaren mota bereziak: ezkontza sekretua (1130.-1133. bitarteko kanonak)

\*Kausa larria eta premiazkoa.

\*Publikotasun eza ezkontzaren formalitate guztietan

-Aparteko forma: heriotza-arriskua egotea (1116. kan.)

\*Heriotza-arriskua. Eskuduna den inor ez egotea

\*Lekuko kualifikaturik gabe burutu daiteke

\*Zuzenbide zibilak dioenaren kontra

## **II. IKASGAIA GARATUTA**

### **1. Forma ezkontza zibil eta kanonikoan**

Espanian dagoen ezkontza-sistema forma aniztasuneko ezkontza mota bakarra da. Hau da, eremu zibilean baliozkoa den ezkontza bakarra ezkontza zibila da, baina, formari dagokionez, forma zibilaren eta legalki aurreikusitako forma erlijiosoaren

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

(KZko 49. art., hots, gaur egun arte, kanonikoa, protestantea, musulmana eta judutarra) artean aukeratu daiteke

Ezkontza-forma erlijiosoan egitea aukeratzen denean, dagokion zuzenbide konfesionalera jo beharko dugu aplikagarri diren ezkontza-formaren arau zehatzak zein diren jakiteko. Arau konfesional horiek aplikagarriak izango dira eta horien arabera buruturiko ezkontzak baliozkoak izango dira eremu zibilean, ordenamendu zibileko ezkontza-formaren arau nagusien kontra joaten ez badira.

Ezkontzaren ezaugarriak aztertu genituenean aipatu genuen eremu zibilean zein kanonikoan negozio juridiko formaltzat hartzen zela. Hau da, bi eremuetan, forma ezkontzaren funtsezko elementu bat da eta formaren arau orokorrak ez betetzeak negozioaren baliozkotasun eza ekar dezake.

Bi datu horiek kontuan izanik, irakasgai honetan, bi eremuetan ezkontzaren forma zein modutan arautzen den aztertuko dugu, bi arloetan agertzen diren kontraesanak azpimarratuaz.

### **2. Ezkontza-forma zibila**

Kode zibilak bi ezkontza-forma arautzen ditu, arrunta eta aparteko forma bat, heriotza-arriskua dagoenerako aurreikusia. Forma arruntaren barnean, mota berezi bat ere erregulatzen da, ezkontza sekretua.

#### **-Forma arrunta**

Ezkontza-forma arruntean, 3 garai daude:

**\*Ezkontza aurreko formalitateak** (KZko 56. art.+ Erregistro Zibilaren Erregelamenduaren 238.-253. bitarteko artikulua): ezkontza burutu nahi duten pertsonak aurreko espediente batean bermatu beharko dute Kode zibilean eskatzen diren gaitasun-baldintzak (hots, Kode Zibilaren 46. eta 47. artikuluetan aipatzen direnak) betetzen dituztela.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Ezkontza aurreko espedientearen izapidetzea Erregistro Zibilaren Legearen (1957ko ekainaren 8an onartutakoa) eta Erregelamenduaren (1958ko azaroaren 14ko dekretu bitartez onartua) arauen arabera egingo da.

Aurreko espediente horren instrukzioa ezkongaietako edozeinen helbideari dagokion erregistro zibileko arduradunak egingo du (Erregistro Zibilaren Erregelamenduaren (hemendik aurrera EZE) 238. art.).

Espedienteari ezkongaiak aurkezturiko idazki baten bitartez emango zaio hasiera; horretan, besteak beste, ezkontza aurrera eramateko eragozpenik ez dagoela adieraziko da. Erregistroko arduradunak ezkongaiak egindako eskaeraren berri emango du publikoki eta ezkongaien gaitasuna bermatzeko aurrera eraman beharreko zuzenmenak egingo ditu.

Izapidetzearen amaieran eta bildutako datuen arabera, espedientearen arduradunak auto bat emango du ezkontza baimentzeko edo ez baimentzeko. Erabaki horren kontra, helegitea aurkeztu ahal izango da gobernu-bidetik.

**\*Ezkontza-garaiko formalitateak** (KZko 51.-58. artikulua): ezkontza espedientearen izapidetzea amaitu ondoren eta erregistro arduradunak ezkontza onartu baldin badu, ezkongaiak ezkontza-adostasuna espresuki adierazteko egintza formala egingo da. Ezkongaietako edozeinen helbideari dagokion epaile edo funtzionario eskudunaren eta adin nagusiko 2 lekuko arrunten aurrean egingo da hori. Ezkongaien eskariaz edo pertsona eskudunaren erabakiaz, lekuko kualifikatua izateko eskuduntza delegatu ahal izango da beste epaile edo funtzionarioa batengan (KZko 52. eta 57. artikulua). Beraz, ezinbesteko elementuak 2 dira: lekuko kualifikatu eskuduna eta adin nagusiko 2 lekuko arrunt.

Lekuko kualifikatuak, eskuduntza funtzionalari dagokionez, jatorriz nahiz modu delegatuan, ezkontza egiten den tokiko erregistro zibileko arduraduna, alkatea edota, eskuordetzearen bitartez, udaleko beste edozein zinegotzi izango dira (KZko 51. art.).

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Lurralde-eskuduntzari dagokionez, eta aurrez esan bezala, ezkongaietako edozeinen helbideari dagokion epaile, alkate edo zinegotzi baten aurrean egin beharko da ezkontza. Baina, aurreko espedientean egindako eskariaren ondorioz, espediente horren arduradunak ezkontza beste leku batean egitea erabaki dezake, lekuko kualifikatua udal horretako pertsona eskudunak izanda (KZko 57. art.).

Ezkontza-adostasuna adierazten den egintza formal horretan, honako pauso hauei jarraituko zaie (KZko 58. art.):

+Kode zibilaren 66., 67. eta 68. artikulua irakurtzea. Artikulu horietan, ezkongaien berdintasun juridikoaren printzipioa eta ezkontideek elkarrekiko dituzten betebeharrak –legeak ezartzen dituenak– aipatzen dira.

+Lekuko kualifikatuak ezkongaietara elkarrekin ezkontza burutu nahi duten galdetu eta ezkongaietara erantzuna emango dute, hala, beren ezkontza-adostasuna espresuki adierazita.

+Adierazpen horren ostean, lekuko kualifikatuak 2 ezkontideak ezkontzaz elkartuta daudela adierazi eta ezkontzaren akta edo erregistro-inskripzioa beteko du. Akta hori lekuko kualifikatuak, lekuko arruntek eta ezkontideek sinatuko dute.

Kontuan izan behar dugu formalitate horiek guztiak ez daudela maila berean eta, beraz, horiek falta badira, ez da automatikoki sortuko ezkontzaren baliozkotasun eza. Lekuko kualifikatu eskudunaren eta adin nagusiko lekuko arruntaren aurrean ezkongaietara ezkontza-adostasuna espresuki adieraztea izango da funtsezko baldintza. Elementu horiek falta badira, ezkontza deusez bihurtuko da.

**\*Ezkontza ondorengo formalitateak** (KZko 61.-65. artikulua): ezkontza burutzen denetik izango ditu efektuak, baina ezkontza formalki frogatzeko eta horren efektuak modu osoan hedatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da negozio hori Erregistro Zibilean inskribatzea (KZko 61.).

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Beraz, ezkontzaren ondoren egiten den inskripzioa ez da eratzaille, deklaratzaille eta nahitaezkoa baizik. Ildo horretan, zehaztu behar dugu ezkontza ez inskribatzeak ezin dituela kaltetu fede oneko hirugarren pertsonak lorturiko ondare-eskubideak.

### **-Forma arruntaren mota berezia: ezkontza sekretua (KZko 54. eta 64. artikulak)**

Nahikoa frogaturiko kausa larriren bat egonez gero, ezkongaien eskariz, Jutzizia Ministroak forma berezi horretan ezkontzea onar dezake.

Baimen hori ematen bada, ezkontza horren garaietan, publizitate eza eta pribatutasuna izango dira nagusi. Horrela, ezkontza aurreko espedienteari ez zaio publikotasunik emango, ezkontzaren adierazpen-egintza forma sekretuan egingo da eta ezkontza-inskripzioa Erregistro Zibil zentralaren liburu berezi batean egingo da.

Ezkontza sekretuak ezkongaien oinarrizko hainbat eskubide babestea du helburutzat, hala nola kontzientzia-askatasuna, ohorea, intimitate pertsonala eta irudia.

### **-Aparteko forma: heriotza-arriskua (KZko 52. art.):**

Ezkongai bat edo biak heriotza-arriskuan egon daitekenerako/daitezkenarako, Kode zibilak ezkontza burutzeko aparteko forma bat aurreikusten du. Honako hauek izango dira berezitasunak:

\*Ez da beharrezkoa izango ezkontza aurreko espedienterik egitea.

\*Ezkontza egin dezaketen lekuko kualifikatuen eskuduntza zabaldu egiten da: horrela, tokiko Erregistro zibilaren arduraduna, alkatea edo zinegotziak eskudunak izango dira, nahiz eta ezkongaien helbidekoak ez izan. Gainera egoera hori gerra-egoera bada, eta ezkongaiak militarrek izanda, ofiziala edo hierarkia horretan ganean dagoen pertsonak izango du eskuduntza hori. Azkenik, heriotza-arriskua hegazkin edo itsasontzi batean gertatuz gero, horren kapitaina edo komandantea izango da eskuduna.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

\*Forma horretan, printzipioz lekuko arruntak beharrezkoak izango dira, baina salbuespen gisa eta horiek lortzea ezinezkoa dela frogatuz gero, onartuko litzateke lekuko arruntik gabe ezkontza burutzea.

**-Ezkontza-forma bakoitzari aplikagarri zaion printzipioa** (KZko 53. art.): lekuko kualifikatu gisa ari den pertsonaren eskuduntzarik ez izateak ez dio eragingo ezkontzaren baliozkotasunari, baldin eta ezkongaietariko batek, behintzat, fede onez jardun badu (hau da, ez zuen eskuduntza falta horren berri) eta horrek itxuraz berari zegozkion funtzioak publikoki burutu baditu.

### 3. Ezkontza-forma kanonikoa

Kode Zibilaren 60. artikulua arabera eta 1979an Estatuaren eta Eliza katolikoaren artean sinaturiko Gai Juridikoei Buruzko Akordioaren VI.1 artikulua kontuan izanik, Zuzenbide kanonikoaren forma-arauen arabera buruturiko ezkontzek efektuak sortuko dituzte zibilki. Hala, ordenamendu zibilak kode kanonikoko ezkontza-formaren arauetara egiten du igortze oso bat, ezkongaiak ezkontza-forma kanonikoan ezkontzea erabakitzen dutenerako. Edozein kasutan, gogoratu behar dugu igortze horren bitartez arau kanoniko horiek zuzenbide berezi gisa biltzen direla ordenamendu zibilean eta, beraz, horren printzipioen arabera interpretatu beharko direla.

Zuzenbide kanonikoaren arabera, zein pertsona ezkon daitezke kanonikoki, edo hobeki esanda, zein bikote daude kanonikoki ezkontzera behartuta eliza katolikoaren arauen arabera? 1117. kanonak ezartzen duenez, ezkongaietariko bat behintzat eliza katolikoaren barnean bataiatua balego eta horretatik formalki aldendu ez balitz, ezkontza kanonikoa egin beharko luke bikote horrek. Salbuespen gisa aipatzen da beste ezkongaiak kristau ortodoxoa izanez gero forma kanonikoa ezkontzaren zilegitasunerako bakarrik izango dela beharrezkoa (1127. kan.). Dena den, kontuan izan behar dugu, erregela horiek eremu kanonikoan bakarrik dutela eragina, ez, ordea, zibilean.

Forma kanonikoan ezkontzeko obligazioari dispentsa eman dakiok. Dispentsa hori Aita Santuak eman dezake edozein kasutan, baina baita gotzainek ere. Lekuko ordinarriak dispentsa hori eman ahal izango du bi kasu zehatzetan: heriotza-arriskuko kasuetan (1079.1 kan.) eta, ezkontza mistoa edo kultu desberdintasuna badago, forma

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

kanonikoa aurrera eramateko zailtasun larriak egonda (ezkongaietariko batek kanonikoki ezkondu nahi ez izatea, ezkongaien familiek edo lagun minek kanonikoki ezkontzea nahi ez izatea, etab.); azken kasu horretan, ezkontza forma publikoan egitea eskatuko da (1127.2 eta 1129. kanonak).

### **-Forma arrunta**

Ezkontza kanonikoaren formalitateei dagokienez, eremu horretan ere, 3 garai daude:

**\*Ezkontza aurreko formalitateak** (1066.-1070. kanonak): Zuzenbide kanonikoak antzeko prozedura bat aurreikusten duenez, forma kanonikoan ezkontzea erabakiz gero ez da aurretiazko espediente zibilik aurrera eraman behar.

Aurretiazko espediente kanonikoaren bidez bermatu nahi da ezkontza baliozkoa eta zilegi izan dadin oztoporik ez dagoela (1066. kan.). Kode Kanonikoak ez du izapide horren edukiaren inguruko zehaztasunik ematen, eta dagokion Gotzain-batzarraren eskuetan uzten du zehaztapen hori egitea (1067. kan.).

Aurretiazko espediente hori, printzipioz, ezkontzan lekuko kualifikatu bezala arituko den parrokoak edo lekuko ordinarioak eramango du aurrera, baina beste lurralde-eremuetarako organoetan delega dezake izapidetze hori burutzea.

**\*Ezkontza garaiko formalitateak** (1108.-1112. kanonak): ezkongaiak ezkontza-adostasuna espresuki adieraziko duten egintza formalari dagokionez, honako hauek izango dira zuzenbide kanonikoak aipatzen dituen ezinbesteko elementuak (1104. eta 1108. kanonak): ezkontza egiten den tokian 2 ezkongaiak egotea, pertsonalki edo ahalorde bitartez, eta beren ezkontza-adostasuna adieraztea lekuko kualifikatu bat (ministro sakratua) eta bi lekuko arrunten aurrean.

Ezkontza, printzipioz, ezkongaietako edozeinen helbideari dagokion edo 30 egunez gutxienez egoitza izan duen tokiko parrokian egin behar da, baina, dagozkion lekuko ordinarioaren edo parrokoaren baimenaz, ezkontza beste parrokia batean egin ahal izango da (1115. kan.).



## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Lekuko arruntei dagokienez, doktrina eta jurisprudentzia kanonikoek aipatzen dutenez, lekukoek ezaguera izatea bakarrik eskatuko da gaitasun gisa, baina lekukoak adindunak izan daitezzen gomendatzen da. Gainera, kontuan izan behar dugu Kode zibilaren 52. eta 57. artikuluek eskatzen dutela ezkontza zibilaren kasuan lekuko arruntak adinduna izatea; beraz, ezkontza kanonikoki adingabeak diren 2 lekukoren aurrean burutuz gero, ordenamendu zibilaren arauen kontra legoke eta ezingo litzateke ezkontza hori zibilki inskribatu.

Lekuko kualifikatuaren eskuduntza zehazteko, 2 eremuei egin behar diegu erreferentzia:

\*Eskuduntza funtzionala (1108. kan.): ezkontzan, eliza katolikoaren parrokoak eta lekuko ordinarioak ari daitezke lekuko.

\*Lurralde-eskuduntza (1109. kan.): parrokoak eta lekuko ordinarioek, lekuko kualifikatu gisa aritzeko eskuduntza izango dute beren eskumen-eremuaren barnean egiten diren ezkontzetan. Salbuespena eskumen pertsonala duten kultu-ministroak izango dira (1110. kan.); horien eskumena pertsona zehatzetara hedatuko da eta, beraz, ezkongaietariko bat eskumen horren barnean sartuz gero, eskumen pertsonal horren titularra izango da eskuduna lekuko kualifikatu gisa aritzeko.

Dena den, parrokoek eta lekuko ordinarioek lekuko kualifikatu gisa aritzeko eskuduntza beste apaiz eta diakonoei eman diezaiekete ordezkaritza beren eremuan egiten diren ezkontzetan (1108. eta 1111, kanonak) eta salbuespen-kasuetan baita laikoengan ere (1112. kan.).

Ordezkaritza pertsona zehatzei eman behar zaie. Hori orokorra (eremu horretan egiten den edozein ezkontzatan lekuko kualifikatu gisa aritzeko eskuduntza) zein zehatza (ezkontza zehatzetarako bakarrik) izan daiteke. Bi kasuetan, ordezkaritza espresuki eman behar da, baina, hori orokorra baldin bada, idatziz eman behar da nahitaez.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Halaber, ordezkartzaren azpiordezkaritza egin daiteke, hau da, ordezkartza jaso duen pertsonak beste hirugarren baten eskutan utz dezake jasotako eskuduntza. Azpiordezkaritza ezkontza zehatzetarako bakarrik eman daiteke. Eskuduntza zehatza azpiordezkaritzan eman nahi izanez gero, lehenengo ordezkartza eman zuenak espresuki emandako baimena behar da.

Lekuko kualifikatuaren eskuduntzaren inguruan, eskumen-ordezkapenari ere erreferentzia egin behar zaio (144. eta 1108. kanonak): lekuko kualifikatuaren eskuduntza ezak ez du ezkontzaren deuseztatzea erakarriko a) ezkontza burutzen den lurralde-eremuko komunitatearen gehiengoak pertsona hori eskuduna dela uste baldin badu edo errakuntza hori sortzeko egitate publikorik badago (errakuntza arrunta) eta b) zalantza positibo eta frogagarriren bat badago, hots, pertsona hori eskuduna dela uste izateko nahikoa arrazoi objektibo balego.

**\*Ezkontza ondorengo formalitateak:** ezkontza burutu ondoren, hori parrokiako ezkontza-liburuan inskribatuko da (1121. kan.), baina, halaber, ezkontza horrek efektu zibilak izateko, zibilki inskribatu beharko da (KZko 60. art.). Inskripzio zibila egiteko, ezkontza-ziurtagiri kanonikoa aurkeztu beharko da. Erregistroko arduradunak emandako dokumentuetatik edo erregistro-datuetatik ezkontza horrek eremu zibileko baliozkotasun-baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatuko balu, inskripzioa ezeztatuko litzateke (KZko 63. art.).

**-Forma arruntaren mota berezia: ezkontza sekretua** (1130.-1133. kanonak):

Kausa larria eta premiazkoa egonez gero, lekuko ordinararioak eman dezake ezkontza modu sekretuan egiteko baldintza. Eremu zibilean bezala, ezkontza sekretuaren berezitasuna formalitate guztien (aurreko espedientea, adostasunaren adierazpena eta ezkontza inskribatzea) publikotasun eza izango da. Ezkontza Eliza katolikoaren artxibo berezi eta sekretu batean inskribatuko da eta, ezkongaien nahiz izanez gero, hau da, ezkontza-agiria erregistro zibilean aurkeztuz gero, zibilki ere, modu sekretuan inskribatu ahal izango da.

**-Aparteko forma: heriotza-arriskua** (1116. kan.):

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Heriotza-arriskua egonez gero eta ezkontzan lekuko kualifikatu gisa aritzeko eskuduna den inor bertan ez badago edota horrengana abiatzeko zailtasunak badaude, edo heriotza-arriskurik egon gabe lekuko kualifikatuarengana jotzeko ezintasunak edo zailtasunak hilabete baino luzeago joko duela aurreikusten baldin bada, ezkontza aparteko forma horretan burutu ahal izango da.

Kasu horretan, ezkontza bi lekuko arrunten aurrean egin ahal izango da; beraz, ez da lekuko kualifikaturik behar. Horrek Zuzenbide zibilarekiko kontraesan argia sortzen du, eremu zibilean lekuko kualifikatua egotea nahitaezkoa baita. Beraz, modu horretan egindako ezkontza kanonikoa ezingo litzateke zibilki inskribatu (KZko 63. art.). Baina, 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legearen 80. artikulura jotzen baldin badugu, arau horretan aparteko forma kanonikoan burututako ezkontzen inskripzio zibila baimentzen da.

## **11. IKASGAIA: EZKONTZAREN BALIOZKOTZEA EZKONTZA-SISTEMA KANONIKO ETA ZIBILEAN**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1.Sarrera**

#### **2. Ezkontzaren baliozkotzea eremu kanonikoan**

Baliozkotze sinplea (1156.-1160. kanonak):

- Gerta daitezkeenak: eragozpenak, adostasun eza edo akastuna eta forma-akatsak
- Prozedura
- Efektuak: *ex nunc*

Errotiko zuzenketa (1161.-1164. kanonak):

- \*Gerta daitezkeenak: eragozpenak eta forma-akatsak. Adostasuna baliozkoa.
- \*Prozedura
- \*Efektuak: *ex tunc*

#### **3. Ezkontzaren baliozkotzea eremu zibilean**

Baliozkotze sinplea (KZko 75. eta 76. artikulua)

- Gerta daitezkeenak: adin txikikotasunaren eragozpena eta adostasun akastuna
- Baldintzak
- Efektuak: *ex tunc*

Errotiko zuzenketa (KZko 48. art.)

- Gerta daitezkeenak: eragozpenak
- Baldintzak
- Efektua: *ex tunc*

#### **4. Kanonikoki egindako ezkontza baten baliozkotze zibila**

#### **5. Baliozkotze kanonikoen eraginkortasun zibila**

## **II. IKASGAIA GARATUTA**

### **1.Sarrera**

Ezkontza negozio juridikoa aurreko ikasgaietan azterturiko kausa batengatik deuseza denean, bi aukera daude: a) dagokion epaitegi edo auzitegi eskudunaren aurrean ezkontzaren deuseztatze-prozedura martxan jarri edo b) legeak posible egiten baldin badu eta horrek aurreikusten duen kasuren bat baldin bada, ezkontza horren baliozkotasuna sustatu.

Ikasgaia honetan, bigarren aukera hori aztertuko dugu, ezkontza deusezaren baliozkotzea, bai ezkontza-sistema kanonikoan bai zibilean. Azterketa honetan, bi galdera nagusiri erantzun beharko diegu:

Ezkontza kanoniko baten baliozkotze zibila posible al da?

Ezkontza kanoniko baten eliz baliozkotzeak zibilki eraginik ba al du?

### **2. Ezkontzaren baliozkotzea eremu kanonikoan**

Zuzenbide kanonikoak bi motatako baliozkotzeak aurreikusten ditu: baliozkotze sinplea eta errotiko zuzenketa. Lehenengoa ezkontza deuseztatzeko kasu guztiei aplikagarri zaie eta bigarrena, berriz, adostasuna falta ez den kasuetan bakarrik.

#### **Baliozkotze sinplea (1156.-1160. kanonak)**

Baliozkotze sinplea deuseztasun-kasu guztietan aplika daiteke eta ezkontza adostasunaren berritzean (ezkontide baten edo bien aldetik) datza.

Deuseztasun-kasuaren arabera, baliozkotze hori emateko modua eta betebeharrak desberdinak izango dira:

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

-Eragozpenak (1158. kan.): eragozpenak desagertuta edo dispentsak emanda egon behar du eta, horretaz gain, ezkontza-adostasuna berritu beharko da. Berritze hori bi modutan egin daiteke:

\*Eragozpena publikoa izanez gero, ezkontza-adostasuna bi ezkongaiak berritu beharko dute forma kanonikoan; hau da, ezkontzaren egintza formala egin beharko dute berriro.

\*Eragozpena pribatua balitz, eragozpena duen ezkongaiak berritu beharko du ezkontza-adostasuna; hori modu pribatu eta sekretuan egin ahal izango da. Dena den, beste alderdiak bere adostasuna mantentzea nahitaezkoa izango da. 1107. kanonean, adostasun hori mantentzen delako ustekizuna egiten da; dena den, *iuris tantum* ustekizun bat da; kontrakoa frogatu daiteke.

-Adostasun eza edo adostasun akastuna (1158.-1159. kanonak): aurreko kasuan bezala, deuseztasun-kausak alde bakar bati eragiten dionean, horrek adostasuna berritu beharko du, eta beste alderdiaren adostasuna mantendu behar da (hemen ere, aurrez aipaturiko ustekizuna aplikagarri da).

\*Adostasun eza edo adostasun akastuna kanpo-eremuan frogagarria izanez gero, adostasuna forma kanonikoan adierazi beharko da.

\* Frogagarria ez baldin bada, nahikoa izango da adostasuna berritzea modu sekretu eta pribatuan.

-Forma-akatsa: ezkontza-adostasuna adierazten duen egintza formala errepikatu beharko da kasu horretan (1160. kan.)

Baliozkotze horren efektuei dagokionez, baliozkoturiko ezkontza-adostasuna berritzen den unetik aurrera baliozkoa eta efektuduna izango da. Beraz, baliozkotze horrek ez du atzeraeraginik (*ex nunc* efektuak).

### **Errotiko zuzenketa (1161.-1164. kanonak)**

Baliozkotze mota horretan ez da alderdien adostasuna berri beharrik, baliozkotzea autoritate eskudunaren erabakiaz ematen baita (1161. kan.). Ezin da deuseztasun-kasu guztietan erabili, ezkontza-adostasun baliozkoa ematea galdatzen baita (1107. kanonaren arabera, adostasuna denboran mantentzen delako ustekizuna dago). Beraz, soilik dispensa jaso ez duen eragozpenik edo forma-akatsik badago gertatu ahal izango da errotiko zuzenketa; ez, ordea, simulazioa, indarkeria edo beldurra dagoenean, besteak beste.

Baliozkotze hori edozein ezkongaik eska dezake baita hirugarren batek ere (1164. kan.). Ezkontide bakar batek baliozkotzea bultzatzen duenean, ez dio zertan beste alderdiari hori jakinarazi. Gauza bera gertatzen da baliozkotzea hirugarren batek eskatzen badu; hots, ez die ezkongaei horren berri eman beharrik.

Errotiko zuzenketa aurrera eramateko eskudunak gotzainak izango dira, baina, bi kasutan, Aita Santuari dagokio eskuduntza hori eskusiboki (1165. kan.):

\*Ezkontza-deuseztasuna ekartzen duen eragozpenaren dispensa Aita Santuari eskusiboki baldin badagokio.

\*Iraungitako eragozpen jainkotiarren batek ezkontza-deuseztasuna ekar bidezake.

Gotzainek arrazoizko kausa batean oinarritu beharko dute beren erabakia (1164. kan.). Aita Santua eskuduna denean, baldintza horrek erabakiaren zilegitasunari eragingo dio besterik gabe (1165. kan.).

Errotiko zuzenketaren efektuak *ex tunc* dira, hots, atzeraeraginak ditu, eta, beraz, ezkontza burutu zenetik hartuko da baliozkotzat (1161. kan.). Ezkontza-deuseztasunaren arrazoa zuzenbide jainkotiarreko eragozpen bat egotea baldin bada, orduan, *ex tunc* efektu horiek mugatuta egongo dira: kasu horretan, efektuek eragozpena desagertu zen unera bakarrik egingo dute atzera (1161.2. kan.).

### 3. Ezkontza baliozkotzea eremu zibilean

Kode Zibilean ere, ezkontzaren baliozkotzea aurreikusten da. Baliozkotze zibilaren motek badituzte kanonikoekiko zenbait antzekotasun, baina ez dira berdinak.

#### **Baliozkotze sinplea (KZko 75. eta 76. artikulua)**

Kode Zibilaren 75. et 76. artikuluetan, ezkontza zibilaren baliozkotzea gertatzeko aukera aurreikusten da, baldin eta ezkontza-deuseztasunaren arrazoia adingabea izatea edota adostasuna akastuna izatea (beldurra eta errakuntza) bada.

Kasu horietan, baliozkotzea egin ahal izango da honako bi baldintza hauek betez gero:

\*Ezkontza-deuseztasunaren arrazoia desagertu ondoren, urte beteko epean deuseztasun-akziorik aurrera eraman ez izana.

\*Aurreko baldintzan aipaturiko epe horretan ezkontza-elkarbizitza egotea.

Bi baldintza horiek betetzen badira, ezkontza-adostasuna berritu dela joko da, arrazoia desagertu ostean ez baita elkarbizitza amaitu eta ezta deuseztasun-akziorik bultzatu ere.

Baliozkotze horrek atzeraeraginak ditu; hots, ezkontza burutu zenetik izango da baliozkoa.

Ondoriozta daitekeenez, baliozkotze horrek ez du antzekotasun handirik eremu kanonikoko baliozkotze sinplearekin: alde batetik, aplikagarritasun-eremua mugatuagoa da; bestetik, arlo zibileko baliozkotzearen efektuak *ex tunc* dira, *ex nunc*, ordea, eremu kanonikoan.



### **Errotiko zuzenketa (KZko 48. art.)**

Kode Zibilaren 48. artikulua dioenez, ezkontzaren ondoren emandako dispentsak eragozpen horrengatik deuseza zen ezkontza baliozkotzen du, baldin eta, ordurako, judizialki, deuseztasun-akziorik bultzatu ez bada.

Kasu honetan, eremu kanonikoan baliozkotzean gertatzen den bezala, ezkontza-adostasunak irauten duelako ustekizuna egongo da eta, bestalde, baliozkotze horren efektuak *ex tunc* dira; hots, ezkontza burutu zen unetik aurrera bihurtzen da baliozkoa.

### **4. Kanonikoki buruturiko ezkontza baten baliozkotze zibila**

Baliozkotze-kasu kanoniko eta zibilak aztertu ondoren, sarreran aipatutako lehen zalantzari ekingo diogu; hots, ezkontza kanoniko baten baliozkotze zibila posible al da?

Galdera horri erantzuna emateko, zehaztu behar dugun lehen datua zera da: baliozkotze zibil hori posible izango da bakarrik baldin eta ordenamendu zibilak baliozkotu nahi dugun ezkontza hori deuseztat jotzen badu, noski. Elementu hori kontuan izanik, aplikagarri direnean, bide zibilak erabili ahal izango dira eremu horretan ezkontza kanoniko bat baliozkotzeko.

Ezkontza kanoniko baten baliozkotze zibilak honako ondorio hauek izango ditu:

\*Baliozkotze zibila gertatzen den unetik, ezingo da zibilki homologatu egitate horietan oinarritzen den ezkontza deuseztasun erabaki eliztarrik.

\*Baliozkotzearen efektuek atzeraeraginak izango dituzte; hots, ezkontza kanoniko hori burutu zenetik izango da baliozkoa zibilki.

### **5. Baliozkotze kanonikoen eraginkortasun zibila**

Nahiz eta baliozkotze mota zibil eta kanonikoen artean zenbait desberdintasun egon, horrek ez du esan nahi kanonikoki egin diren baliozkotzeek zibilki efekturik izan ezin dituztenik.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Baliozkotze kanonikoak zibilki homologatu ahal izateko, Erregistro Zibilean dagokion eliz autoritatearen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Dokumentu horretan, adierazi beharko da ezkontza-baliozkotasunaren oztopoa desagertu dela dagokion prozedura kanonikoari jarraituaz.

Baliozkotze kanonikoaren eraginkortasun zibila onartu eta gero, beraren efektuak, eremu zibilean, *ex tunc* izango dira beti, bestelako baliozkotze zibiletan bezala.

Doktrinak dioenez, arazoak sor ditzakeen kasu bakarra errotiko zuzenketa kanonikoa da, zehazki, horretan forma-akatsaren dispentsa gertatzen denean. Kasu horretan, Erregistroan aurkezten den ziurtagirian espresuki aipatzen ez bada ezkontza-adostasuna lekuko kualifikatu baten eta bi lekuko arrunten aurrean adierazi dela, baliozkotze hori ezingo da zibilki onartu eta, beraz, eremu horretan ez du eraginkortasunik izango.

## **12. IKASGAIA. EZKONTZA-DESEGITEA EREMU KANONIKO ETA ZIBILEAN**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1. Sarrera: kontzeptuak zehaztea**

#### **2. Ezkontza-banantzea**

#### **3. Ezkontza-desegitea**

- Sarrera

- Arlo kanonikoa:

- **Printzipio orokorra:**

ezkontza deseginezina da, RATO eta KONTSUMATUA bada

- **salbuespenak:**

**A) Kontsumatu gabeko ezkontza desegitea:** betekizunak; desegitea emateko eskuduntza; desegitearen eskaria; prozeduraren izaera;

“rato eta kontsumatu gabeko” erabaki kanonikoaren efektu zibilak

**B) “Rato” ez den ezkontzaren desegitea. Fedearen aldeko desegitea:** betekizunak; motak:

- **“ribilegio paulotarra” delakoa, 1143. kan.**

- Betebeharrak; galderak, 1144.-1147. kan.;  
desegite-prozedura

- **“Pribilegio pedrotarra” delakoa.** Bi suposamendu:

a) Desegitea legeak aurreikusten duenean:

- 1148. kan.: poligamia-egoera
- 1149. kan.: gatibualdia, jazarpen-egoerak

b) Desegitea Aita Santuaren xedapen bereziz

- Desegite horien homologazio zibila

- **Arlo zibila:**

- Ezkontza-desegitea arlo zibilean, KZko 85. art.

- Dibortzio-ereduak: zigortzekoa, adostasunezkoa, erremediozkoa  
- banantzea

: KZko 81.-84. art.

- Dibortzioa: KZko 86.-89. art.

- Deuseztasuna, banaketa eta dibortzio: komunak diren arauak. KZko 90.-106. art.

## **II. IKASGAIA GARATUTA**

### **1. Sarrera : kontzeptuak argitzea. Banaketa eta ezkontza-desegitea**

Heriotzaz edo heriotza-adierazpenaz gain, ezkontzari amaiera emateko, bi bide daude: ezkontza deuseztat jotzea edo ezkontza desegitea.

**Ezkontzaren deuseztasuna** lortzeko, hasteko, ezkontzak bere eraketan deuseztasuna ekarriko dion akats edo gabezia bat izan behar du. Akats edo gabezia horiek deuseztasun-kausa deitu ohi dira. Irakasgai honetan, deuseztasun-kausak lau ataletan sailkatu ditugu: a) dispensa jaso ez duten eragozpenak egotea; b) ezkontzeko gaitasun nahikoa ez izatea; c) ezkontza-adostasunik ez egotea edo akastuna izatea; d) forma-akatsak egotea.

Ezkontza batean, deuseztasun-kausarik ez bada, ezkontza baliozkotzat joko da.

Baliozkoa den ezkontza bati amaiera emateko gelditzen den bide bakarra **ezkontza-desegitearena** da. Horretan, ikusiko dugun moduan, ezkontza-lotura deseginda gelditzen da.

Badago, beste kategoria juridiko bat, tradizionalki ezkontza-desegitearekin lotuta egon dena, baina kategoria horrek bere izaera propioa du. Ezkontza-banantzea da.

**Banantzearen** kasuan, baliozko ezkontza bat dugu. Ezkontza baliozkotzat hartuko da, ordenamenduak ezarritako kontrol guztiak gaindituta burutu bada, betiere kontrakoa frogatzen ez den bitartean. Ezkontza-banantzeak ez dio ezkontza-loturari amaierarik emango; ezkontza-loturak indarrean jarraitzen du; gertatzen dena da ezkontideak banandu eta gero desagertu egiten dela elkarrekin bizitzeko duten obligazioa. Banandutako ezkontideak ez dira elkarrekin biziko.

### **2. Ezkontza-banantzea**

Ezkontza-banantzea arauturik dago nahiz arlo kanonikoan nahiz zibilean.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Arlo kanonikoan lorturiko banantzeak ez du inolako efektu juridiko zibilik izango; horregatik, guk ez dugu irakasgai honetan aztertuko.

Eremu kanonikoan, 1151.-1155. kanon bitartean arautzen da ezkontza-banantzea. Baina Elizako autoritateek emandako banantzeek eremu kanonikoan soilik izango dituzte efektuak, ez estatuaren zuzenbide-eremuan, ez baitago inolako arau zibilik efektu horiek aitortzen dizkionik. Ez da gertatzen deuseztasun-epaiekin edo rato eta kontsumatu gabeko erabakiekin gertatzen den bezala; izan ere, erabaki kanoniko horiek efektu zibilak izango ditzute, estatuaren ordenamenduak hala aurreikusi duelako bere araudian, hain zuzen, Egoitza Santuarekin 1979. urtean sinatutako akordioan, gai juridikoei buruzkoa, eta KZeko 80. artikuluan.

Ezkontza-banantzeen inguruan, 81.-84. artikuluetan, KZak dio ezkontzeko erabili den forma edozein izanda ere ezkontza-banantzea ezkontide ororen borondatearen ahalmenaren mende dagoela. Epaile zibilak parte hartuko du legeak eskatzen dituen betekizunak daudela egiaztatzeko. Banantze hori *egitatezkoa* izan daiteke, bikoteak inolako epairik gabe elkarbizitzari amaiera ematen badio, eta *legezkoa*, epailearen erabakiz ezarritakoa.

2005eko erreforma egin baino lehen, banantzea, legezkoa edo egitatezkoa, aurretiazko betebeharra zen dibortzioa lortzeko. 15/2005 Legak KZ erreformatu du eta hala nahi duten ezkontideek zuzenean jo dezakete dibortziora, ezkontza-loturari amaiera emateko.

Egun, ezkontza-banantzea, beraz, kategoria autonomoa da, berezitasun propioekin.

Ezkontza-banantzearen ondorioetako bat da ezkontideak ez direla elkarrekin biziko; amaiera emango zaio ezkontzarekin sortu zen elkarbizitzari. Banantzea epailearen aurrean gauzatzen bada, banantzearen ondorioak arautuko dituzten neurriak zehaztu beharko dira, KZko 90. artikuluan aurreikusten diren gaien inguruan: seme-alaben zaintza; beharrezko balitz, aitona-amonekiko bisita-erregimena; familia-etxebizitzaren eta etxeko gauzen erabilera; ezkontzaren zamei eta mantenu-betebeharrei aurre egiteko modua; hala badagokio, ezkontzaren ekonomia-erregimenaren likidazioa; ezkontideetako bati eman beharreko pentsioa edo konpentsazioa, hala badagokio.

### 3. Ezkontza-desegitea

Arlo zibilean, ezkontza desegitea lor daiteke –heriotzaz eta heriotza-adierazpenaz kanpo–, dibortzioaren bitartez, ezkontzeko forma edozein izanda ere, KZko 85. art. Ezkontza zibila ez da deseginezina.

Arlo kanonikoan, ordea, arau orokorra da ezkontza ezin dela desegin. Alegia, kausa naturalez kanpo –heriotzaren eta heriotza-adierazpenaren kasuak–, ezkontza kanonikoa ezin da desegin; ez dago dibortzioaren antzeko kategoriarik.

Dena den, salbuespen moduan, badaude ezkontza desegiteko kasu berezi batzuk. Ikus ditzagun.

#### - Arlo kanonikoa:

Horretan, **printzipio orokor** bat dago indarrean; ezkontza bat RATOA eta KONTSUMATUA bada, ezin da desegin, betiere kanpoan utzita heriotzaren eta heriotza-adierazpenaren kasuak; arau hori 1141. kanonean zehazten da.

**Ezkontza ratoa** dela jotzen da, sakramentua bada. Hori gertatuko da bi bataiatu modu baliozkoan ezkontzen direnean (1061.1 kan.).

Kontsumatzearen esanahia 1061.1 kanonean zehazten du Kode kanonikoak (CIC).

Beraz, ezkontza kanonikoa ratoa eta kontsumatua denean deseginezina da; horietako elementuren bat falta bada, ezkontza desegin ahal izango da. Azter ditzagun salbuespen-kasu horiek:

#### A.- Kontsumatu gabeko ezkontza-desegitea:

Kasu hori 1142. kanonean jasotzen da.

#### Betekizunak dira:

1.- Ezkontzak izan beharko du: **bi bataiaturen artekoa**, edo bataiatu bat eta bataiatu gabeko baten artekoa. Bigarren horri ezkontza “*dispar*” deitzen zaio; hori, berez, ez da ezkontza rato bat izango, sakramentu-izaera falta baitzaio (bi ezkontideek bataiatutakoak izan behar dute horretarako), baina nahitaezkoa den dispensa lortuta

ezkondu badira eta ezkontza ondoren kontsumatu ez bada desegin daiteke aztertzen ari garen bide horri jarraituta.

2.- Ezkontza **kontsumatu gabe** egotea.

1061. kanonaren barruan, ezkontza kontsumatuzat hartuko da honako betekizun hauek betetzen badira:

a) Ezkontideek Kodeak dioen moduan “acto conyugal” delakoa gauzatu badute, alegia, kopulaziodun sexu-harremanak izan badituzte.

b) Modu gizatiarrean, alegia, kontziente eta borondatez, askatasunez.

c) Kodeak dioen moduan: “apto de por sí para engendrar la prole”, alegia berez, ugalketarako egokia den moduan egindakoa. Espresio horren esanahiaren inguruan ez dago adostasunik doktrinan eta jurisprudentzian.

Batzuen ustez, ugalketa oztopatzen duen metodo antisorgailu ez-natural bat erabiltzen bada, ez da benetako “acto conyugal”-ik egongo; ondorioz, ezkontza ez da kontsumaturik egongo.

Beste batzuen ustez, hala nola Llamazares irakaslearen ustez, banandu egin behar da harreman sexual fisikoa ugalketatik, eta aipatzen du Kodeak berak hori egiten duela beste nonbait. Alegia, antzutasunaren kasuan, CICn jasotzen da antzutasunak ez duela inpotentziarik esan nahi, eta antzua den pertsona bat ez dagoela *inpotentziaren debekupean*. Kasu horretan, garrantzia kopulatzeko gaitasun fisikoari ematen dio, ez ugalketari.

Llamazaresek dio kontsumazioaren kasuan ere logika berari jarraitu behar zaiola; ondorioz, ezkontideen artean kopulaziodun sexu-harremanak gertatzen badira, ezkontza kontsumatuzat hartuko da, hori baita *berez* (apto de por sí) ugalketarako bide naturala, nahiz eta kasu konkretu horretan ez den ugalketarako egiten.

Beraz, kopulaziorik baldin badago, kontsumatzea egongo da.

Jurisprudentzian ez dago adostasunik, baina, auzitegi ugarritan, zera egiten da: ezkontza kontsumatuzat joko da ezkontideek kopuladun sexu-harremanak izan badituzte.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Frogatu egin behar da kontsumatu ez dela. Frogabideen artean, honako hauek daude: ezkontideen adierazpenak; egoeraren berri zekiten lekukoen itaunketa; dokumentu-froga; aztarnak eta presuntzioak; medikuek edo perituek eginiko gorputzen azterketak, inpotentzia aztertzeko edo, emakumearen kasuan, birjintasuna frogatzeko, baldin eta ezkontzaren aurretiko kopuladun sexu-harremanik izan ez bazituen.

Kodeak presuntzio bat jasotzen du: ezkontideak elkarrekin bizi izan badira, ezkontza kontsumatutzat hartuko da (1060.2 kan.), kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

3.- Kodeak eskatzen du kasu horietan **kausa bidezko bat** egotea. Alegia, kontsumatu ez izana azaltzen duen kausa edo arrazoia azaltzea. Normalean, honako hauek alegatzen dira kausa bidezko gisa:

- Inpotentzia-kasuak –gizonengan edo emakumeengan– nahiz eta ezkontza aurrekoak ez izan, behin betikoak edo sendaezinak; betekizun horiek emanda, inpotentzia hori kanonikoki ezkontzeko debekutzat jotzen da.

- Sexu-harremanak eragozten dituen gaixotasun larri edo kutsakor bat egotea

- Ezkontideen artean gainditu ezineko gorroto-kasuak

- Ezkontza-adostasuna beldurrez eman denean edo simulazio erabatekoaren kasuetan, nahiz eta berez ezkontza deuseza izan, deuseztasuna eskatzen ez bada (deuseztasuna eman bitartean ezkontza baliozkotzat hartzen da), eska daiteke kausa horrengatik ezkontza desegitea.

Azken finean, kausa bidezko horrekin frogatu nahiko da ezkontza desegiteko ezinbestekoa den zerbait: ezkontza hori erabat hautsita dagoela, adiskidetzeko aukerarik gabe.

Kode kanonikoak dioenez (1142 kan.), **desegite hori emateko eskuduna** Aita Santua da. Horrek organo bikario edo delegatu baten bitartez jardungo du -*Sagrada Congregación para los Sacramentos* delakoa-. Horiek aztertuko dute kasua, betekizunak behar bezala betetzen diren ikusteko. Erabakia Aita Santuari dagokio.



## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Dena den, prozeduraren izapideak egiteko eskuduna Diozesiko Gotzaina izango da, eskaria egiten duen alderdiaren helbideari dagokiona, 1699. eta 1700. kan.. Horrek aztertuko du lehenbizi ezkontza desegiteko eskaria.

**Ezkontza desegiteko eskaria**, bi alderdiek eska dezake edo batek bakarrik, nahiz eta beste alderdia ados egon ez, 1142. eta 1697. kan.

**Prozeduraren berezitasunei** dagokienez, ez da auzi-prozedura judizial bat, deuseztasun-kasuetan bezala, non auzitegi batek epai bitartez erabakiko baitu bi alderdiek beren alegazioak egin ondoren.

Hori **prozedura administratibo kanoniko** bat dugu, eta erabakia egintza administratibo kanoniko bat izango da, erreskriptu bitartez emango dena. Prozedura horretan nahitaezkoa izango da bi alderdiek esan behar dutena entzuntea. Prozedura berezi hori 1697.-1706. kanonetan arautzen da.

**Rato eta Kontsumatu gabeko desegitea** aitortuko duen Aita Santuaren erabakiak **efektu zibilak** izango ditu, estatuko ordenamenduak hala aurreikusten duelako. Estatuko araudiak hala jasotzen du KZko 80. artikuluan eta Egoitza Santuarekin 1979. urtean sinatutako akordioetan, Gai Juridikoei buruzkoan, VI. artikuluan.

Deuseztasun-epai kanonikoekin batera, arau horietan aurreikusten da rato eta kontsumatu gabeko ezkontzen inguruan emandako Aita Santuaren erabakiek efektu zibilak izango dituztela, baldin eta **estatuko zuzenbiderekin bat etortzen** badira. Bat-etortze horren esanahiaren inguruan, ez dago adostasunik. Erabaki kanonikoa bat datorrela erabakitzeko, substantzia- eta forma-irizpideak hartuko dira kontuan. Substantzia-irizpideek efektuak aitortzen dituen erabaki kanoniko horren funtsa izango da kontuan, ea ezkontza-arau zibilekin batera daitekeen; erabaki kanonikoa eman duen prozesuaren berezitasunak irizpide prozesalen arabera aztertuko dira.

KZeko 80. artikulua dioenez, eliz xedapen horiek bat datozela erabakitzea epaile zibilarri dagokio eta haren xedapenak Prozedura Zibilaren Lege zaharreko 954. artikuluan jasotako betekizunei jarraituko die.

**Batzuek identifikatu egiten dute bat-etortzea PZLk (Prozedura Zibilaren Lege zaharrak) bere 954. artikuluan jasotako betekizun horiek betetzearekin;** horiek lau dira eta izaera prozesala dute, nagusiki:

a) **Xedapena akzio pertsonal baten ondorio izatea:** baldintza hori kausa guztietan agertuko da; izan ere, ezkontza-eremuko akzio guztiak dira pertsonalak.

b) **Xedapena *rebeldia* edo auzi-ihesirik gabe ematea:** aztertu beharko da ea erabaki kanonikoa eman duen prozesuan bi alderdiek aukera izan duten beren burua defendatzeko.

c) **Xedapena benetakoa izatea:** irizpide horrekin aztertuko da eremu kanonikotik datorren xedapena *benetakoa* dela, faltsifikatu gabea; hori egiaztatzeko neurriak hartuko dira.

d) **Xedapenaren objektua zilegi izatea aplikatu behar den estatuan:** doktrinak ordena publikoa errespetatzearekin identifikatzen du zilegitasuna. Alegia, exekutatu nahi den ebazpen kanoniko horrek espainiar estatuko ordena publikoa errespetatu beharko du; hala bada, *bat datorrela* joko da eta efektu zibilak izango ditu.

Esan beharrik ez dago ordena publikoaren kategoria hori zehaztu gabeko kontzeptu juridiko bat dela. Oro har, ordena publikoa errespetatzen dela jotzen da Konstituzioko printzipioak eta oinarrizko eskubideak errespetatzen badira, edo bi Zuzenbideen arteko ezkontza-deuseztasun kategoriekin kontraesanik sortzen ez bada.

Batzuen ustez, epaile zibilak ez du zertan bilatu erabaki kanonikoaren oinarri den kausaren pareko zibilik. Izan ere, akordioak sinatu zirenean, efektu zibilak aitortzeko aukera aurreikusiz, bi ordenamendu arteko deuseztasun- eta desegite-bideak desberdinak ziren; akordioa sinatu zutenen asmoa ez omen zen kausa-berdintasuna eskatzea.

**Beste batzuen ustez, hala nola Llamazares irakaslearen ustez, bat-etortzea zerbait gehiago da.** Ez da nahikoa izango Prozedura Zibilaren Legearen 954. artikuluko betekizunak betetzea. Erabaki kanonikoa estatuko zuzenbiderekin bat datorrela jotzeko, beharrezkotzat hartzen dute bi ordenamenduen artean tipo homologoak egotea.

Beraz, desegiteari dagokionez, epaile zibilak aztertu beharko du desegitea sorrarazi duen tipo kanonikoak ba ote duen antzekorik tipo zibiletan; hala bada, bat-etortzea gertatuko da, eta efektu zibilak izango ditu, bestela ez.

Zer gertatzen da, rato eta kontsumatu gabeko Aita Santuaren erabakiekin? horiek desegite kanonikoaren kasu bat dira. Epaile zibilak aztertu beharko du ea *bat etor daitezkeen* desegite zibilaren kasuekin . Kasu horiek 15/2005 legeak egindako erreforma arte, 86. artikuluan jasotzen ziren. Artikulu horretan, kontsumatu ez izana ez zen desegiteko kausa moduan agertzen. Dibortzio-kasu guztietan agertzen zen, ordea, ezkontza-bizitzaren erabateko amaiera.

Llamazares irakasleak honako gogoeta hau egiten zuen: desegintza kanonikoa eskatu bada kontsumatzea falta delako, beti gertatzen da ezkon-bizitzaren erabateko amaiera; kontsumatu gabeko ezkontzen kasuan, normalean ez da ezkontza-bizitzarik egongo edo horrek ez du denbora luze iraun. Kontsumatzen ez bada, beti egongo urratutako ezkontza bat.

Beraz, autore horren ustez, *bat-etortzeari* dagokionez, kontsumatu ez izana bigarren mailan utzita, **antzekotasuna bilatu beharko da ezkontza-bizitzaren erabateko amaieran**, hori baita eremu kanoniko eta zibilaren arteko bateratasuna.

Dena den, aipatu dugu erreformaren ondoren KZeko 86. artikulua dioela dibortzioa judizialki dekretatuko dela ezkontide batek edo biek hala eskatuta, betiere 81. artikuluko betekizunak beteta: ezkondu zirenetik 3 hilabeteko epea igaro izana, eta dibortziaz den bikotearen harremana arautuko duen hitzarmen-araugilea zehaztea, 90. artikulua. Ez da eskatzen dibortzio-kausarik egotea; dibortzioa jadanik ez da kausala, borondatean oinarritutakoa baizik.

Egoera horretan, eta rato eta kontsumatu gabeko ezkontzen kasuan, bi eremuen arteko antzekotasuna ezkontzari amaiera emateko borondatea izango da; eremu kanonikoan, gainera, kontsumatu ez izana eskatuko da.

## **B. “Rato” ez den ezkontzaren desegitea: fedearen aldeko desegitea**

Desegite kanonikoen beste salbuespena dugu hori. Kasu horretan, ezinbestekoa izango da **desegiten den ezkontza rata ez izatea**, sakramentuzkoa ez izatea, alegia. Bide horri jarraituz, **bataiatu gabekoen arteko ezkontzak** desegin ahal izango dira, Eliza Katolikoaren eremuan; desegite mota horiek ez dute efektu zibilik izango.

Horrelako desegiteak gauzatzeko, honako **betekizun komun** hauek bete beharko dira:

- 1.- Desegiten den ezkontza ez da sakramentuzkoa izango
- 2.- Ezkontza hori hautsita egongo da adiskidetzeko aukerarik gabe<sup>15</sup>
- 3.- Berriro ezkontzeko asmoa egongo da, eta ezkontza horrek *hobeto* bideratuko du katolikoa den ezkontidearen fedea. Hortik dator haren izena: fedea babesteko *–en favor de la fe–*.

Fedea babesteko desegiteak bitan banatu ditzakegu:

### **1.- Desegitea, “pribilegio paulotarra” delakoaren bitartez, 1143. kan. eta hurrengoak**

Pribilegio hori aplikatu ahal izateko, honako **betekizun** hauek bete beharko dira, 1143. kan:

- Bataiatu gabeko bi pertsonaren ezkontza izango da; ezkontza **legitimo edo naturalak** deritzonak. Zuzenbide kanonikoak baliozkotzat jotzen ditu ezkontza horiek; izan ere, pertsona horiek bataiatu gabe egonda, ezin dira kanonikoki ezkondu; zuzenbide kanonikoa ez da loteslea haientzat.
- **Ezkontide horietako batek bataiatu beharko du**; bestea bataiatu gabe geratuko da. Datu horrek, ezkontide baten bataioak, alegia, emango dio sarbidea zuzenbide kanonikoari ezkontza legitimo edo natural horien eremuan.
- **Bataiatu gabeko ezkontideak ez du** ezkondata **jarraitu nahiko** bataiatu denarekin; horregatik, banandu egingo da; edo nahiz eta elkarrekin bizitzen jarraitu, ez du errespetatuko haren sineskera berria.

Banantze hori **frogatu** egin behar da, eta, horretarako, Kode kanonikoak bide berezi bat arautzen du, 1144. eta 1145. kanonetan: **galdetzea, interpelazioa**. Alegia, bataiatu ez den ezkontideari galdera bikoitz bat egingo zaio:

- 1.- Ea berak ere bataiatu nahi duen
- 2.- Ea, behintzat, modu baketsuan bizi nahi duen ezkontidearen fede berria iraindu gabe.

---

<sup>15</sup> Gaur eguneko kasuetan, ezkontza horiek eremu zibilean jadanik deseginda egongo dira dibortzioa dela medio.

Galdera horiek Tokiko ordinarioak egingo ditu; baina betekizun horri dispensa eman dakioke, ezinezkotzat jotzen bada galderak egitea, edo frogatzen bada alferrikakoak izango zirela ezezko erantzuna argi dagoelako, 1144.2. kanona.

Galdera horien erantzuna ezezkoa bada, bataiatutakoa berriro ezkondu ahal izango da, hasiera batean, beste katoliko batekin. Baina kausa larri bat badago eta Tokiko ordinarioaren dispensa lortzen badu, katolika ez den bataiatu batekin edo bataiatu gabeko batekin ezkondu ahal izango da, 1147. kanona.

Ezkontza berria burutzen den une horretan desegingo da –ordenamendu kanonikoari dagokionez– aurreko ezkontza, bestelako tramite edo izapiderik gabe.

## **2.- Desegitea “pribilegio pedrotarra” delakoaren bitartez**

Horretan, bi kasu bereiz daitezke:

### **a) Desegitea legeak aurreikusten duen kasuetan:**

Kode kanonikoak bi kasu aurreikusten ditu, 1148. eta 1149. kanonetan. Horien zentzua ulertzeko, beren jatorria izan behar da kontuan; XVI. mendean kokatuko gara, kolonizazio-eremu batean, non erlijio katolikoa bestelako herrialdetara zabaldu nahi baitzen. Sortzen ari ziren arazo batzuei erantzuteko sortu ziren ezkontza-desegite modu horiek.

- **1. kasua 1148. kan.:** Poligamiari eta poliginari aplikatzen zaien kasua dugu. Hala pertsona batek bataiatu gabeko ezkontide ugari baldin baditu eta Eliza Katolikoan **bataiatzen bada**, ezin du ezkondua jarraitu aurreko ezkontide guztiekin; ezkontide bakarra aukeratu behar du. Hasiera batean, behintzat, lehenengoarekin geratu beharko luke, hori baita legitimoa, baina, hori zaila egiten bazaio, besteren bat aukeratu dezake. Betiere, ziurtatu beharko du beste ezkontideen mantenua.

Aukera egin ondoren, Kodeak dio ezkontza berriro egin behar dela *forma legitimoan*, forma kanoniko arruntean, alegia. Ezkontza berri hori burutzean desegingo dira aurreko beste ezkontzak. Inolako eliz agintariri ez zaio eskatu beharko aurreko ezkontzak desegitea.

Kanon horrekin, irtenbidea eman nahi izan zitzaien katolizismora bihurtzen ziren pertsonen poligamiako edo poliandriako kasuei.

- **2. kasua 1149. kan.:** Kasu hori aplikagarria da gatibualdia, esklabotza edo jazarpena dela-eta aldendurik dauden ezkontideentzat. Aipatu dugun bezala, Afrikatik Ameriketara indarrez eramandako esklaboen inguruan sortzen ziren egoeretan dago kanon horren jatorria.

Egoera horietako batean zegoen ezkontide bat Eliza katolikoan bataiatuko balitz eta aipaturiko arrazoiengatik aurreko ezkontidearekin elkarbizitza berrezartzea ezinezko egingo balitz, berriro ezkondu ahal izango litzateke; berriro ezkontzean, aurreko ezkontza desegingo da. Ezkontzaren desegite hori ez da espresuki eskatu behar.

#### **b) Desegitea Aita Santuaren xedapen berezi baten bitartez:**

Kode kanonikoan jasotzen diren kasuez kanpo, Aita Santuak ahalmena izango du xedapen berezi baten bitartez, fedea babesteko zenbait ezkontza desegiteko.

Beti ere, ratoak ez diren ezkontzak izango dira, bataiatu gabeko bi pertsonaren arteko ezkontzak, edo bataiatuaren eta bataiatu gabekoaren arteko ezkontza (ezkontza *dispara*).

Kasu horietan, Aita Santuaren xedapen berezi baten bitartez desegingo da ezkontza. Xedapen horrek aurreko ezkontza desegin eta berriro ezkontzeko aukera emango du; ezkontza berriak hobeto babesteko baitu ezkontide horren fedea.

Kasu horietan, ezkontzak desegiteko, betekizun batzuk bete behar dira; 1973ko **instrukzio** batean jasotzen dira. Hor, modu horretako desegiteak gauzatzeko **prozedura berezi** bat ere jasotzen da. Tokiko Ordinarioak egingo ditu izapideak. Azterketa guztiak egin ondoren, Egoitza Santura bidaliko ditu material guztiak Aita Santuak erabakia har dezan bere organo bikario baten bitartez (*Sagrada Congregación de la Doctrina de la Fe* izenekoa).

Arlo zibilean ez da jasotzen modu horretako ezkontza-desegiteak efektu zibilak izateko aukerarik. Beraz, desegite horiek eremu kanonikoan bakarrik izango dituzte efektuak.

**- Arlo zibila:**

KZeko 85. artikuluan esaten da ezkontza desagiten dela, edozein izanda ere hori burutzeko forma eta garaia: ezkontide baten heriotza edo heriotza-adierazpena dela medio edo dibortzioa dela-eta.

Lehenengo biak Eliza Katolikoarenak bezalakoak dira, kontuan izanik heriotza-adierazpenaren inguruan dagoen desberdintasuna<sup>16</sup>. Dibortzioa KZn arautu zen EKren ondoren, 30/1981 legearen bitartez.

Oro har Estatu batek dibortzioa arautu nahi duenean, hainbat **bide daude** dibortzio hori bideratzeko; dibortzioa modu ezberdinetan uler daiteke:

a) **Borondatearen arabera dibortzioa**, horretan, dibortzioa ezkontideen borondate soilagatik gertatuko da; betiere, ordenamenduak akordio hori homologatzeko prozedura bat ezarriko du.

b) Dibortzioa zigor gisa, horretan, ezkontzaren desagitea ezkontide baten *erruan* oinarrituko da. Dibortzioa erru horren zigorra izango da, eta, noski, ezkontide errudunaren jarduera aztertu beharko da.

c) Konponbidezko edo erremediozko dibortzioa, horretan ez da errudunik bilatuko; ezkontza hautsi dela soilik adierazi beharko da; dibortziorako bideak ezkontideen arteko elkarbizitzaren amaiera oinarria izanda ezar daitezke.

Horiek dira teoriar sistematizatu diren *dibortzio-sistemak*. Dena den, Estatu bakoitzeko legerietan, dibortzioa arautzerakoan ez zaio sistema bakarrari erabat jarraitzen, baizik eta, normalean, sistemak misto edo nahasiak izan ohi dira.

Horrelakoa izan zen espainiar Estatuak 1981ean ezarri zuen **sistema**. Dibortzio kausen artean –KZeko 86. artikuluan araututa zeudenak–, erremediozko dibortzioaren adibideak zeuden, baita zigor-dibortzioaren kasu bat ere.

---

<sup>16</sup>Arlo zibilean, heriotza-adierazpena ezkontza desagiteko bide bat da; beraz, adierazpen horrek berriz ere ezkontzeko aukera emango du. Berriz ezkontu eta gero, lehenengo ezkontidea agertuko balitz, zibilki baliozkoa bigarren ezkontza litzateke. Arlo kanonikoan ez da hala gertatuko; izan ere, eremu kanonikoan, desagertutzat jo zen ezkontidea agertuko balitz, horrek agerian utziko luke lehenengo ezkontidea bizirik zegoela eta, horren ondorioz, baita lehenengo ezkontza ere; beraz, bigarren ezkontza deuseza litzateke, lehenengo ezkontza bizirik egonda egin zelako.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Aipatu dugun moduan, 2005eko uztailaren 8ko 15/2005 legearen bitartez, espainiar Estatuan, aldatu egin zen dibortzioa bideratzeko modua. Aipatu dugun borondatezko edo adostasunezko dibortzioaren bideari jarraitu zaio.

86. artikulua horren adierazgarri da.

- Ezkontzeko forma edozein izanda da ere, dibortzioa judizialki dekretatuko da:

- **Ezkontide batek bakarrik hala eskatzen duenean**

- Edo **biek hala eskatzen dutenean**

- Edo **batek bestearen adostasunarekin eskatzen duenean**

- Betiere 81. artikulutik ondorioztatzen diren baldintzak beteta:

a) Ezkontideek egindako **eskaria**

b) Ezkondu zirenetik **3 hilabete igarotzea**. Epe hori ez da eskatuko frogatzen bada dibortzioa eskatzen duenaren edo haren seme-alaben bizia, segurtasun fisiko edo morala, askatasuna edo sexu-ongizatea arriskuan dagoela.

c) Dibortzio-eskaera bi ezkontideek, edo batek bestearen onespenearekin, aurkezten badute, **hitzarmen-araugilearen** proposamen bat aurkeztu beharko dute, eta, hor bertan, honako hauek zehaztu: seme-alaben zaintza, bisitak, familia-etxebizitza eta gauzak nori dagozkion, dauden zama ekonomikoak nola ordaindu, besteak beste.

Ezkontza-krisia dagoenerako –banantze-, dibortzio- edo deuseztasun-kasuetan–, KZk neurri batzuk jasotzen ditu egoera guztietan zehazteko komunak direnak, KZeko 90. artikuluan eta hurrengoetan. Amaitu den ezkontza-bizitzari edo -loturari dagozkion familiako nahiz ekonomia-arazoak zuzentzeko neurriak dira.



## **13. IKASGAIA: EZKONTZA DEUSEZTATZEKO PROZEDURA KANONIKO ETA ZIBILAK**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **1. Sarrera**

#### **2. Ezkontza deuseztatzeko prozedura kanonikoa (1671. eta 1691. bitarteko kanonak)**

-Prozedura orokorra (1677. eta 1685. bitarteko kanonak)

\**Litisa* ezartzea

\*Froga fasea

\*Helegiteak:

+Gora jotzea

+Deuseztatze-helegitea

+Berrikuste-helegitea

-Dokumentu-prozedura (1686.-1688. kanonak)

-Efektuak

#### **3. Ezkontza deuseztatzeko prozedura zibila (Prozedura Zibilaren Legearen IV. Liburuko I. Tituluaren IV. Kapituluak)**

-Eskuduntza (769. art.)

-Ahozko epaiketaren arauak (437.-447. artikulua) + berezitasunak (753. eta 770. artikulua)

-Behin-behineko eta behin-betiko neurriak (771.-774. artikulua)

-Efektuak (KZko 79. artikulua eta 90.-101. artikulua)

#### **4. Ezkontza-deuseztasuna aitortzen duten eta *rato* eta kontsumatu gabeko ezkontza desegiteko eliz erabakien homologazio zibilaren prozedura (Prozedura Zibilaren Legearen 778. art.)**

## **II. IKASGAIA GARATUTA**

### **1. Sarrera**

Aurrez ikusi dugun bezala, Kode Zibilaren 80. artikularen arabera, ezkontza-deuseztasuna aitortzen duten eliz erabakiak zibilki homologa daitezke; hots, efektu zibilak izan ditzakete, baldin eta haien edukia ordenamendu zibilarekin bat etortzen bada. Arrazoi horrengatik, eremu kanonikoan eta eremu zibilean aurreikusten diren ezkontza-deuseztasunaren kasuak aztertu eta deuseztasun-kasu kanonikoetan oinarrituriko ezkontza-deuseztasunaren eliz erabakien homologazio zibila lortzeko aukeraren gainean ere aritu gara.

Lan hori burutu ostean, bi eremuetan ezkontza deuseztatzea lortzeko prozedurak eta eliz erabakien homologazio zibilaren izapidetzea aztertzea da gure azken helburua.

### **Ezkontza deuseztatzeko prozedura kanonikoa (1671. eta 1691. bitarteko kanonak)**

Eremu kanonikoan ezkontza kanoniko baten deuseztatzea bultzatzen denean, eliz auzitegiek Zuzenbide kanonikoa –substantiboa zein prozesala– aplikatu behar dute. Erabaki horien eraginkortasun zibila sustatzen ez den bitartean, eliz prozesu horiek eta horietatik eratortzen diren erabakiak guztiz autonomoak dira, Eliza katolikoari aitortzen zaion subiranotasun-esparruaren barruan baitaude. 1671. kanonak dioen bezala, bataiatuen inguruko ezkontza-kausak berezko eskubidez dagozkie eliz epaiei.

Eremu kanonikoan, judizialki aitortutako ezkontza-deuseztatzea irmoa izan dadin, zentzu bereko 2 eliz epai beharko dira. Eremu kanonikoan, honako instantzia arrunt hauek daude: 1. Elizbarrutiko auzitegia (Euskal Autonomia Erkidegoan, 3 elizbarruti daude: Bilbokoa, Gasteizkoa eta Donostiakoa eta bakoitzaren lurralde-eremua dagokion Lurralde Historikoa izango da). 2. Artzapezpiku-barrutiko auzitegia (Bilboko eta Gasteizko elizbarrutiak Burgoseko artzapezpiku-barrutiaren menpe daude; Donostiakoa, berriz, Iruñekoaren menpe) 3. Espainiako Rotako Auzitegia (hori Espainiar Estatuan dagoen berezitasun bat da; beste, Estatuetan, azken instantzia Erromako Rotako Auzitegian izango dute).

**Ezkontza deuseztatzeko prozesuez 1. instantzian arduratzeko eskuduntza honako eliz auzitegi hauei dagokie:**

-Ezkontza burutu zen tokiko auzitegia

-Demandatuaren helbideko auzitegia

-Deuseztatze-akzioa aurrera eramán duen alderdiaren helbideko auzitegia, bi ezkontideak Gotzain-batzar beraren lurralde-eremuan bizi baldin badira eta alderdi demandatuaren helbideko bikario judizialak baimena ematen baldin badu.

-Prozesuko froga gehien jaso behar duen lekuko auzitegia, alderdi demandatuaren helbideko bikario judizialak baimena eman ez gero.

Estatuburuén ezkontza deuseztatzeko prozesuaz arduratzeko eskuduna Aita Santua da (1405.1 kan.).

**Deuseztatze-akzioa aurrera eramateko legitimazioari** dagokionez, bi ezkontideak bizirik izanez gero, biak egongo dira legitimatuak, baita justizia-sustatzailea ere, ezkontzaren deuseztasuna publikoki hedatuz gero eta baliozkotzea posible ez bada edo egokitzat jotzen ez bada (1674. kan.). Bi ezkontideak edo bat behintzat hilik baleude/balego, ezkontzaren deuseztatzea beste prozesu kanoniko edo zibil baten judizio aurreko auzi bat balitz bakarrik bultzatu ahal izango litzateke (1675. kan.).

Auzia onartu aurretik eta arrakasta lortzeko aukerarik ikusiko balu, eskuduna den organo judiziala behartuta legoke alderdiak konbentzitzera ezkontzaren baliozkotzea saia dezaten (1676. kan.).

Auzia onartu ondoren, ordenamendu kanonikoak bi prozedura aurreikusten ditu ezkontza deuseztatzeko, bata arrunta edo orokorra eta bestea apartekoa. Lehenengoa deuseztasun-kasu guztiei aplikagarri zaie; bigarrena, berriz, eragozpenen eta formakatsen kasuei bakarrik. Bigarren prozedura hori lehenengoa baino arinagoa da.

**-Prozedura orokorra (1677.-1685. kanonak):**

\**Litisa* ezartzea: demanda onartu ondoren, demandatuari jakinaraziko zaio eta 15 eguneko epea emango zaio erantzuteko. Epe hori amaitutakoan (eta alderdiren batek demandari erantzuna emateko saiorik eskatu ez badu), 10 eguneko epean, organo eskudunak, ofizioz eta dekretu bitartez, *litisaren* formula zehaztuko du, hots, ezkontzaren deuseztasuna zein kasurengatik eskatzen den, eta alderdiei jakinaraziko die. Azken pauso hori eman eta beste 10 eguneko epean, auziaren instrukzioa aginduko da (1677. kan.).

\*Froga fasea: fase horretan, ezkontzaren deuseztasuna baita kontrakoa ere –hots, baliozkotasuna– argudiatzeko frogak aurkeztuko dira. Horretan, alderdien abokatuak, justizia-sustatzaileak eta ezkontza-loturaren defendatzaileak hartu ahal izango dute parte (1678. kan.). Egin daitezkeen frogen barnean, eta ezkontza deuseztatzeke kausa gaitz psikikoak izanez gero, peritu-frogak egin ahal izango dira (1680. kan.).

\*Organo eskudunak erabakia emango du eta horren kontra helegitea aurkezteko hiru aukera egongo dira:

+Gora jotzea: ezkontza deuseztatzeke eskaria atzera botaz gero, gora jotzeko helegitearen arau orokorrak aplikatuko dira (1628.-1640. kanonak).

Ezkontza-deuseztasuna adieraziz gero, helegite horren izapidetzea arindu egiten da; kasu horretan, gora-jotzea ofizioz egiten da; epaia argitaratu eta 20 eguneko epean, hori eman duen auzitegiak gora-jotzeaz arduratuko den organoari bidaliko dio auziaren dokumentazioa (1682.1 kan.). Lehen instantzian emandako epai baten aurkako gora-jotze bat izanez gero, 2. instantziako organoak deuseztasuna berretsi ahal izango du, eta erabakia irmo bihurtu, edota auzia onartuko du, hori berriz ere azter dadin (1682.2 kan.). Azken kasu horretan, eta prozedura amaitzean, ezkontzaren deuseztasuna adierazi ahal izango da (epai irmoa), edo horren baliozkotasuna aitortuko da, eta beste helegite bat beharko da erabaki irmo bat lortzeko.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Helegitea jaso duen epaia 2. instantziakoa bada, gora jotzeko auzitegiaren erabakia irmoa izango da beti, deuseztasunaren zein baliozkotasunaren aldeko izanda ere.

Gora-jotzean ezkontza-auzi berri bat aurkeztuz gero, helegite horretaz arduratzen den organoak 1. instantziako auzitegia balitz bezala epaitu ahal izango du auzia (1683. kan.).

+Deuseztatze-helegitea: helegite hori aurkeztuko da prozesuan oinarrizko arau prozesalak bortxatu direla uste izaten bada (eskuduntza falta, alderdien legitimazio falta, epailearen askatasun falta...), horrek prozesuaren deuseztasuna baitakar (1620. eta 1622. kanonak). Alderdiek eta ezkontza loturaren defendatzaileak aurkeztu ahal izango dute helegite hori (1626. kan.), erabakia eman zuen organoaren aurrean, baina, horrenganako mesfidantzarik badago, eskatu ahal izango da beste organo bat helegiteaz arduratu dadin (1624. kan.).

Helegite hori aurkezteko epe-mugarik ez dago, planteatutako prozesuaren bizioa konpongarria ez bada (1620. kan.); konpongarria bada, 3 hilabeteko epea egongo da epaia argitaratu zenetik (1622.-1623. kanonak).

+Berrikuste-helegitea: nahiz eta ezkontza deuseztatzeko auzi baten gaineko epai irmo bat izan, froga edo egitate edo horiei buruzko interpretazio berri eta erabakigarriak agertuz gero, berrikuste-helegitea aurkeztu ahal izango da gora jotzeko auzitegiaren aurrean helegite hori proposatu zenetik 30 eguneko epean (1643. kan.).

### **-Dokumentu-prozedura (1686.-1688. kanonak):**

Prozedura hori ezkontza deuseztatzeko akzioa eragozpenen eta forma akatsen kasuetan oinarritzen bada aplika daiteke. Prozedura horren berezitasuna bere izapidetze sinplifikatu eta arina da, erabakia oinarrituko duten egitateak dokumentuen bidez modu argian agertzen baitira.

Kasu horretan, eskuduna bikario judiziala izango da, horrek epai delegatu bat izendatu ahal izango du. Demandaren aurkezpena, horren erantzuna eta *litis*aren ezarpena prozedura orokorraren arauen arabera egingo dira. Froga faserik ez da izango hor, ordea. Organo eskudunak erabakia emateko datu guztiak dokumentuen bidez zehaztuta badauzka, fase horren beharrik ez da izango. Zuzenean, alderdiei eta ezkontza-loturaren defendatzaileari deituko die; horiek epailearengana joan eta, zentzu bateko edo besteko erabaki bat emateko froga nahikorik badago, bere erabakia jakinaraziko die. Froga nahikorik ez badago, ez da erabakirik emango eta prozedura orokor bat sustatzeko duen aukera jakinaraziko dio auzi-jartzaileari.

Erabakirik balego, gora jotzeko aukera egongo litzateke eta, 2. instantzian, izapidetze sinple horri ere jarraituko zaio pertsona bakarreko organo baten aurrean. 2. instantzian, ohar bat emango da aurreko erabakia konfirmatu edo prozesu arruntera jo behar dela jakinarazteko.

**Efektuei** dagokionez, edozein prozedura erabiliaz 2. instantzian ezkontza-deuseztasuna adieraziz gero, ezkontza ez baliozkotzat joko da eta bikotearen bi alderdiak aske izango dira berriz ere ezkontzeko.

### 3. Ezkontza deuseztatzeko prozedura zibila

Prozedura Zibilaren Legearen (2000. urteko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea) IV. Liburuan, adierazpen-prozedura zibil bereziak biltzen dira. Legearen atal horren I. Tituluaren IV. Kapituluan prozedura zibil horien artean biltzen diren ezkontzaren inguruko prozesuak arautzen dira; erregulazio hori ezkontza deuseztatzeko helburua duten prozesuei, zein ezkontza deuseztasuna adierazten duten eliz erabakiak zibilki homologatzeko prozesuei izango zaie aplikagarri.

Prozedura Zibilaren Legearen IV. Liburuko I. Tituluaren IV. Kapitulu horretan zehazten denez, ezkontideen helbideko 1. instantziako epaileak izango du deusetatze-prozesuez arduratzeko **eskuduntza**. Bi ezkontideak partidu judizial desberdinetan biziko balira, ezkontideen azken helbideko edo demandatuaren egoitzako epaitegia izango litzateke organo eskuduna, auzi-jartzaileak zer aukeratzen duen (769.1 art.).

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Helbide edo egoitza finkorik ez dutenak une horretan dauden lurraldeari edo izandako azken egoitzari dagokien 1. instantziako epaitegian demandatu ahal izango dira, auzi-jartzaileak zer aukeratzen duen (769.2 art.).

Prozesuaren edukiari dagokionez, deuseztatze-prozesuei **ahozko epaiketen arauak** (437.-447. artikulua) izango zaizkie aplikagarri, **berezitasun batzuekin** (753. eta 770. artikulua). Berezitasun horien artean, honako hauek azpimarra daitezke:

-Prozesu horietan, Ministerio Publikoak parte hartuko du beti (749.1 art.).

-Deuseztasun-demanda aurkezterakoan, ezkontzaren inskripzioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da eta, seme-alabak edukiz gero, baita horien inskripzio-ziurtagiria ere (770.1 art.).

-Demandaren erantzunean, errekonbentzioa aurkeztu ahal izango da; horri erantzuna emateko, auzi-jartzaileak 10 egun izango ditu. Errekonbentzioa egin ahal izango da, demandatuak beste deuseztatze-kasu bat planteatuz gero edota horrek dibortzioa edo banaketa eskatu nahi izanez gero (770.2 art.).

-Entzunaldia, bi alderdiak aurkeztu beharko dira eta, han, frogak aztertuko dira (770.3 art.). Entzunaldian burutu ezin daitezkeen frogak aurrera eramateko, epaileak epe bat (gehienez 30 egunekoa) ezarri ahal izango du (770.4 art.).

-Alderdiek prozesuaren edozein unetan eskatu ahal izango dute hori bertan behera uzteko, bitartekaritza-tresna saiatzeko (770.7 art.).

Ezkontza negozio juridikoa objektu duten prozesuetan, seme-alaben edota bikotearen ondarearen eta erregimen ekonomikoaren inguruan hartzen diren neurriek garrantzi handia dute. Ildo horretan, honako hauek dira gai horri buruzko oinarrizko auzibide-arauak:

-Kode Zibilaren 102. eta 103. artikuluetan aipatzen diren **behin behineko neurriak** eskatu ahal izango dira demanda-akzioa aurkezteko asmoa badago. Epaileak ezkontideei eta, adingabeak edo ezgaiak diren seme-alabak egonez gero, baita

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Ministerio Publikoari ere deituko die, beren arteko akordio bat saiatzeko. Akordioarekin edo akordiorik gabe, epaileak auto bidez erabakiko du horren gainean. Auto horren kontra ezin izango da helegiterik aurkeztu (771. art.).

Deuseztatze-demanda onartu ondoren, epaileak edo alderdi demandatuak behin-behineko neurriak osatu edo aldatu nahi izanez gero, alderdiak bildu eta horien inguruko akordioa lortzen saiatuko da. Berriz ere, horren inguruan, auto bidez erabakiko du, eta haren aurkako helegiterik ezin izango da aurkeztu (772. art.).

-Ordura arte behin-behinekoak ziren neurri horiek, epailearen epaian, **behin betiko** bihurtuko dira. Azken erabaki horretan, ezkontzaren baliozkotasuna edo deuseztasuna erabakitzeaz gain, behin-betiko neurriak ere zehaztuko ditu epaiak, Dena den, azken erabaki horretan eta prozesuan jasotako datuen arabera, epaileak horiek alda ditzake. Prozesuaren entzunaldian, alderdiek beren akordioa aurkeztu ahal izango dute horien gainean, epaileak hori bere erabakian bil dezan (773. art.).

Dena den, inguruabarrak aldatu direla uste baldin bada, alderdiak eta Ministerio Publikoak (adingabeak edo ezgai diren seme-alabak baleude) behin betiko neurri horiek alda daitezten eska diezaioke epaileari (774 art.).

Berdin da zein zentzukoa den ezkontzaren deuseztasunaren gainean emandako epaia, gora jotzeko helegitea aurkez baitaiteke (455.-467. artikulua).

**Efektuei** dagokionez, ezkontzaren deuseztasuna adierazten denean, bikotearen erlazioari inoiz izan ez balitz bezala joko da. Dibortzioak baliozko ezkontza baten amaiera dakar; deuseztasunak, berriz, ezkontza ez baliozkotzat jotzea du ondorio. Dena den, erlazio horretan izandako seme-alaben inguruan sorturiko efektuak ez ditu deuseztatuko. Gauza bera gertatuko da fede oneko ezkontidearen inguruan sorturiko efektuekin. Ezkontidearen fede onaren ustekizuna biltzen da Kode Zibilean (KZko 79. art.).

Bestelakoan, deuseztasunak, dibortzioak eta banaketak efektu komunak izango dituzte (horiek Kode Zibilaren 90.-101. artikuluetan zehazten dira).



**4. Ezkontzaren deuseztasuna aitortzen duten eta *rato* eta kontsumatu gabeko ezkontza desegiteko eliz erabakien homologazio zibilaren prozedura** (Prozedura Zibilaren Legearen 778. art.)

Eliz eskumenean ezkontza-deuseztasunari buruzko erabaki irmo bat dagoenean, badago horren eraginkortasun zibila lortzeko aukera, 1979ean Eliz Katolikoaren eta Estatu espainiarraren artean sinaturiko gai Juridikoei Buruzko Akordioak aipatzen duen bezala eta Kode Zibilaren 80. artikulua zehazten duen moduan, baldin eta erabaki horren edukia ordenamendu zibilaren arauekin bat badator. Eliz epai horiek efektu zibilak izan ditzaten hasiko den prozedurari homologazio zibilaren prozedura deitzen zaio. Homologazio hori sustatzea ezkontideei dagokie eta haien borondatez bakarrik hasi ahal izango da. Aukera bera aurreikusten da *rato* eta kontsumatu gabeko ezkontza desegiten duten eliz erabakietarako ere.

Prozedura hori Prozedura Zibilaren Legearen IV. Liburuaren Tituluaren IV. Kapituluko prozedura zibil berezien artean biltzen da. Beraz, aurreko epigrafean buruturiko azalpen guztiak eta aipatutako arau guztiak aplikagarriak izango dira hor ere, berezitasun bakar batekin, hots, Prozedura Zibilaren Legearen 778. artikuluan aurkitzen duguna:

Artikulu horren arabera, horien eraginkortasun zibilaren inguruko eskaeretan behin-behineko neurriak hartzea edo horiek aldatzea eskatuko ez bada, epaileak eskaria aurrera eraman ez duen alderdiari eta Ministerio Publikoari entzunaldia emango die 10 eguneko epean eta auto bidez erabakiko du horren inguruan.

Eskaeran behin-behineko neurriak hartzea edo horiek aldatzea proposatuko balitz, lege horren 770. artikuluan zehaztutako erregelen arabera, homologazioari eta aipatutako neurri horiei buruzko auzia eramango da aurrera, azken erabakian, epaileak bi gai horiei buruz erantzun bat emango du.

## **14.IKASGAIA. GUTXIENGOAN DAUDEN ERLIJOEN EZKONTZA**

### **I. IKASGAIAREN ESKEMA**

#### **- Sarrera**

- Indarrean dagoen ezkontza-sistema: tipo bakarrekoa forma-aniztasunarekin
- Kontuan izateko araudia: EK, Akordioak erlijio-konfesioekin, KZ, EALO
- Negozioaren funtsa: estatuko zuzenbidearen esku: KZ
- Ezkontza-betekizunak; ezkontzaren efektuak; ezkontzaren jurisdikzio-kontrola
- Ezkontza burutzeko forma hauta daiteke: forma zibila eta erlijio-forma batzuk:

Akordioak sinatu dituzten konfesioei dagozkienak

#### **- Gutxiengoan dauden erlijioen ezkontzak: protestantea, judutarra eta islamiarra**

#### **- Ezkontza AURREKO eta ONDORENGO formalitateak. Ezkontza GARAIKO gutxieneko forma-betekizunak**

##### **a) Ezkontza, forma erlijioso ebanjelikoan: Lankidetza Akordioaren 7. art.**

**-Ezkontza aurretik:** Erregistro Zibilean **ezkontzeko egokitasunaren espedientea** gauzatu

**-Ezkontza ondoren:** Ezkontza inskribatu:

- 6 hilabete baino gehiago ez igaro espedientea egin

zenetik

**- Ezkontza garaikoak, gutxieneko betekizunak:** ezkondu, FEREDeko kultu-ministro baten eta adindun diren bi lekukoren aurrean.

##### **b) Ezkontza, forma erlijioso judutarrean: Lankidetza Akordioaren 7. art.**

**- Ezkontza aurretik:** Erregistro zibilean **ezkontzeko egokitasunaren espedientea** gauzatu

**- Ezkontza ondoren:** Ezkontza inskribatu:

- 6 hilabete baino gehiago ez igaro espedientea egin

zenetik

- **Ezkontza garaikoak, gutxieneko betekizunak:** ezkondu, FEREDeko kultu-ministroaren eta adindun diren bi lekukoren aurrean

c) **Ezkontza, forma erlijioso islamiarrean: Lankidetzak Akordioaren 7. art.**

- **Ezkontza aurretik:**

Ez da nahitaezkoa ezkontza egokitasunaren espedienteak ezkondu aurretik egitea. Egiten ez bada, ezkontzaren egokitasun-kontrola **inskripzioaren** unean egingo da, ezkontza kanonikoekin bezala

- **Ezkontza ondoren:** Ezkontza inskribatu:

-Espedienteak egin bada: 6 hilabeteko epea

-Espedienteak egin ez bada, Erregistro Zibileko arduradunak aztertuko du ea ezkontzak betebeharrak zibilak betetzen dituen.

- **Ezkontza garaikoak, gutxieneko betekizunak:** Ezkondu, erlijio-buruzagiaren edo Imanaren eta adindun diren bi lekukoren aurrean

## **II. IKASGAIA GARATUTA**

### **SARRERA**

Espainiar Estatuan indarrean dagoen **ezkontza-sistema tipo bakarrekoa** dela adierazi ohi da, baina ezkontzeko **forma-aniztasuna** onartzen duela. Lan honetan, guk aukera horri jarraitu diogu.

Indarrean dagoen ezkontza-sistema **tipo bakarrekoa** izateak esan nahi du ordenamendu juridiko batek bakarrik arautuko duela ezkontza erabat efektu juridiko zibilak sorraraziz. Ordenamendu hori ordenamendu zibila izango da; horrek ezarriko ditu ezkontza batek arlo zibilean efektuak izateko bete behar dituen **betekizunak**. Ordenamendu zibilak ere, ezkontza horrek arlo zibilean izango dituen **efektuak** ezarriko ditu, eta, ezkontzaren inguruan arazoak baleude, estatuko auzitegiak lirarteke eskudunak.

Ezkontza kanonikoetan eskudunak diren auzitegiei dagokienez, aztertu dugun moduan, espainiar estatuak Egoitza Santuarekin akordioak dauzka sinatuta, eta, horietan, erregimen berezi bat onartu da elizako auzitegiek emandako baliogabetze-

epaien eta *rato* eta kontsumatu gabeko Aita Santuaren erabakien efikazia zibilaren gainean.

Ezkontza negozio juridiko formala izanda, estatuak ezarriko ditu ezkontza orok bete beharko dituen **forma-betekizun minimoak** ere. Horiek errespetatuta, eta kontuan izanda ezkontza-sistema **forma-aniztasunekoa dela**, herritarrek aukera izango dute ezkontzeko forma hautatzeko: zibila nahiz erlijiosoak. Aukera horren atzean, legegileak egindako aukera bat dago: EKko erlijio- eta ideologia-askatasuna, estatuaren laikotasuna eta erlijio-konfesioekin lankidetzeta-harremanak bideratzeko modu bat.

Ezkontzeko forma aukeratzeko ahalmena, Kode Zibilean, 49. eta 59.<sup>17</sup> artikuluetan jasotzen da. Erlijio-askatasunari buruzko Lege Organikoaren 2. artikuluan (EALO aurrerantzean) erlijio-askatasunaren edukien artean, "bakoitzak bere ezkontza-errituak aukeratzeko duen eskubidea"<sup>18</sup> jasotzen da. Dena den, esan behar da EALOk aitorpen horrek ez duela nahitaez esan nahi ezkontzeko erritu erlijioso horiek efektu zibilak izango dituztela. Indarrean dagoen ezkontza-sisteman, efektu zibilen aitorpena erlijio-konfesioekin sinatutako akordio eta kode zibilaren aitorpenaren ondorioa da.

Modu horretako ezkontza-sistemarekin, **oreka bat** lortu nahi da, herritarren berdintasunaren eta estatuaren laikotasunaren artean, batetik, eta, bestetik, herritarren ideologia- eta erlijio-askatasunaren artean. Horregatik, negozioaren funtsa –ezkontza baliozkoa izateko betekizunak, efikazia juridikoa eta kontrol jurisdikzionala (auzitegien bidez eginikoa, alegia), baita gutxieneko eskakizun formalak ere– estatuko zuzenbideak arautuko du, eta berdinak dira herritar guztientzat. Bide batez, herritarren kontzientzia errespetatu nahian, hautazkoa izango da ezkontzeko forma.

---

<sup>17</sup> **49. art.:** Cualquier español podrá contraer matrimonio dentro o fuera de España:

1.- ante el juez, alcalde o funcionario señalado por este Código...**F. civil**

2.- En la forma religiosa legalmente prevista **F. religiosa** (...)

**59. art.:** El consentimiento matrimonial podrá prestarse en la **forma prevista por una confesión religiosa inscrita**, en los términos acordados con el Estado o, en su defecto, autorizados por la legislación de éste.

<sup>18</sup> Ley Orgánica 6/1980 de 5 de julio, de Libertad Religiosa.

Art. 2: 1.- *La libertad religiosa y de culto garantizada por la C comprende, con la consiguiente inmunidad de coacción, el derecho de toda persona a:*

(...) b) *Practicar los actos de culto y recibir asistencia religiosa de su propia confesión; conmemorar sus festividades; celebrar sus ritos matrimoniales (...).*

Horrek esan nahi du, neurri batean, **eta ezkontza-formari dagokionez**, ordenamendu zibilak beste ordenamendu batzuetara **igortzen** gaituela.<sup>19</sup>

Hori horrela izanik, honako galdera hau sortzen da: zergatik aztertu dugu guk ordenamendu kanonikoa ia osorik, ordenamendu zibilean formari buruzko arauak bakarrik badute eragina?

Horren erantzuna, hasteko, estatuak Eliza Katolikoarekin 1979. urtean sinatu zuen akordio batean datza, hain zuzen, gai juridikoei buruzkoan. Haren VI. artikuluko 2. paragrafotik<sup>20</sup> ondorioztatzen da ezkontideek eliz autoritateengana jo dezaketela ezkontzaren deuseztasuna edo *rato* eta kontsumatu gabe egotearen Aita Santuaren erabakia eskatzera; eliz xedapen horiek eraginkortasuna izango dute eremu zibilean, baldin eta estatuko zuzenbidearekin bat etortzen badira; hori erabakitzea auzitegi zibilen esku egongo da.

Ildo berean dugu KZeko 80. artikulua<sup>21</sup>. Hor, akordioak esandakoari gehituko zaio bat datorren ala ez erabakiko duten auzitegi zibilen xedapenak bete beharko dituela Prozedura Zibilaren Lege zaharrak 954. artikuluan jasotako betekizunak. Gaur egun, Prozedura Zibilaren Lege berria emanda, artikulua horrek indarrean jarraitzen du modu iragankorrean.

Beraz, ordenamendu zibilak espresuki aitortzen du eliz auzitegien xedapen batzuek efektu zibilak izan ditzaketela baldin eta *Estatuko zuzenbidearekin bat*

---

<sup>19</sup> D. Llamazares irakaslearen doktrinari jarraituz, Estatuak beste ordenamendu bateko arau batzuk bereak egiten baditu, igorpen materializat joko da, *remisión material*. Estatuak gai baten erregulazioa beste ordenamendu baten esku uztea erabakitzen badu, **igorpen** formalizat (*remisión formal*) joko da.

<sup>20</sup> "Los contrayentes podrán acudir a los Tribunales Eclesiásticos solicitando declaración de nulidad o pedir decisión pontificia de matrimonio rato y no consumado. A solicitud de cualquiera de las partes, **dichas resoluciones eclesásticas tendrán eficacia en el orden civil si se declaran ajustadas al Derecho del Estado en resolución dictada por el Tribunal Civil competente**".

<sup>21</sup> "las resoluciones dictadas por los Tribunales eclesásticos sobre nulidad de matrimonio canónico o las decisiones pontificias sobre matrimonio rato y no consumado **tendrán eficacia en el orden civil a solicitud de cualquiera de las partes si se declaran ajustados al Derecho del Estado en resolución dictada por el juez civil competente conforme a las condiciones a las que se refiere el art.954 de la LEC**".

*badatoz*<sup>22</sup>. Ordenamendu zibilak aukera hori aurreikusten duelako (deuseztasun-epai kanonikoei nahiz *rato* eta kontsumatu gabeko erabakiei efikazia zibila aitortzekoa, noski, homologatu ondoren), garrantzizkotzat jotzen da ikasgai honetan ezkontza zibila nahiz kanonikoa modu bateratuan aztertzea, haien arteko antzekotasun eta kontraesanak ikusi ahal izateko.

Baina **hori ez da gertatzen ezkontza erlijioso guztiekin**. Alegia, nahiz judutarrek nahiz islamiarrek badute beren ordenamendu propioa ezkontza guttiz arautzen duena. Auzitegi erlijioso propioak ere badituzte, baina horien erabakiek balio erlijioso morala soilik izango dute alor konfesionalean; ez dute balio juridiko zibilik izango, ez baitago inolako arau zibilik hori aitortzen duenik. Hain zuzen, judutarrek nahiz islamiarrek, estatuarekin akordioak sinatzerakoan, uko egin zioten aukera horri; hala 1992. urtean sinatutako akordioetan ez zaie inolako aipamenik egingo erabaki horiei.

Ikusiko dugun moduan, konfesio ebanjeliko, judutar eta islamiarren eremuan, forma arautzen duten arauak efektu zibilak soilik izango dituzte; horiexek aztertuko ditugu.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, 3. ikasgaiari aztertu dugun moduan, herritarrek aukeratu dezakete nahiz forma zibila nahiz erlijiosoa ezkontzeko, baina forma erlijioso guztiek ez dute efektu zibilik sorraraziko. KZeko 59. artikulua<sup>23</sup> betekizun batzuk jartzen ditu forma erlijiosoan egindako ezkontzek efektu zibilak

---

<sup>22</sup> Bat-etortzearen gainean zehaztu behar da horren interpretazioa ez dela zentzu bakarrekoa, dauden interpretazio ugariak bitan sistematiza ditzakegu:

a) Sektore baten ustez, bat etortzeak esan nahi du PZL zaharreko 954. artikuluko betebeharrak betetzea soilik. Zalantzak agertzen dira *zilegitasunaren* interpretazioari buruz; oro har, Ordena publikoa errespetatzea ulertzen da, baina horren hedadura desberdina izan daiteke. Sektore horren barruan ez da tipo-berdintasuna gertatzea behar.

b) Beste sektore baten ustez, berriz, besteak beste, Llamazares irakaslearen ustez, bat etortzeak, PZL 954. artikulua betebeharrak gain, esan nahi du bi ordenamenduko tipoen artean nolabaiteko berdintasuna dagoela, kausa homologoen beharra herritarren arteko berdintasuna bermatzeko.

Gaur egun, auzitegietan, lehenengo interpretazioa da nagusia. Bat-etortzea gertatzeko ez dute eskatzen ordenamendu zibilean xedapen kanonikoaren antzeko tipoa egotea; nahikoa da ebazpen kanonikoaren funtsa aztertzea, ordenamendu zibileko ordena publikoa urratzen ez duela frogatzeko. Hori gertatuko da ezkontza-kategorien artean nolabaiteko parekotasuna gertatzen bada.

<sup>23</sup> Kode Zibila, 59. art.: "*El consentimiento matrimonial podrá prestarse en la forma prevista por una confesión religiosa inscrita, en los términos acordados con el Estado o en su defecto, autorizados por la legislación de éste*".

izateko: erlijio-konfesioak dagokion erregistro berezian inskribatuta egon behar du<sup>24</sup>, eta estatuarekin hitzartuta eduki beharko du aukera hori akordio batean; betekizun horiek bete ezean, estatuak ere legez arautu dezake gai hori bere kabuz.

Esan behar da estatuak ez duela inolako lege berezirik eman forma erlijiosoan egindako ezkontzen efektu zibilak arautzeko. Beraz, ezkontza-adostasuna forma erlijiosoan emateko, beharrezkoa izango da **inskribaturik** dagoen konfesio batek aurreikusten duen forman ematea, baldin eta horrek **estatuarekin hala** hitzartu baldin badu, alegia, gai horren gainean akordioak sinatu baditu.

Gaur egun, betekizun horiek lau erlijio-konfesiok bakarrik betetzen dituzte: katolikoak, ebanjelikoak, judutarrak eta islamiarrak<sup>25</sup>.

Jadanik, Eliza Katolikoaren kasua aztertu dugu. Gainontzekoak aztertzeko, kontuan izango ditugu 1992. urtean estatuak erlijio-konfesio horiekin sinatu zituen "lankidetzak-akordioak". Akordio horietan, ezkontzaren gaia 7. artikuluan arautzen da.

#### **- Ezkontza, gutxiengoan dauden erlijioen formari jarraituz**

Ondoren, estatuak zenbait erlijio-konfesiorekin sinatu dituen akordioak aztertuko ditugu; ezkontzaren eremuari aipamena egiten dioten ataletara mugatuko gara, zehazki, ezkontza konfesional horiek burutzeko formari dagozkionak. Ezkontza-formalitateak hirutan sistematiza daitezke: ezkontza **aurrekoak**, ezkontza aurreko espedienteak; ezkontza **garaikoak**, ezkontzideek adostasuna emateko unea, eta ezkontza **ondorengoak**, inskripzioari lotuak.

**Ezkontza AURREKO eta ONDORENGO formalitateak: ezkondu aurreko espedienteak eta inskripzioak. Ezkontza GARAIKO gutxiengo formalitateak**

#### **a) Ezkontza forma erlijioso ebanjelikoan**

---

<sup>24</sup> Erlijio-taldeek nortasun juridiko berezia lor dezakete erlijio-erakunde gisa, estatu zentralerako justizia-ministerioan dagoen erregistro berezi batean inskribatzen badira; erregistroaren izena: Espainiako erlijio-entitateen erregistroa.

<sup>25</sup> Zehazki: Espainiako Entitate Ebanjelikoen Federazioa, Komunitate Israeldarren Federazioa eta Espainiako Batzorde/Komisio Islamiarra.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Gai hori 1992. urtean sinatutako lankidetzak-akordioaren 7. artikuluan arautzen da. Akordio horretatik, zera ondoriozta dezakegu:

-**Efektu zibilak** aitortzen zaizkie FEREDeko partaide diren Elizetako ministroen aurrean egindako ezkontzei<sup>26</sup>. Aitorpen hori erabatekoa izateko, Erregistro Zibilean inskribatu beharko da ezkontza. KZk hala aurreikusten du 60. eta 61. artikuluetan.

- Forma erlijioso ebanjelikoan ezkondu nahi duten pertsonak **ezkontza aurreko espediente bat** sustatu beharko dute, dagokien Erregistro zibileko arduradunaren aurrean.

Ezkontza kanonikoetan ez da horrela gertatzen; izan ere, aurretiazko espedientea ez da Erregistro zibileko arduradunaren aurrean sustatuko, eliz autoritateen aurrean baizik; zehazki, ezkontideei dagokien parrokoaren aurrean.

Aurretiazko espediente horien bitartez egiaztatu nahiko da ezkongaiak badituztela Kode Zibilak eskatzen dituen ezkontzeko gaitasuna eta askatasuna, KZeko 46., 47. eta 56. artikulua. Ondoren, ezkondu eta gero, errazagoa izango da ezkontza hori inskribatzea, legezko kontrola aurretiaz egin baita. Ezkontza kanonikoetan, ordea, estatuaren *kontrola* ezkontza ondoren egingo da, ezkontza Erregistro zibilean inskribatzerakoan.

- Ezkontza aurreko espedientea bete ondoren, Erregistro zibileko arduradunak ezkongaien **gaitasun-ziurtagiria** emango du **modu bikoiztuan**; ziurtagiri bikoiztu hori ezkontza egingo duen kultu-ministroari emango zaio.

-Ezkontzak **balio zibila izateko**, ezkontza-adostasuna dagokion **kultu-ministroaren aurrean** eman beharko da, eta, **gutxienez, adindunak diren bi testiguren aurrean**. Betiere, gaitasun-ziurtagiria eman zenetik **sei hilabete igaro baino lehen**. Horiek

---

<sup>26</sup> FEREDEn (Federación de Entidades Religiosas Evangélicas de España) federaturik dauden erlijio-entitateen artean, honako hauek daude: Bautistak, Filadelfiako elizak, Pentekostalak, "Asamblea de Hermanos", Erreformatuak, Adbentistak, Kristoren elizak, Episkopalak, Anglikanoak eta abar.



pasatu ondoren, ziurtagiria iraungi eta ezkongaiak beste bat eskatu beharko dute ezkontzeko.

-Ezkondu ondoren, ezkontza egin duen kultu-ministroak, gaitasun-ziurtagiri bikoiztuan, ezkontza burutu dela adieraziko du eginbide edo zuzenmen bidez. Ziurtagiriaren ale bat Erregistro zibileko arduradunari bidaliko zaio, eta bestea ezkontzaren akta gisa gordeko da<sup>27</sup>.

Erregistroko arduradunari bidaliko zaion ziurtagiriaren ale hori inskribatzeko ez da inolako arazorik egongo; izan ere, ezkontza aurretik jadanik egiaztatu baita ezkontza baliozkoa izateko betekizun zibilak betetzen zirela.

Hori ez da horrela gertatuko ezkontza kanonikoekin; horrelakoetan ez dago Erregistro Zibilean ezkontza aurreko gaitasun-ziurtagiria egitera joateko beharra. Kasu honetan, betekizun zibilak ezkondu ostean egiaztatuko dira, eta, noski, betetzen ez badira, ezkontza ezingo da inskribatu eta, horren ondorioz, ezin izango du efektu zibilik izan, KZko 63. art.

Ebanjelikoei dagokienez, kontuan hartu behar da haien ustez ezkontza ez dela propioki egintza erlijiosoa. Beren erlijio-oinarriak kontuan hartuta, uste dute ezkontza Estatuaren eskuduntzapean dagoen negozio juridiko bat dela; ez da sakramentu bat,. Dena den, FEREDeko erlijio-entitateek badituzte liturgiaren arloko arauak; gainontzeko ezkontza-betekizunak, efektuak eta kontrol jurisdikzionala estatuaren gaia dela jotzen dute, eremu horretarako ez dute erlijio-arau propiorik.

### **b) Ezkontza forma erlijioso israeldarrean/judutarrean:**

Gai hori ere arautua dago 1992ko lankidetzak-akordioaren 7. artikuluan. Judutarrek badute ordenamendu propio bat ezkontza erabat arautzen duena, baina estatuak ezkontza-forma arautzen duten araei bakarrik aitortzen dizkie efektu zibilak.

---

<sup>27</sup> Ordena bat dago, 1993ko urtarrilaren 21ekoa, bi ziurtagiri onesten dituen: ezkontzeko gaitasunarena eta ezkontza erlijiosoaren ospakizunarena.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Akordioaren 7. artikulua lehenengo puntuan esaten du: efektu zibilak aitortuko zaizkiola **judutarren araudi formalari** jarraituz ezkondu direnei; betiere, efektu horiek erabatekoak (*plenos*) izateko, Erregistroan inskribatu beharko da ezkontza.

Erreferentzia horrek behartzen gaitu judutarren ordenamenduaren zati hori ezagutzera, estatuko ordenamenduak hara igortzen edo bidaltzen baikaitu. Dena den, ezkontzeko formari dagokionez, **ez da askatasun osoa ematen**. Izan ere, forma judutarrean egindako ezkontzak efikazia zibila izateko, adostasuna eman beharko da kultu-ministroaren eta, gutxienez, adindun diren bi testiguren aurrean; ordenamendu zibileko minimoak errespetatuz.

Bestalde, gainontzeko betekizunak ebanjelikoekin eginiko akordioan agertzen direnen berdinak izango dira:

**-Aurretiazko espedientea** Erregistro zibileko arduradunaren aurrean.

-Ezkontideen **gaitasun-ziurtagiriaren** beharra (ziurtagiri bikoiztua), **kultu ministroari** emango zaiona. Ale batean, ezkontzaren ospakizuna jasoko da eta Erregistro zibileko arduradurari bidaliko zaio; horrek **epeari** bakarrik begiratuko dio –6 hilabete baino gehiago igaro ez izana–, lehen egiaztatu baitzuen betekizun zibilak betetzen zirela. Beste alea, ezkontzaren akta moduan gordeko da konfesioaren erregistroan.

Ezkontza judutarretan, lehenik, ezkongaien gaitasun zibila egiaztatzen da Erregistro zibileko arduradunaren aurrean, eta, ondoren, ezkontza egingo da, forma judutarrari jarraituz; betiere, ordenamendu zibilaren minimoak errespetatuz, ezkontza inskribatu ahal izateko.

### c) Ezkontza forma erlijioso islamiarrean

Aurreko bi kasuetan bezala, 1992ko lankidetzak-akordioaren 7. artikuluan arautzen da gai hori. Islamiarrek ere ordenamendu juridiko propioa dute, ezkontza erabat arautzen duena. Baina, akordioan, bakarrik esaten da **lege islamiarrek jasotzen**

**du ten forma erlijiosoan eginiko ezkontzek** efektu zibilak izango dituztela. Beraz, ezkontza-formari dagokionez ordenamendu islamiarra ezagutzea dagokigu guri; betiere, efektu horiek erabatekoak (*plenos*) izateko, Erregistro Zibilean inskribatu beharko da ezkontza.

Baina, aurreko kasuan bezala, forma-islamiarrek betekizun zibil minimoak errespetatu behar dituzte. Ezkongaiak beren adostasuna eman beharko dute dagokien buruzagi erlijiosoaren aurrean –lekuko kualifikatuaren aurrean– (akordioen 3.1 art.) eta, gutxienez, adindun diren bi testigu edo lekuko arrunten aurrean. Ez dira onartzen islamiarrek izan ditzaketan ezkontzeko bestelako formak.

Aurreko bi kasuetan ez bezala, ezkontza forma islamiarrak **berezitasun bat** du; izan ere, ezkongaiak **ez daude behartuta ezkondu aurretik** Erregistroko arduradunaren aurrean ezkontzeko egokitasuna egiaztatzen duen espedientea sustatzera, ezkontza kanonikoarekin gertatzen den antzera. Haiekin sinaturiko akordioetan, ez da jasotzen espediente hori ezkondu aurretik egiteko betebeharra. Dena den, nahi badute, borondatez egin dezakete inskripzio-zuzenmenak errazagoak izan daitezen.

Ezkondu aurretik ezkontzeko gaitasuna aitortzen duen ziurtagiria lortzen ez badute, ezkontza inskribatzerakoan egiaztatu beharko da ezkontideek badutela ezkontzeko behar den gaitasuna; orduan egingo da legaltasun-kontrola. Erregistroko arduradunak egiaztatuko du ezkontzeko betekizun zibilak bete diren ala ez, ez formakoak soilik, baita funtsari dagozkionak ere, besteak beste ea ezkongaiak baduten aurreko beste ezkontzarik. Kasu horretan, Eliza Katolikoarentzat aurreikusitakoari jarraitzen zaio: Ezkondu eta gero, ezkontza egin zuen buruzagi erlijiosoak ezkontza burutu izanaren ziurtagiri bat igorriko du Erregistro Zibilera, horri dagokion kalifikazioa egiteko; hala egiten ez badu, ezkontideei dagokie Erregistro zibilean beren ezkontza erlijiosoaren inskripzioa sustatzea.

Ezkontza erlijioso horien inskripzioari buruz, Erregistro eta Notaritzen Zuzendaritza Orokorrek Instrukzio bat eman zuen 1993ko otsailaren 10ean. Horretan, irizpide batzuk jasotzen dira 1992ko akordioen ondoren ezkontza-sisteman sortu diren berrikuntzak modu bateratuan interpretatu eta erabiltzeko.

## Ezkontza-sistema eta kontzientzia-askatasuna

Instrukzio horretan, espresuki esaten da nahiz eta konfesio Islamiarrarekin sinaturiko akordioan nahitaezko izan ez **gomendagarria** dela ezkondu aurretik Erregistro zibilaren aurrean **ezkontza aurreko espediente**a egitea. Izan ere, ezkongaien egokitasuna frogatu ondoren, ezkontzaren inskripzioa berehala gauzatuko da. Ezkontza aurreko espedienterik gabe ezkondata, Erregistroko arduradunak ez ditu bakarrik betekizun formalak aztertuko, baizik eta KZk ezkontzeko jartzen dituen betekizun guztiak egiaztatu beharko ditu.

## BIBLIOGRAFIA

LLAMAZARES FERNANDEZ, Dionisio: *El sistema matrimonial español: matrimonio civil, matrimonio religioso y matrimonio de hecho*, Servicio de Publicaciones de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense, Madril, 1995.

LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Dionisio: *Derecho de la libertad de conciencia*, II. liburukia, *Libertad de conciencia, identidad personal y solidaridad*, 3. argitaraldia.

SOUTO PAZ, José Antonio: *Derecho matrimonial*, Marcial Pons, Madril, 2000.

BERNARDEZ CANTÓN, Alberto: *Compendio de Derecho matrimonial canónico*, 9. argitaraldia, Tecnos, Madril, 2000.

LÓPEZ ALARCÓN, Mariano eta NAVARRO VALLS, Rafael: *Curso de Derecho matrimonial canónico y concordado*, 6. argitaraldia, Tecnos, Madril, 2001.

REINA, Victor eta MARTINELL, Josep María: *Curso de Derecho Matrimonial*, Marcial Pons, Madril, 1995.

SUAREZ PERTIERRA, G. (koor.): *Derecho Matrimonial Comparado*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2005.

DÍEZ-PICAZO, Luis eta GULLÓN, Antonio: *Sistema de Derecho civil*, IV. liburukia, *Derecho de familia y Derecho de sucesiones*, 10. argitaraldia, Tecnos, Madril, 2007.